Hezkuntza

Elkartasuna ikasiz

# ZENTZUMENAK IRAKASLE



ALBOAN

Mensajero

# ZENTZUMENAK IRAKASLE



Euskal Hizkuntza eta Literatura arlorako
material didaktikoa DBH 4. maila

Egileak: Alfredo Asiáin eta ALBOANeko Elkartasunerako Hezkuntza Taldea

# Aurkibidea


1. ALBOANen aurkezpena 5

2. Unitate didaktikoaren sarrera 7

3. Aldez aurreko argibideak 11

4. Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak 13
   - 4.1. Helburu orokorrak 13
   - 4.2. Edukiak 14
   - 4.3. Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak 15

5. Proposamen didaktikoa 21
   - 5.1. Pertzepziozko ezagutza 23
     - 5.1.1. Zentzumenak eta pertzepzioa 23
     - 5.1.2. Artea eta pertzepzioa 63
     - 5.1.3. Besteen pertzepzioa: irudizkoa 88
   - 5.2. Emoziozko ezagutza 105
     - 5.2.1. Sentipenak 105
     - 5.2.2. Artearen emoziozko ezagutza 133
     - 5.2.3. Norberaren emoziozko ezagutza 155
     - 5.2.4. Besteen emoziozko ezagutza: enpatia 163
   - 5.3. Arrazoizko ezagutza 167
     - 5.3.1. Besteei buruzko informazioa eta aurreiritziak 167

6. Unitate didaktikoaren ebaluazioa 185

6.1. Ikasleentzako ebaluazio-proposamena 186

6.2. Irakasleentzako ebaluazio-proposamena 189

7. Bibliografia 193

8. Sareko beste zenbait baliabide 199

# 1 ALBOANen aurkezpena

ALBOAN Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak eta pertsonak elkartzen dituen plataforma bat da, eta, elkarbanatutako esperientziaz baliatuz, gizartea eraldatzea du helburu, giza garapena, bizitza duina eta justizia pertsona ororen ondare izan daitezen.

Prestakuntza-arloaren bidez, ALBOANek elkartasunaren kultura sortzearen alde egiten du apustu. Beraz, mundu zuzenago eta gizatiarrago bat lortzeko, gizartearen eraldaketaren alde apustu egingo duten “hiritar aktibo, kritiko eta solidarioak” sortzeko konpromisoa gero eta talde eta pertsona gehiagok har dezaten lagundu nahi du.

Horretarako, hiru eremutan egiten dugu lan:

- Hezkuntza elkartasunean.
- Borondatezko lanean.
- Prestakuntza soziopolitikoan.

Alor horietako bakoitzean honako hauen bidez egiten dugu lan:

1. Prestakuntza-ekimenak sortuz.
2. Elkartasun-esperientziak sustatuz.
3. Elkarguneak eta gogoetarako guneak sortuz.
4. Gure hezkuntza-proposamenak zabalduz.

Gure iritziz, eta topikoetatik harantzago, hezkuntzak ahalmen handia du gizartearen eraldaketan. Beste gizarteratze-eskaerekiko “lehia” handia izan arren, eskola oraindik ere balioak transmititzeko leku garrantzitsua da. Eskolan ere sortzen da *kultura*, eta ez ezagutza-multzo gisa, baizik eta pertsonak elkarren artean harremanak izateko moduan, sentitzeko moduan, esanahiak sortzeko moduan, zenbait balioren inguruan bizitza antolatzeko moduan... Eta eremu horretan eragin dezakegu hezitzaileok: kul-

turaren sorreran, *elkartasunaren kultura*ren sorreran. Elkartasunean bizi diren pertsonetatik abiatuta bakarrik hartu ahal izango ditugu mundu zuzenago eta gizatiarrago bat lortzeko aukera emango dizkiguten neurri eraginkorrak.

Arrazoi horiengatik, ALBOANen garapenerako eta elkartasunerako hezkuntzaren alde egin dugu apustu gogor. Ahalegin horien barnean dago material didaktikoak egiteko proiektua, eta esku artean duzun hau da proiektu horren fruituetako bat.

Bilduma horretako unitate didaktikoak hezitzaile-talde batek egin ditu ALBOANen laguntzaz eta aholkularitzaz. Prozesuak –luzea bera– hainbat fase izan ditu:

- Irakasle-talde bat motibatzea eta prestatzea.
- Irakasgaien ohiko programetako gaiak aukeratzea.
- Elkartasunerako hezkuntzaren ikuspegia kontuan hartuko duten jarduerak diseinatzea: metodologia aktiboak, parte hartzekoak eta lankidetzakoak, bertako errealitatea eta errealitate orokorra lotuko dituztenak, eta ekintzara bideratuak.
- Jarduerak egitea eta gelako esperientziarekin alderatzea.
- Ebaluatzea eta hobetzea.
- Argitaratzea.
- Erabiltzaileen lana ebaluatzea.

Gure lan-esperientzia eta, batez ere, gure ilusioa biltzen dituen lan hau erabilgarria, iradokitzailea eta sustagarria izatea espero dugu gure itxaropen bera duten hezitzaileentzat: *benetako elkartasunean oinarritutako mundua eraikitzea posible da.*

# 2. Unitate didaktikoaren sarrera

Mendebaldeko kulturaren historizismoak eta zientifismoak benetako lobotomia eragin diote gizakiari, bere dimentsio ez-enpiriko eta ez-arrazoizko osoa zikinduta analfabeto sentimental bihurtu denari[1]. Joera horrek paradoxa arriskutsua ezarri du: irudien produkzioa eta erreprodukzioa izugarri garatu du, baina konfiantza falta ikonoklastarekin tratatu ditu. Gizarte globalizatu horrek (G. Durand; 2000:27) irudimena alde batera utzi du limurtzeko artean, eta frogatzeko arteari, ezagutzekoari jaramonik egin ez. Eta pentsamendu ofizial edo bakar arriskutsu hori (G. Durand; 2000:30) "irudirik gabeko pentsamendu" bilakatu da: hotza, gizatasunik gabea eta arriskuz betea. G. Durand-ek (2000:138) aipatzen ditu batzuk:

> *"Arrisku hirukoitza zappingaren belaunaldientzat: arriskua irudiak irudimena itotzen duenean, arriskua taldearen mailak parekatzen dituenean –nahiz nazioa izan, nahiz kantoia edo tribua izan–, azkenik, arriskua kontrolatzen ez duen zibilizazio-iraultzak edozein gizarteren sortzeko gaitasunak estali eta gainbeheratzen dituenean..."*

Hiru arrisku horiei (irudia itotzea, mailak parekatzea edo bateratzea eta gizartearen zutabeak ahultzea), garrantzi handiko beste bat gehituko nieke: erreferentzial izateko ilusioa. Hau da, diskurtso teknozientifiko-arrazionalistak azaltzen duena erreal absolutu gisa hartzeko irudikeriaren aurrean amore ematea, diskurtso horren beraren mugak eta oinarrizko beste dimentsio batzuk ere badaudela konturatu gabe. Horrela, gizaki historizista eta zientifistaren esplorazio horrek ukatu egiten du beste dimentsio horiek badirela, eta erreal absolututzat hartzen du erreal enpirikoa edo arrazoizkoa soilik dena, eta errealitate ez-oso hori fikzio edo mitologia berri bihurtzen du. Bestela esanda, gizakiaren ezagutza teknozientifiko-arrazionalistak oinarrizko antropologia-dimentsioak baztertzen baditu, erreala emango du, baina ez da erabat erreala izango. Hori guztia sentimenen nonahikotasunak eta kontzientziaren mugek eragiten dute, eta horiek gabe, E. Pöppel-ek (1993:219) zioen gisan, *"gizakiarentzat kaosa besterik ez legoke"*. Pentsamendu "ofizial" horrek baztertu eta menderatu egin ditu beste ezagutza-modu batzuk, gizateriarentzako beharrezkoak. G. Deleuze-k eta F. Guattari-k (1995:234) modu hauek guztiak deskribatu dituzte:

[1] Esaera Rojas Marcos psikiatrarena da.

*“Pentsamendua, pentsamenduaren hiru forma nagusiak, artea, zientzia eta filosofia, definitzen dituena beti kaosari aurre egitea da, plano bat ezartzea, plano bat egitea kaosaren gainean. Baina filosofiak infinitua salbatu nahi du, kohesioa emanez: imanentzia-plano bat egiten du, gertaera edo kontzeptu trinkoak infinitura eramaten dituena, pertsonaia kontzeptualen ekintzaren bidez. Zientziak, aldiz, uko egiten dio infinituari, erreferentzia konkistatzeko: koordenatu mugagabeen plano bat ezartzen du, edo proposamen erreferentzial batzuk, behatzaile partzial batzuen ekintzaren bidez. Arteak infinitua itzuliko duen finitua sortu nahi du: konposizio-plano bat egiten du, monumentuen edo sentsazio konposatuen eramailea dena, irudi estetikoen bidez.”*

Eta garrantzitsuagoa oraindik (G. Deleuze eta F. Guattari; 1995:254-255):

*“Hiru planoak menderaezinak dira beren elementuekin: filosofiaren immanentziaren planoa, artearen konposizioaren planoa, zientziaren erreferentziaren edo koordinazioaren planoa; kontzeptuaren forma, sentsazioaren indarra, ezagutzaren funtzioa; kontzeptu eta pertsonaia kontzeptualak, sentsazio eta irudi estetikoak, funtzio eta behatzaile partzialak.”*

Hiru plano horiek, beraz, hierarkia berdina dute eta gurutzatu eta nahastu egiten dira, baina sintesirik eta identifikaziorik gabe. Gizateriaren erronka nagusia pentsamendu heterogenetiko batean sartzea izango da, eta da; Francisco de Goyak hausnarketa dotore honetan susmatzen zuenaren antzeko zerbait:

*“Fantasiak, arrazoitik aparte, munstro gaiztoak soilik sortzen ditu. Arrazoiarekin bat eginda, artearen ama eta horren desioen iturria da.”*

Ondorioz, antzematen da mendebaldeko gizakiaren edo mendebaldeko ohiturak hartu dituenaren kultur eredu globalizatuak pentsamenduaren emoziozko planoa baztertu egiten duela (artistikoa, sinbolikoa, irudizkoa, mitikoa), eta pentsamendu arrazoizko, zientifiko eta teknologikoari garrantzia ematen diola. Pentsamendu horren bereizgarri nagusia kausalitatea da eta eskolatze-sistema unibertsaletan ere ezarri da. Hipertrofia arrazionalista eta zientifista horrek, ordea, ez du ezabatzen alderdi afektibo osoa –ezin du egin–, noraezean uzten du, lehentasuna duten hezkuntza-helburuetatik kanpo, merkatu globalizatuaren gorabehera eta behar fiktizioen aurrean makurtu behar izateko arriskuan; eta hori da arazoa.

Ikuspegi horretatik, uste dugu elkartasunerako hezkuntzaren kultur ereduek ez dutela arrazoizko planoan soilik eragin behar, baita pertzepzioen eta emozioen irudizko planoan ere. Balio solidarioetan heztea, askotan, gizabanakoen eta gizarteen irudizko alderdia berriro heztea izango da; izan ere, bai tradizio endokulturalaren bidez, bai sozializatzeko beste bide batzuen bidez, axolagabetasunaren, mesfidantzaren, beldurraren, eta besteekiko gorrotoaren erroa da. GGKEek badugu erronka horien berri, eta aspaldi agertu genuen, Iparraldeko gure gizarteetan elkartasunean hezteko zerbait egiteko beharra.

Baina, agian, erantzuteko galdera zailena zera da: nola egin. Irudizkoaren gainean jarduteko modu bakarra ikertzea eta, banan-banan eta kolektiboki ezagutzea da.

G. Durand-ek (2000), irudizkoaren ikerketaren bultzatzaile nagusiak, uste du, gizakiei berez dagokiela sinbolizatzeko gaitasuna –beldur guztiak, esperantza guztiak eta kultur emaitza guztiak sortzen dituena–. J. J. Wunenburger-ek definitu digu G. Durand-en (2000: 9-10):

*“Hala ere, irudizkoak, askoz zabalago hartuta, irudi mental eta bisualen multzoa irudikatzen du. Irudi-multzo hori narrazio mitikoaren (el sermo mythicus) bidez antolatuta dago, hau da, gizabanakoak, gizarteak, gizateria osoak antolatu eta sinbolikoki adierazten ditu bere balio existentzialak eta munduaren interpretazioa, denborak eta heriotzak ezarritako erronken*

*aurrean. Irudizkoa (…) kategoria antropologikoa, funtsezkoa eta sintetikoa bilakatzen da horrela, eta, horren bidez, artelanak eta arrazoizko errepresentazioak (eta ondorioz zientzia) uler daitezke, azken finean, kultura bere osotasunean."*

Gure helburua elkartasunaren kultura indartzea da, hori lortzeko, beharrezkoa da ezagutza heterogenetiko antropologiko eta funtsezko bat sortzea, ezagutza-mota integratzailea. Mendebaldeko arrazionalismoa gainditu behar da, R. Díaz-Salazar-ek (1997:13) maisuki karakterizatu zuena:

*"Iparraldean herritar gehienak itsuak dira, eta, horregatik, mendebaldeko arrazionaltasuna dimentsiobakarreko arrazionaltasuna da: arrazoi instrumentala, ez arrazionaltasun errukibera, ezta arrazoizko arrazionaltasuna ere –zer gertatzen den zientifikoki jakiteko gauza izango bailitzateke, bere ekintza-estrategiak ezarrita–. Gizateriaren arazo nagusia antzeman ere egiten ez denean, arrazionaltasun guztiz irrazionala dago, erabat teknokratikoa eta instrumentala."*

Azken finean, gure asmoa, *Zentzumenak irakasle* izeneko unitate didaktiko honen bitartez, hizkuntza berria sortzen laguntzea da, elkartasunerako pedagogia berria sortzen laguntzea –arrazionalismo dimentsiobakar eta teknokratikoa gaindituko duena eta elkartasuneko etikara[2] eta erruki iraunkorra sortzera[3] eramango gaituena–. Hau da, munduan egoteko modu bat, solidaritatea –José María Mardones-ek dioen moduan– besteekiko arreta, dedikazioa eta ardura dena.

Nondik hasi? Euskal Hizkuntza eta Literatura arloa esparru pribilegiatua dela uste dugu; hizkuntzaren azterketa eta erabileraren helburu nagusiak ditu, ahalmen guztietan, baita literaturaren pertzepzio-gaitasun, gaitasun-afektibo eta kontzepzio-gaitasunenak ere.

[2] X. Etxeberria, 1997.

[3] R. Díaz-Salazar, 1997, 16.or.

# 3. Aldez aurreko argibideak

Unitate didaktiko hau Hizkuntza eta Literatura arloan lantzeko prestatu dute egileek. Bestalde, material irekia denez eta egokitzeko aukera handiak ematen dituenez, curriculumeko beste irakasgaietan edota hezkuntza ez-formalean ere erabil daitezke zenbait gai edo jarduera.

Unitateak hiru gai ditu eta horiek, aldi berean, hainbat azpigaitan banatuta daude. Azpigai horietako bakoitzerako jarduera-sorta bat dago. Azpigai bakoitzaren hasieran, helburuen, jardueren deskribapenaren eta behar den materialaren berri ematen zaio irakasleari, eta gutxi gorabehera bakoitzak zenbat iraungo duen adierazten zaio. Jarduera gehienek dokumentazio osagarria ere badute. Dokumentazio hori erabili baino lehen, irakaleei berrikustea iradokitzen diegu.

Unitate didaktikoan zehar zenbait ikono agertzen dira, eta honako alderdi hauei egiten diete erreferentzia:




**Irakasleentzako gida**



**Taldekako dinamika**



**Jarduera**



**Irakasleentzako erantzunak**



**Banakako dinamika**



**Dokumentazio osagarria**

# 4. Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak

Ondoren, unitate didaktiko honetan landu daitezkeen giltzarri pedagogikoak aipatzen dira:

a) Unitatearen helburu didaktikoak.

b) Edukiak: kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak.

c) Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak.

## 4.1. Helburu orokorrak

1. Ahozko eta idatzizko diskurtsoak, irudiak eta artelanak pertzepzioaren, emozioen eta arrazoiaren bidez ulertzea, eta horien helburuak eta sortu direneko komunikazio-egoerak bereiztea.

2. Ahoz eta idatziz zuzen eta koherentziaz espresatzea, helburuak eta komunikazio-egoerak aintzat hartuta, pixkanaka norberaren emoziozko ezagutzatik eta besteen ezagutzatik etorritako estilo adierazgarri propioa hartuz.

3. Norberaren pertzepzioak, emozioak eta pentsamenduak aintzatetsi eta analizatzea, besteekin benetako identifikazioa sustatzeko interesaren, errespetuaren eta elkartasunaren bidez.

4. Komunikabideetatik eta irudizko kolektibotik datorren hitzaldia ulertzea, ahozko eta idatzizko espresioari eta ez-hitzezko kodeekin duen loturari arreta berezia jarriz, diskurtsorako abilezia areagotzeko eta, aldi berean, mezu horiekiko jarrera kritikoa garatzeko.

5. Irakurtzea eta idaztea komunikazio-bidetzat eta kultur aberastasunerako eta norberaren ezagutzarako eta plazererako iturritzat hartuta.

6. Lan literario eta artistikoetara gero eta autonomia osoagoarekin heltzea. Horrekin batera, hizkuntzaren espresio-aukerak, estetikoak eta ludikoak jakinaren gainean erabiltzea, norberari eta besteei buruzko pertzepzioak, emozioak eta hausnarketak dituzten asmo sortzaileko testuak sortzean.

## 4.2. Edukiak

### Kontzeptuzkoak

- Gizakiaren pertzepzioa: zentzumenen definizioa eta ezaugarriak.
- Artearen pertzepzioa: oinarrizko kontzeptuak.
- Arte- eta zinema-iruzkinetako kontzeptuak eta hiztegi espezifikoa.
- Sentimenak: definizioa eta ezaugarriak.
- Baliabide erretoriko nagusiak.
- Literatur generoak: ezaugarriak eta oinarrizko ezberdintasunak.
- Testu narratibo, dramatiko eta lirikoen iruzkinetako kontzeptuak eta hiztegi espezifikoa.
- Literatur espresioaren funtzio poetikoa eta ezaugarri nagusiak.
- Testua komunikazio-batasun gisa.
- Testu-motak eta testuinguruko parametroekin eta igorlearen asmoarekin duten harremana.
- Komunikazio-testuinguruko faktoreak (igorlea, hartzailea, bien arteko harremana, badauden edo ez dauden, kanala, igorlearen asmoa...) eta testuan nola agertzen diren.
- Manipulatzeko hizkuntza-mekanismoak.
- Kazetaritza-komunikazioa: informazioa eta iritzia.
- Lexiko- eta semantika-kontzeptuak: sinonimia, antonimia, eremu semantikoa eta isotopia.
- Idatzizko komunikazioa: deskribapenaren, narrazioaren eta argudiaketaren ezaugarriak.
- Ahozko komunikazioa: eztabaidaren ezaugarriak.
- Testua esanahia, egitura eta barne-konexioa duen elementu gisa.

### Prozedurazkoak

- Lan artistiko eta literarioen sentsazio, emozio eta ideien behaketa eta analisia.
- Lan artistiko eta literarioen iruzkina.
- Hizkuntza ez-ahozkoaren komunikazio-aukeren azterketa.
- Testuen irakurketa espresiboa eta deklamatiboa.
- Testu literario batzuei buruzko epaiketa pertsonal arrazoitua.
- Intentzio literarioa duten testuak sortzea.
- Hainbat testu-motaren prentsa-analisi konparatiboa.
- Irakurtzeko ohitura indartzea.
- Hizkuntzaren erabileran gero eta zehaztasun eta zuzentasun handiagoa lortzea.
- Pentsamendua eta emozioak antolatzeko idaztea.
- Ahozko komunikazioa: eztabaidetan parte hartzen ikastea.
- Hiztegia eta beste dokumentazio-iturri batzuk erabiltzeko ohitura.
- Idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko informazio-iturriak hautatzea, topatzea, kontsultatzea eta aprobetxatzea, lan batzuk egiteko.
- Taldeko lanetan parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko estrategiak eskuratzea.
- "Desberdin" ikusten dugunari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak antzeman eta baztertzea.
- "Besteekin" ditugun harremanek sortzen dizkiguten sentsazioak, emozioak eta pentsamenduak antzeman eta analizatzea.
- Kazetaritzako testu batzuei buruzko epaiketa pertsonal arrazoitua.

### Jarrerazkoak

- Diskriminazioa-, erredukzionismo- edo manipulazio-kutsua duten hizkuntza-erabileren aurrean espiritu kritikoa sustatzea.
- Hizkuntza errespetuz eta zehaztasunez –estereotipoak edo adierazpen diskriminatzaileak bazter utzita– erabiltzeko gogoa.
- Lan literarioen eta komunikabideen eduki ideologikoen aurrean jarrera kritikoa izatea.
- Norberaren sentsazioak, emozioak eta pentsamenduak behatuz nork bere burua ezagutzeko interesa.
- Irakurtzeko ohitura areagotzea, plazer- eta dokumentazio-iturria baita.
- Lan artistiko eta literarioak hautatu eta baloresteko irizpide propioak ezartzea.
- Kazetaritza-komunikabideekiko eta espresiobide artistikoekiko interesa piztea.
- Hizkuntzari buruzko hausnarketaren garrantziaz konturatzea, norberaren ekoizpen linguistikoak neurtu eta besteenak ulertzeko.
- "Besteekin" enpatia- edo identifikazio-maila egokia lortzea.
- Komunikabideen eduki ideologikoaren aurrean jarrera kritikoa izatea.

## 4.3. Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak

### I. gaia. Pertzepziozko ezagutza

***1-13 jarduerak***

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Kontzeptuak** | • Gizakiaren pertzepzioa: zentzumenen definizioa eta ezaugarriak. | • % 20 | Lan-fitxak. |
| | • Lexiko- eta semantika-kontzeptuak: sinonimia, antonimia, eremu semantikoa eta isotopia. | • % 20 | Lan-fitxak. |
| | • Artearen pertzepzioa: oinarrizko kontzeptuak. | • % 20 | Taldearen fitxak entregatzea. |
| | • Sentimenak: definizioa eta ezaugarriak. | • % 20 | Lan-fitxak. |
| | • Testua esanahia, egitura eta barne-kohexioa duen elementu gisa. | • % 20 | "Nire esperientzia" entregatzea. |
| **Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa** | | | |

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Prozedurak** | • Taldeko lanetan parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko estrategiak eskuratzea. | • % 10 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Lan artistiko eta literarioen sentsazio, emozio eta ideien behaketa eta analisia. | • % 10 | Lan-fitxak. |
| | • Pentsamendua eta emozioak antolatzeko idaztea. | • % 10 | “Nire esperientzia” entregatzea. |
| | • Hizkuntza ez-ahozkoaren komunikazio-aukeren azterketa. | • % 10 | Banakako lanari erreparatzea. |
| | • Hiztegia eta beste dokumentazio-iturri batzuk erabiltzeko ohitura. | • % 10 | Banakako lanari erreparatzea. |
| | • Testuen irakurketa espresiboa eta deklamatiboa. | • % 10 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntzaren erabileran gero eta zehaztasun eta zuzentasun handiagoa lortzea. | • % 10 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Lan artistiko eta literarioen iruzkina. | • % 10 | Taldearen nota. Fitxak entregatzea. |
| | • ”Besteekin” ditugun harremanek sortzen dizkiguten sentsazioak, emozioak eta pentsamenduak antzeman eta analizatzea. | • % 10 | Lan-fitxa. |
| | • ”Desberdin” ikusten dugunari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak antzeman eta baztertzea. | • % 10 | Zuzeneko behaketa. |
| **Prozedurazko edukien azken kalifikazioa** | | | |
| **Jarrerak** | • Norberaren sentsazioak, emozioak eta pentsamenduak behatuz nork bere burua ezagutzeko interesa. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntzari buruzko hausnarketaren garrantziaz konturatzea, norberaren ekoizpen linguistikoak neurtu eta besteenak ulertzeko. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Lan artistiko eta literarioak hautatu eta balioesteko irizpide propioak ezartzea. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Irakurtzeko ohitura areagotzea, plazer- eta dokumentazio-iturria baita. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| | • ”Besteekin” enpatia- edo identifikazio-maila egokia lortzea. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| **Jarrerazko edukien azken kalifikazioa** | | | |

## II. gaia. Emoziozko ezagutza

*14-22 jarduerak*

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Kontzeptuak** | • Lexiko- eta semantika-kontzeptuak: sinonimia, antonimia, eremu semantikoa eta isotopia. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Sentimenak: definizioa eta ezaugarriak. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Testu narratibo, dramatiko eta lirikoen iruzkinetako kontzeptuak eta hiztegi espezifikoa. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Baliabide erretoriko nagusiak. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Literatur generoak: ezaugarriak eta oinarrizko ezberdintasunak. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Literatur espresioaren funtzio poetikoa eta ezaugarri nagusiak. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Testua komunikazio-batasun gisa. | • % 12,5 | Lan-fitxak. |
| | • Arte- eta zinema-iruzkinetako kontzeptuak eta hiztegi espezifikoa. | • % 12,5 | Iruzkinak entregatzea. |
| **Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa** | | | |
| **Prozedurak** | • Lan artistiko eta literarioen iruzkina. | • % 11 | Iruzkinak entregatzea. |
| | • Testu literario batzuei buruzko epaiketa pertsonal arrazoitua. | • % 11 | Iruzkinak entregatzea. |
| | • Irakurtzeko ohitura indartzea. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntzaren erabileran gero eta zehaztasun eta zuzentasun handiagoa lortzea. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Lan artistiko eta literarioen sentsazio, emozio eta ideien behaketa eta analisia. | • % 12 | Lan-fitxak. |
| | • Pentsamendua eta emozioak antolatzeko idaztea. | • % 11 | "Nire kontakizuna" entregatzea. |
| | • Hiztegia eta beste dokumentazio-iturri batzuk erabiltzeko ohitura. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Taldeko lanetan parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko estrategiak eskuratzea. | • % 11 | Behaketa. Taldearen nota. |
| | • Hizkuntza ez-ahozkoaren komunikazio-aukeren azterketa. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| **Prozedurazko edukien azken kalifikazioa** | | | |

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Jarrerak** | • Diskriminazio-, erredukzionismo- edo manipulazio-kutsua duten hizkuntza-erabileren aurrean espiritu kritikoa sustatzea. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntza errespetuz eta zehaztasunez –estereotipoak edo adierazpen diskriminatzaileak bazter utzita– erabiltzeko gogoa. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Norberaren sentsazioak, emozioak eta pentsamenduak behatuz nork bere burua ezagutzeko interesa. | • % 16 | “Nire kontakizuna” entregatzea. |
| | • Irakurtzeko ohitura areagotzea, plazer- eta dokumentazio-iturria baita. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Lan artistiko eta literarioak hautatu eta balioesteko irizpide propioak ezartzea. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntzari buruzko hausnarketaren garrantziaz konturatzea, norberaren ekoizpen linguistikoak neurtu eta besteenak ulertzeko. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| | • “Besteekin” enpatia- edo identifikazio-maila egokia lortzea. | • % 14 | Zuzeneko behaketa. |
| **Jarrerazko edukien azken kalifikazioa** | | | |

## III. gaia. Arrazoizko ezagutza

***23-25 jarduerak***

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Kontzeptuak** | • Komunikazio-testuinguruko faktoreak (igorlea, hartzailea, bien arteko harremana, badauden edo ez dauden, kanala, igorlearen asmoa...) eta testuan nola agertzen diren. | • % 20 | Prentsa analizatzeko fitxa entregatzea. |
| | • Manipulatzeko hizkuntza-mekanismoak. | • % 20 | Prentsa analizatzeko fitxa entregatzea. |
| | • Kazetaritza-komunikazioa: informazioa eta iritzia. | • % 20 | Prentsa analizatzeko fitxa entregatzea. |
| | • Idatzizko komunikazioa: deskribapenaren, narrazioaren eta argudiaketaren ezaugarriak. | • % 20 | Prentsa analizatzeko fitxa entregatzea. |
| | • Ahozko komunikazioa: eztabaidaren ezaugarriak. | • % 20 | Zuzeneko behaketa. |
| **Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa** | | | |

| | Edukiak | Kalifikazioa | Metodoa |
|---|---|---|---|
| **Prozedurak** | • Kazetaritzako testu batzuei buruzko epaiketa pertsonal arrazoitua. | • % 11 | 23. jardueraren ondorioa entregatzea. |
| | • Hainbat testu-motaren prentsa-analisi konparatiboa. | • % 11 | Prentsa analizatzeko fitxa entregatzea. |
| | • Hizkuntzaren erabileran gero eta zehaztasun eta zuzentasun handiagoa lortzea. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Pentsamendua eta emozioak antolatzeko idaztea. | • % 11 | 23.jardueraren ondorioa entregatzea. |
| | • Ahozko komunikazioa: eztabaidetan parte hartzen ikastea. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hiztegia eta beste dokumentazio-iturri batzuk erabiltzeko ohitura. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Idatzizko, ahozko eta ikus-entzunezko informazio-iturriak hautatzea, topatzea, kontsultatzea eta aprobetxatzea, lan batzuk egiteko. | • % 11 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Taldeko lanetan parte hartzeko eta lankidetzan jarduteko estrategiak eskuratzea. | • % 11 | Zuzeneko behaketa |
| | • ”Desberdin” ikusten dugunari buruzko aurreiritziak eta estereotipoak antzeman eta baztertzea. | • % 12 | Zuzeneko behaketa. |
| **Prozedurazko edukien azken kalifikazioa** | | | |
| **Jarrerak** | • Diskriminazio-, erredukzionismo- edo manipulazio-kutsua duten hizkuntza-erabileren aurrean espiritu kritikoa sustatzea. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntza errespetuz eta zehaztasunez –estereotipoak edo adierazpen diskriminatzaileak bazter utzita– erabiltzeko gogoa. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Komunikabideen eduki ideologikoaren aurrean jarrera kritikoa izatea. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Kazetaritza-komunikabideekiko eta espresiobide artistikoekiko interesa piztea. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| | • Hizkuntzari buruzko hausnarketaren garrantziaz konturatzea, norberaren ekoizpen linguistikoak neurtu eta besteenak ulertzeko. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| | • ”Besteekin” enpatia- edo identifikazio-maila egokia lortzea. | • % 16,6 | Zuzeneko behaketa. |
| **Jarrerazko edukien azken kalifikazioa** | | | |

# 5. Proposamen didaktikoa

**5.1. Pertzepziozko ezagutza**

5.1.1. Zentzumenak eta pertzepzioa

***1. jarduera: Koloreen hizkuntza***

***2. jarduera: Sentsazioen hizkuntza***

***3. jarduera: Sentsazioak definitzen***

***4. jarduera: Bost zentzumenekin irakurtzen***

***5. jarduera: Sentsazioak biltzen***

***6. jarduera: Artearen kutsua***

***7. jarduera: Sinboloak eta emozioak***

***8. jarduera: Hitzak, emozioak, sentsazioak***

***9. jarduera: Nire esperientzia***

5.1.2. Artea eta pertzepzioa

***10. jarduera: Artistaren lekuan***

***11. jarduera: Artelanen iruzkinen hastapenak***

5.1.3. Besteen pertzepzioa: irudizkoa

***12. jarduera: Hegoaldeari buruz dugun irudia***

***13. jarduera: Ohiko topikoak***

## 5.2. Emoziozko ezagutza

### 5.2.1. Sentimenak

***14. jarduera: Hitz zehatzak***

***15. jarduera: Emozioen izenak***

***16. jarduera: Hunkitzeko artea***

### 5.2.2. Artearen emoziozko ezagutza

***17. jarduera: Bi lan literarioren forma eta baliabide erretorikoen analisia***

***18. jarduera: Literatur generoak eta testu-iruzkinak***

***19. jarduera: Hainbat arteren iruzkin konparatua (zinema eta pintura) gatazkatik***

### 5.2.3. Norberaren emoziozko ezagutza

***20. jarduera: Memoria freskatzen***

***21. jarduera: Nire kontakizuna***

### 5.2.4. Besteen emoziozko ezagutza: enpatia

***22. jarduera: Nire laguna***

## 5.3. Arrazoizko ezagutza

### 5.3.1. Besteei buruzko informazioa eta aurreiritziak

***23. jarduera: Informazioa, iritzia eta aurreiritzia***

***24. jarduera: Idatzizko komunikazioa: etorkinak eta langabezia Espainian***

***25. jarduera: Gure iritziak eztabaidagai***





# 5.1.Pertzepziozko ezagutza

## 5.1.1. Zentzumenak eta pertzepzioa

*1. jarduera: Koloreen hizkuntza*

*2. jarduera: Sentsazioen hizkuntza*

*3. jarduera: Sentsazioak definitzen*

*4. jarduera: Bost zentzumenekin irakurtzen*

*5. jarduera: Sentsazioak biltzen*

*6. jarduera: Artearen kutsua*

*7. jarduera: Sinboloak eta emozioak*

*8. jarduera: Hitzak, emozioak, sentsazioak*

*9. jarduera: Nire esperientzia*



## Irakasleentzako gida

***1. Sarrera***

Unitate didaktikoaren sarreran ezagutza-eredu integratzailea, heterogenetikoa proposatu dugu, errealitatea zentzumenen bidez hautemanez, ez objektuak subjektuak ikusten dituen bezala ez afektuak marjinatzen dituena, arrazoizko kontzeptuekin eta abstraktuekin erlazionatu eta konbinatzea lortzen duena.

Bide horretan lehen pausoa, zalantzarik gabe, zentzumenen eta giza pertzepzioaren ikerketa da. Baina helburu horren zailtasuna dela eta, diziplinartean jardutea litzateke onena: Natur Zientzietatik eta Biologiatik helduta, Gorputz Hezkuntzako psikomotrizitate-edukietatik edo Plastika eta Ikus-Hezkuntzatik abiatuta eta Literaturan lortutako ekarpenak aintzat hartuta.

Gai honek, gainera, beste zailtasun bat ere badu, ikuspegi-aniztasuna: anatomikoa, psikologikoa, artistikoa, antropologikoa eta hezkuntzakoa besteak beste. Ezin ditugu orain guztiak aztertu, beraz, ez dugu zentzumenen azterketa anatomikorik ez zientifikopsikologikorik egingo. Horretarako, monografia bikainak daude eta amaierako bibliografian aipatu ditugu.

Ondorioz, ikuspegi antropologikoari heldu diogu, izaera globalekoa denez, ikuspegi artistikoa eta hezkuntzakoa biltzen dituelako eta, elkartasunerako hezkuntzan esplorazio-bide bat eskaintzen saiatzen delako. Ikuspegi horren abiapuntua “**Zentzumenen antropologia”** delakoa da, C. Classen-ek (1993a; 1993b; 1994...) definitzen duen bezala. Zentzumenen pertzepzioa ekintza fisikoa izateaz gain kulturala ere badela dioen kontzeptuan oinarritzen da hori. Ideia horren arabera, ikusmena, entzumena, ukime-

na, dastamena eta usaimena ez dira fenomeno fisikoak jasotzeko bideak soilik, kultur balioen transmisiorako bideak ere bai. Beraz, pertzepzioa kulturak baldintzatzen badu, **kultura batetik bestera munduaren pertzepzioa aldatu egiten da**. Horrela, mendebaldeko kulturaren kasuan, bisualismo sakona dago eta beste kultura batzuetako zentzumen-paisaiak ulertzea eragozten du. Gainera, kultura ezberdinetako sentsazio eta zentzumenei lotutako esanahiak aztertzen direnean, zentzumen-sinbolismo oso aberatsa eta indartsua aurkitzen da. Zentzumenen balio eta esanahi horiek ***zentzumen-eredu*** bat osatzen dute, gizarte batek bereganatzen duena, eta gizarte horretako kideek horren arabera "interpretatzen" dute mundua, edo zentzumenen pertzepzioa eta kontzeptuak "munduaren ikuspegi" partikular, eta askotan etnozentriko, bilakatzen dituzte. Hain zuzen, **zentzumenen sinbolismoa ikertzeak, nahitaez, hankaz gora jartzen ditu hierarkiak eta estereotipoak (gizarte-talde batzuei autoritate politikoa eta morala eman eta beste batzuei kendu eta kondenatzen dituztenak)**. Adibidez, azalaren kolorea diskriminazio-markatzat erabiltzea oso ohikoa da gizarte askotan; mendebaldean, usaimen-kodeek elite "lurrintsu" edo "usaingabe"ari lagundu eta talde marjinatuak, juduak eta beltzak esaterako, iraintzeko balio izan dute. Azken finean, ikuspegi horrek hezkuntza-arloa eta artistikoa ezagutzera ematen lagunduko digu (ikusi I. gaiaren 3. azpigaia), gure ikasleen zentzumen-eredua nolakoa den eta pertzepziomoduan eta "besteekin egoteko" moduan zenbateko eragina duen antzeman ahal izateko.

Hain zuzen, zentzumenen esperientziak –pertsolala beti (E. Soler Fiérrez; 1988:15) eta ezagutza ororen erroa (1988:23)– ingurura egokitzen laguntzen digu, mundua ulergarri izan dakigun. Hala ere, badakigu gizakiaren zentzumenek mugak dituztela –atari absolutu eta bereizgarria–, eta urrunera funtzionatzen dutenek, gainera, (E. Soler Fiérrez; 1988:53) egiaztatzea behar dute askotan. Horregatik, errezeloa izan zaie eta hezkuntza-programetan albora utzi dira oro har. Baina muga horiek gorabehera, haurrak globalki ikasten du, A. Monteguk zehaztutako hurrenkeran:

> *"**Homo sapiens**-en zentzumenak sekuentzia honen arabera garatzen dira: 1. ukimena, 2. entzumena eta 3. ikusmena. Hala ere, nerabezarora hurbiltzean, lehentasun-ordena kontrakoa da, ikusmena dago lehen planoan eta ukimenak entzumenari uzten dio lekua. Azpimarratzekoa da garapenaren lehen urteetan ukimen- eta entzumen-estimuluek ikusmen-estimuluek baino askoz garrantzi handiagoa dutela."*

Nerabezaroan ematen den bisualismo hau da, hain zuzen, unitate didaktiko honetako jarduera hauetan kanpo utzi nahi den oztopoa.

Bestela esanda, zentzumenak heztea, lehenik, lexikoaz jabetzeko eta modu askotan, zehatzetan eta xeheetan erabiltzeko lan sakona da, beti ere zentzumenei dagokienetik haratago hedatuko den lana. Horretarako, taula batzuk jarri ditugu jarraian; bloke honetako jarduerak egiteko beharrezko baliabideak aurkituko ditu ikasleak taula hauetan.



25

## Ikasleentzako taulak

*Honako taula hauek ikasleek eskura izan ditzaten fotokopiatzea komeni da, bloke honetako jarduerak egin ahal izateko.*

# 1. Zentzumenen lexikoaren taula[1]

### 1.1. Ikusmen-sentsazioak

#### Koloreak

Zuriaren (kolore guztien batura) eta beltzaren (kolorearen ukazioa) artean, ikusmenak tonu-gama oso zabala hautematen du, uhinaren arabera.

| Uhinak | Izenak | | Gama | Sentsazioak | Adibideak |
|---|---|---|---|---|---|
| **Luzea**<br>Gure ikusmenetik hurbilago daudela dirudi<br><br>Irratia<br><br>Telebista | Gorria<br>Haragikara<br>Errubia<br>Purpura<br>Karmesia<br>Eskarlata<br>Granatea<br>Bermiloia<br>Laranja<br>Fuksia<br>Arrosa<br>Kadmioa<br>Beixa<br>Horia<br>Urrekara<br>Beilegia<br>Kromoa<br>Okrea<br>Marroia<br>Anbarra<br>Kanelakara<br>Arrea | Beroak | **Argi distiratsua** | **Berotu egiten dute**<br>Grina, borroka, beroa, maitasuna, lotsa, tentsioa, sukarra...<br>**Dinamismoa sortzen dute**<br>Heldutasunik eza, xalotasuna...<br><br>Beroa, lehortea, aberastasuna, aginpidea, zikoizkeria...<br>Zahartasuna, dotorezia... | Odola, bihotza, tomatea, mitxoleta, errubia, sandia, sua, krabelina, ardoa, karmina, granada, sumendia, jasmina...<br>Laranja, arrosa, haragia...<br>Garia, limoia, eguzkia, urrea, banana, basamortua...<br>Lohia, berniza, zura, gaztaina... |
| **Ertaina** | Berdea<br>Oliba-kolorea<br>Esmeralda<br>Glaukoa | Epelak | | **Lasaitzen dute**<br>Lasaitasuna, itxaropena, inbidia, atsedena, promesa, freskura | Belarra, oihana, oliba, arana, esmeralda, letxuga... |
| **Laburra**<br>Urruntzeko inpresioa egiten dute<br><br>X Gamma izpiak<br>Ultramorea<br>Kosmikoak | Urdina<br>Kobaltoa<br>Zianikoa<br>Anila<br>Itsas urdina<br>Zeru urdina<br>Morea<br>Bioleta<br>Malba<br>Lila<br>Añila<br>Grisa | Hotzak | **Mate iluna** | Bakea, egonezina, hotza, urruntasuna, altitudea, garbitasuna, baretasuna, unibertsoa...<br>**Deprimitu egiten dute**<br>Tristura, penitentzia, mina...<br>Malenkolia<br>Lasaikeria | Zerua, itsasoa, turkesa, kobaltoa...<br>Urrelilia, masusta, bioleta, hematoma, malba, lila, ubeldura...<br>Errautsa, kea |

[1] M. Cuervo eta J. Diéguez, 1991, 189 or.

### 1.2. Entzumen-sentsazioak

Urruneko zentzumena da, beraz, ikusmena bezala, “zentzumen nobletzat” daukagu. Aurrea hartzen duen zentzumentzat hartzen da.

| Soinuak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *Intentsitatea edo bolumena* | *Altuera edo tonua* | *Kalitatea edo tinbrea* | *Erritmoa* | *Izenak* | *Irudiak* |
| Gorgarria<br>Zaratatsua<br>Ozena | Altua<br>Zorrotza | Atsegina | Kadentziaduna | GIZAKIAK<br>Ahotsa<br>Oihua<br>Marmarra | KONPARAZIOAK<br>Hegazkina / trumoia<br>Musua / zigorrada |
| | | | | ANIMALIAK<br>Orroa<br>Marraka<br>Urruma | SINESTESIAK<br>Gozoa<br>Distiratsua |
| Ahula<br>Motela<br>Entzungaitza | Grabea<br>Baxua | Ezatsegina | Gozakaitza | BIZIGABEAK<br>Musika-instrumentuak<br>Leherketa<br>Karraska | PERTSONIFIKAZIOAK<br>Iraingarria<br>Lagunkoia |

### 1.3. Ukimen-sentsazioak

| *Gama* | *Adjetibazioa* | *Adibideak* | *Irudiak* | *Sortzen dute* |
|---|---|---|---|---|
| Atsegina<br>Biguna | Belusatua<br>Zeta-antzekoa | Izaki bizidunak<br>Metalak<br>Lurra<br>Ura<br>(solidoak, likidoak, gasak) | Konparazioak<br>Sinestesiak<br>Pertsonifikazioak<br>Konnotazio eta oroipen pertsonalak | Mina<br>Ongizatea<br>Gozotasuna |
| Gogorra<br>Ezatsegina | Leuna<br>Likatsua<br>Arantzaduna | | | |

### 1.4. Usaimen-sentsazioak

| Usainak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Gama* | *Adjetibazioa* | *Adibideak* | *Irudiak* | *Sortzen dute* |
| Atsegina<br>Sendoa | Usaintsua | Loreak<br>Perfumeak<br>Animaliak<br>Bizigabeak | Sinestesiak<br>Konparazioak<br>Zaporearekiko harremana<br>Oroipen pertsonalak | Asaldura<br>Zorabioa<br>Lilura<br>Freskura<br>Ongizatea<br>Nazka<br>Lasaitasuna<br>Susmoa |
| Ahula<br>Ezatsegina | Okaztagarria<br>Kirasduna | | | |

### 1.5. Dastamen-sentsazioak

| Zaporeak | | | | |
|---|---|---|---|---|
| *Gama* | *Adjektibazioa* | *Mota* | *Adibideak* | *Irudiak* |
| Atsegina<br>Sendoa | Zaporetsua<br>Zapore onekoa | Gozoa<br><br><br>Mikatza<br>Gazia<br>Motela<br>Mina<br>Zaporegabea | Azukrea, eztia<br>Almibarra...<br>Behazuna...<br>Gatza...<br><br><br><br>Pipermina...<br>Ura... | Konparazioak<br><br>Sinestesiak<br><br><br>Pertsonifikazioak<br>Oroipen pertsonalak |

### 1.6. Sentsazio zenestesikoak[2]

E. Soler-en esanean, sentikortasun hori ez dagokie organo bakar baten funtzioei; aitzitik, artikulazioek, giharrek, tendoiek, erraiek eta lokomozio-sistemak jasotzen dituzten inpresioak biltzen ditu. Sentsazio zenestesikoek honako hauek hartzen dituzte:

1. gure gorputz-eskema,
2. egiten ditugun mugimenduak,
3. daukagun posizioa,
4. gorputz-orientazioa eta
5. pisua.

## 2. Zentzumenen sailkapena

Zentzumenak irizpide hauen arabera sailkatzen ikasi behar dute ikasleek:

| **1. irizpidea: kanpoko munduari buruzko informazioa bai / kanpoko munduari buruzko informazioa ez** | |
|---|---|
| Kanpoko munduari buruzko informazioa ematen dute | Subjektiboak dira eta ez dute kanpoko munduaren berri ematen |
| UKIMENA ETA ZENTZUMEN ZENESTESIKOA | IKUSMENA, ENTZUMENA, USAIMENA ETA DASTAMENA |

| **2. irizpidea: urruneko zentzumenak / hurbileko zentzumenak** | |
|---|---|
| Objektuari buruzko urruneko informazioa ematen dute eta tradizionalki "zentzumen noble" deritze | Hurbileko informazioa ematen dute eta tradizionalki "behe-mailako zentzumen" deritze |
| ENTZUMENA ETA IKUSMENA | ZENTZUMEN ZENESTESIKOA, UKIMENA ETA DASTAMENA |
| USAIMENA | |

[2] E. Soler Fiérrez, 1988, 175-191orr.

## 3. Sentsazioen sailkapena

| Sentsazioen taula orokorra | | | |
|---|---|---|---|
| *Ekintza zehatzak* | *Sentsazioak* | *Organoak* | *Zentzumenak* |
| Begiratu, behatu, begiztatu, ikusi | Ikusmenekoak | Begiak | Ikusmena |
| Aditu, entzun | Entzumenekoak | Belarriak | Entzumena |
| Usnatu, usaindu | Usaimenekoak | Sudurra | Usaimena |
| Dastatu, mustatu, probatu | Dastamenekoak | Mihia | Dastamena |
| Beroa edo hotza sentitu | Termikoak | Azala | Ukimen termikoa |
| Berriro pisatu, pisu gehiago edo gutxiago sentitu, pisatu. Laztandu, eragin | Pisuari dagozkionak | Azala | Ukimen barikoa |
| Heldu, eutsi, musukatu, laztandu, eragin, hartu, bultzatu, igurtzi, eskukatu, ukitu, urratu, tiratu, ukitu | Ukimenekoak | Azala | Ukimena |
| Oinez ibili, noraezean ibili, gelditu, mugitu, geratu, korritu, jauzi egin | Zenestesikoak | Lokomozio-sistema | Oreka, posizioa eta mugimendua |
| Distantziak antzeman, zer leku hartzen den jakin, bolumena hauteman | Esterognosikoak | Artikulazioak eta zenbait gihar | Orientazioa |

### *2. Helburuak*

- Zentzumenei dagokien lexikoa gehitzea.
- Lexiko hori zehaztasunez eta aldaera bat baino gehiagorekin erabiltzea sustatzea.
- Hiztegi-mota bat baino gehiago erabiltzea bultzatzea.
- Hizkuntza ez-ahozkoaren komunikazio-aukerak aztertzea.
- Idazkera pentsamendua antolatzeko erabiltzea.
- Hizkuntza idatziaren baliabideak erabiltzeko eta horien aukerak aztertzeko interesa piztea.
- Zentzumenen pertzepzioa metodo egokiarekin lantzea.

### 3. Jardueren segida

#### 1. jarduera: Koloreen hizkuntza

- *Deskribapena:* Paul Gauguin-en *Jaunaren eguna* koadroari begiratuko diogu. Ikasleek arretaz begiratu behar diote, eta agertzen diren koloreez eta formez ohartu. Behaketa horren ondoren, koadroan ageri diren koloreen eta formen izen zehatzak eman beharko dituzte banatuko zaien ilustrazioan.
- *Beharrezko materiala:* Paul Gauguin-en *Jaunaren eguna* koadroaren irudia (jarduera egin bitartean diapositiba erakustea aholkatzen da) eta papereko irudia.

  Gainera, hauek ere izatea aholkatzen dugu:
  - *Euskara/Gaztelania.* Elhuyar hizkuntza zerbitzuak.
  - Euskal hiztegiak: www.jalgi.com
  - *Euskal Hiztegi Modernoa.* Elhuyar hizkuntza zerbitzuak.
  - *Oinarrizko hiztegia.* Elhuyar hizkuntza zerbitzuak.
  - *Sinonimoen kutxa. Sinonimo eta antonimoen hiztegia.* J. Urrujulegi.
  - *Sinonimoen hiztegia.* Uzei.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

#### 2. jarduera: Sentsazioen hizkuntza

- *Deskribapena:* Sentsazioen hizkuntzan sakontzea proposatzen diegu ikasleei, beren hiztegia aberasteko. Horretarako, usaimen-, entzumen-, dastamen- eta ukimen-sentsazioen zerrenda bateko sentsazio bakoitzaren sinonimoak eta antonimoak bilatu beharko dituzte.
- *Beharrezko materiala:* 1. jardueran adierazitako hiztegiak.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.

#### 3. jarduera: Sentsazioak definitzen

- *Deskribapena:* Aurreko jardueran bezala, ikasleek sentsazio-zerrenda bateko sentsazio bakoitza definitu eta sailkatu behar dute, sentsazio-motaren arabera. Sentsazioen sailkapena egingo dugu horrela, ondorengo jardueren oinarria.
- *Beharrezko materiala:* 1. jardueran adierazitako hiztegiak.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.

### *4. jarduera: Bost zentzumenekin irakurtzen*

- *Deskribapena:* Ikasleek aurkezten diren testuak irakurri ondoren, sentsazioren bat transmititzen dieten hitzak edo esamoldeak, taula batean jarri eta, sailkatu eta definitu egin behar dituzte sentsazio-motaren arabera. Gero, guztien taulak bateratu.
- *Beharrezko materiala:* Testu hauek:
  - *Lucasen ariketa*. Unai Elorriaga.
  - *Genesia (praktikan)*. Pako Aristi.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### *5. jarduera: Sentsazioak biltzen*

- *Deskribapena:* Aurreko jardueran osatutako taulak hartuko ditugu oinarri. Irakasleak eremu semantikoa edo isotopia zer den labur-labur azaldu eta gero, lexiko guztia eremu semantiko edo isotopiatan batzeko ahalegina egin behar da, ikasleak jabe daitezen literatur idazleek hitzen bidez sentsazioak nola transmititzen dituzten.
- *Beharrezko materiala:* Aurreko jarduerako testuak.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

### *6. jarduera: Artearen kutsua*

- *Deskribapena:* Proposatutako lanak oinarri hartuta, ikasleek sentsazioren bat transmititzen dieten elementuak jarri behar dituzte taulan, adierazten diren xehetasunak kontuan hartuta. Gero, sentsazio bakoitza ikusmenekoa, entzumenekoa, dastamenekoa, usaimenekoa, ukimenekoa, zenestesikoa, edo hainbat zentzumenetakoa den zehaztu behar dute, eta hitz batekin definitu dagozkion zutabeetan. Garrantzitsua da lanak zer ematen dien aditzera adierazten saiatzea.
- *Beharrezko materiala:*
  - *Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini.
  - *Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènch.
  - *Gosaria*. Claude Oscar Monet.
  - *Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck.
  - *Ibiltaria laino-itsasoari so*. Gaspar David Friedrich.
  - *Lau Urtaroak*. Antonio Vivaldi. Presto: *Tempo impetuoso destate del Concerto 2: Summer*. Iraupena: 2:52. Bibolin-jotzailea: Alexander Pervomaysky. Baroque Festival Orchestra. Gidaria: Alberto Lizzio.

Jarduerak irauten duen bitartean, artelanen diapositibak erakus daitezke.

- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak.

### 7. jarduera: Sinboloak eta emozioak

- *Deskribapena:* Aurreko jarduerako irudiekin jarraituz, ikasleek eremu semantikoen arabera sailkatu behar dituzte definitutako sentsazioak.
- *Beharrezko materiala:* Talde bakoitzari dagokion taula.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 30 minutu.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria eta irakasleentzako erantzunak.

### 8. jarduera: Hitzak, emozioak, sentsazioak

- *Deskribapena:* Jarduera hasteko testu liriko bat, narratibo bat eta dramatiko bat (antzeztua) irakurri behar dira. Testuak irakurri eta ulertu ondoren, ikasleek testuetako sinboloak hauteman eta adierazten den taulako lehen zutabean idatzi behar dituzte hurrenkeran, transmititzen duen ideia, emozioa edo sentzazioa adieraziz.

  Gero, sinbolo bakoitzak zer adierazten duen argitzeko, ikasle guztien ekarpenak baloratu eta bilduko dira. Adostasuna erabatekoa denean, inpresio hori laburbiltzen duen hitz bat idatziko da laukitxoan. Interpretazio oso pertsonal bat balego, onargarria eta ikasleak defenditzeko modukoa, parentesi artean jasoko da.
- *Beharrezko materiala:* Testuak:
  - *Gizona bere bakardadean*. Bernardo Atxaga.
  - *Otoitza*. Joxe Azurmendi.
  - *Metxa*. Koldo Izagirreren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* narrazioan oinarritua.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

### 9. jarduera: Nire esperientzia

- *Deskribapena:* Bloke honetako azken jardueran, ikasleek orain arteko sentsazioen hautematea barneratzea dugu helburu (sentsazioen izenak, motak, eremu semantikoak, sinboloak...). Bizi izan duten esperientziaren batean pentsatzeko proposatuko diegu, baina hautemandako sentsazioetatik abiatuta. Gero, idatziz jarri beharko dute esperientzia hori, sentsazioei izena emanez.
- *Beharrezko materiala:* 9. jarduera.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

# 1. jarduera

## Koloreen hizkuntza

**1** *Askotan begiratu izan diezu koadroei. Oraingoan, koloreei erreparatuko diegu, autoreak bere mezua transmititzeko nola erabili dituen ikusteko. Horretarako, deskribatu ahalik eta zehatzen Paul Gauguin-en koadro honetako irudien eta paisaien koloreak eta formak (Jaunaren eguna izenekoa). Jarri koloreen eta formen izenak koadro lausotuaren gainean bertan.*



## Dokumentazio osagarria

**Gauguin-en koadroaren azalpen laburra**
**(Dolmen Argetalpenak S.L.; *Gauguin*, 1999)**

Parisen zegoen Gauguin 1894an. Porrot ekonomikoa eragin zion erakusketa jarri ondoren –kritika onak egin zizkioten arren–, Parisko literaturaren munduarekin harremanetan hasi zen, eta urte hura ez zen oso emankorra izan. Egin zituen lanak Tahiti-ren oroitzapenak dira, ziurrenik *Noa-Noa* idaztearekin lotura dutenak. *Noa-Noa* eskuliburu-moduko bat da, Polinesian egon zen bitartean egindako mihiseak interpretatzeko egina. Berriro ere emakumeak eta erlijioa dira nagusi konposizioetan –baita *Mata mua* lanean ere–, eta idolo maori bat agertzen da eszenaren erdian. Lan honek, kolore eta gai exotikoei esker, harrera ona izan zuen. Kolore oso biziak ditu, horiak, berdeak, gorriak eta urdinak. Irudiak "cloisonné" estiloarekin landuta daude, hau da, ertzak lerro ilun batez zedarrituta daude. Azken finean, Parisen egon arren, Gauguinek Polinesiaren mira, malenkonia zuen.



# 2. jarduera

## Sentsazioen hizkuntza

**1** *Hainbat sentsazioren zerrenda duzu aurrean. Osatu taula sentsazio horien guztien sinonimoak eta antonimoak adieraziz. Beharrezko ikusten dituzun hiztegi eta kontsultarako lan guztiak erabil ditzakezu.*

| Sentsazioa | Sinonimoak | Antonimoak | Sentsazio-motak |
|---|---|---|---|
| Ustela | Hondatua, galdua... | Ona, freskoa... | Dastamenekoa, usaimenekoa, ukimenekoa eta ikusmenekoa |
| Biguntasuna | | | |
| Danbada | | | |
| Hanpadura | | | |
| Garratza | | | |
| Argitsua | | | |
| Mina | | | |
| Usaintsua | | | |
| Laztana | | | |
| Malgutasuna | | | |
| Zaporetsua | | | |
| Handia | | | |
| Zurbila | | | |
| Pausatua | | | |
| Matea | | | |
| Biskositatea | | | |
| Entzungaitza | | | |

## 3. jarduera

# Sentsazioak definitzen

**1** *Definitu sentsazio hauek eta sailkatu sentsazio-motaren arabera. Beharrezko ikusten dituzun hiztegi eta kontsultarako lan guztiak erabil ditzakezu.*

| Sentsazioa | Definizioa | Sentsazio-mota/k |
|---|---|---|
| Leuntasuna | Leuna denaren nolakotasuna, laztasun edo gogortasunik eza. Leuna: garbia, argia, distiratsua eta argitsua | Ukimenekoa eta ikusmenekoa |
| Zaporea | | |
| Distiragarria | | |
| Erritmoduna | | |
| Distiratu | | |
| Hitsa | | |
| Kakofonia | | |
| Perfumea | | |
| Xuxurlatu | | |
| Matxardez heltzea | | |
| Hirtsutu | | |

# 4. jarduera



## Bost zentzumenekin irakurtzen

**1** *Irakurri arretaz honako testu hauek.*

### 1. testua: **Lucasen ariketa**

Asko kostatzen zait orain sofatik altxatzea. Irentsi egiten nau sofak, zaharra delako eta bigunegia, eta gero asko kostatzen zait handik irtetea. Baina Marcos egoten da normalean nire ondoan eta lehenengo bera altxatzen da eta gero niri laguntzen dit. Eta gero esaten du goseak hilik egon behar duela sofak, ni bezalako gauza mingots bat irensteko.

Nik inbidiaz begiratzen diot Marcosi (ia gehienari begiratzen diot orain inbidiaz: Alexei Nemovi ere bai, eta eskaladoreei, edo eskaileretatik jausten diren umeei). Eta imajinatzen hasten naiz orduan, Jainkoak berrogeita hamar urte kenduz gero, bizikleta hartu eta Irlandara joango nintzela, hango belar koltxoi-modukoan tatarrez ibiltzera, edo Pragara edo Belgradora edo albistegietan agertzen den edozein hiritara, trafikoa apalagoa dirudielako. Eta amets horretan Rosa bizirik egongo litzateke, eta gerritik helduko nion, ito arte dantzatzeko, tangoak eta valsak. Arnasak ordubeterako-edo emango zigun. Gelara joango ginen ondoren, isilik, eta Rosak ez zidan ezetz esango, hainbeste urte hilda egon eta gero. Dantzaldiaren izerdiak nahastuko genituen orduan eta izerdi apur bat gehiago egingo genuen beharbada.

Matiasek asko maite zituen neskak, denak. Ez zeukan zorterik, ordea: kanpotar batekin joan zitzaion Marga. Postaletako nesken modukoa zen Marga; denok maite genuen Marga apur bat, baina Matiasekin paseatzen zuen, Matiasek usaintzen zizkion perfumeak hurbilen. Holandarrarekin joango zen arte. Oin txiki-txikiak zituen holandarrak. Ezkondu gabe hil zen Matias, grinaz beteta. Tomas bai. Tomas ezkondu egin zen. Baina txikle bat jaten den moduan ezkondu zen. Eta oraindik ere ezkonduta egongo da, hil ez bada.

Bero ustela egin du gaur. Larri egon naiz, baina gaztetan baino hobeto jasaten dudala uste dut. Ohitu gara nonbait: dagoeneko ez gara bikingoak bezalakoak. Batez ere bikingoek ez zituztelako galtzak bustitzen. Gaur busti ditut nik. Ez diot Mariari ezer esan; izan ere, likidoa hoztu denean ondo gustura egon naiz. Maria kalera atera denean aldatu ditut galtzontziloak. Uste dut, baina, txarto jantzi ditudala (hanka biak zulo beretik-edo), hankartean presio antinaturala sentitzen dudalako.

Ez zait purea gustatzen.

Unai Elorriaga, *Sprako tranbia*, 52-53 orr.

## 2. testua: **Genesia (Praktikan)**

Izar bat erori zen zerutik
gorosti baten kontra erdibituz.
Zati bakoitzak, tximeleta bilakaturik,
hegadari ekin zion,
eta haizea kilimatu zuen.
Haizeak esan zion tximeleta pareari:
“Bilaka zaitezte nire ezpain,
maite dudan mendia
zuen musuez laztan dezadan”
Tximeletak, ezpain bilakaturik,
mendia musukatzera jaitsi ziren,
baina katuak ehizatu eta begietako nini
bihurtu zituen, gauaz hobeto ikusteko.
Hazi eta hazi, katua tigre egin zen.
Behin gizon bat ikusi zuen oihanean,
belaunen gainean eskua mugitzen:
poeta bat zen.
Tigrea gehiagotan ikusia zeukan,
eta begirik ederrenak
iruditu zitzaizkion tigrearenak;
lilurak erasanda,
bi txingar haientzat izen bila hasi zen,
sukarretan deskribapen poetikoak idatziz,
hitz multzo haiek noizbait
hitz berri bat sortuko zutelakoan.
Tigreak hori ez zekien
eta jan egin zuen poeta.
Odol putzua lehortua zen poetaren semeak
aitaren pildak aurkitu zituenerako;
koadernoa jaso zuen oroigarritzat,
baina deskribapenen lilurak erasanda
ageri nahi zuten hura bilatzera abiatu zen.
Egun batean tigrea urrunera ikusi
eta tira egin zion.
Gezi pozointsuek tigrea hil zuten,
baina hurbildu zenerako
koloreek ihes egina zuten bere begietatik.
Gero emakume bat ezagutu zuen,
ninietan zafiro kolorea itsatsirik,
eta koadernoko hitz uholdearen iturburua
zafiroa zela pentsatuz
bere maitasuna agertu zion;
emakumeak erdeinuz eratzun zuena.
Gauerdian, negarrez, gailur batera igo zen,
eta begiak zerura jasota,
ilunaren bisaia euren argiarekin
edertzen zuten izarrak ikustean,
bere bilaketaren abiapuntua
handik eroritako zerbait izan behar zuela
ulertu zuen. Eta izar deitu zion
malkoak zilarreztatzen zizkion argiari:
Zeruko AR-kuan
izana berezkoa
berezia
berea duten
IZA-ki bizia.

Pako Aristi, *Oherako hitzak*, 11-12 orr.

**2** *Behin testuak arretaz irakurri eta gero, jarri sentsazioren bat transmititzen dizuten hitzak eta esamoldeak taulan, eta sailkatu eta definitu sentsazio-mota.*

| Testua | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Testuko elementua | Sentsazioak | | | | | | | | |
| | Ikusmenekoak | Entzumenekoak | Usaimenekoak | Dastamenekoak | Termikoak | Pisuari dagozkionak | Ukimenekoak | Zenestesikoak | Esterognosikoak |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

**3** *Talde txikitan, elkartu guztien tauletan jasotakoak. Izendatu taldearen ordezkaria ekarpenak bildu eta gainerako ikaskideei azal diezazkien.*

# 5. jarduera

## Sentsazioak biltzen

1

*Bildu testu bakoitzeko hitzak eremu semantiko edo isotopiatan. Emaiezu erabat biltzen dituen izen bat. Literatur autoreek hitzen bitartez sentsazioak transmititzen dituztela egiaztatuko duzu.*

| Testua | |
|---|---|
| **Eremu semantikoa edo isotopia** | **Multzokatutako hitzak** |
| | |
| | |

## Dokumentazio osagarria

*Jarduera errazteko, hainbat kontzeptu bildu ditugu irakasleak ikasleei azal diezazkien jardueraren oinarri gisa:*

- **Eremu lexikoa**. Th. Lewandowski (1986:46a): Esanahiak lotzen duen hitz-multzo ordenatua, adibidez, *ibili*, *paseatu*, *zamalkatu*.
- **Eremu semantiko**. Th. Lewandowski (1986:46b eta 47a): Hitzaldietan eguneratzean, unitate linguistikoen (lexemak) harreman semantikoen multzoa.
- **Isotopia semantikoa**. Th. Lewandowski (1986:196 a eta b): Unitate semantikoen arteko bateragarritasuna, nortasun, hurbiltasun edo baliokidetasun semantikoaren menpe dagoena; bereizgarri semantikoen agerpen errepikaria testuan, sema deiturikoen errepikatzea.

Baliteke zailtasunak izatea eremu semantikoa eta isotopia semantikoa bereizteko. Baina ez dira gauza bera. Eremu semantikoan lexema osoaren esanahiak lotzen dituen hitzak biltzen dira, hau da, sema gehienek (esate baterako, musika-instrumentuak); isotopian, ordea, gutxienez sema baten kointzidentziak batzen ditu. Horregatik, eremu semantikoa antzematen errazagoa da. Isotopiak, A. J. Greimas-en hitzetan (1987), hitzaldiaren koherentzia ziurtatzen du, antzeko esanahia edo bateragarria duten elementuak errepikatzeari esker. Beraz, isotopia kategoria bereko esanahia duten elementuak elkartzearen emaitza da. Azken batean, isotopia testu bereko hainbat lexematan dagoen sema batek eragiten du. Ondorioz, testu baten koherentzia ulertzea gordetzen dituen isotopiak antzematea da.

Hona, adibide gisa, P. Süskind-en (1997) ***El perfume*** (*Das Parfum/Perfumea*) liburuko pasarte bat. Pasarte honetan isotopia semantikoa dagoela esan liteke, hitz eta esamolde gehienek sema bera baitute: “hedor edo fetidez”.

*“Sasoi hartan, bazen hirietan halako kirats izugarri bat, gaur egungo gizon-emakumeek nekez jasango luketena. Simaur-usaina zen nagusi kaleetan; barruko patioetan, txiza-usaina; eskailera-begietan, zur ustelduarena eta arratoi-gorotzena; sukaldeetan, aza ustelduaren eta aker-koipearen usaina; leihorik gabeko geletan lizundutako hautsaren usaina zen nagusi; logeletan, izara koipetsuena, edredoi hezeena eta txizontzien kirats melekarena. Tximiniei sufre-usaina zerien; zurrategiei, lixiba kaustikoena; ganadu-hiltegiei, odol gatzatuarena. Izerdi eta arropa zikin usaina zerien gizon-emakumeei; haien ahoetan, berriz, infektatutako hortzen kiratsa sentitzen zen, baita tipula-hatsa ere; jende helduaren gorputzek gazta eta esne minduaren usaina izaten zuten, eta tumore gaiztoena”.*

# 6. jarduera

## Artearen kutsua

**1**

*Jarraian, bost artelan eta musika-lan bat aurkezten dira. Arretaz aztertuko ditugu, baina ez begiekin soilik, baita gainerako zentzumenekin ere. Gehienetan dastamenari, usaimenari edo ukimenari ez diegu arteaz edo musikaz ezer esaten uzten, baina asko dute esateko. Erreparatu arretaz lan hauei eta sartu taulan sentsazioren bat transmititzen duten elementuak. Sailkatu eta definitu zer sentsaziori dagokion.*

1. taldea: ***Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini**



| 1. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Dafne-ren adatsa | Apolo-ren eskua |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |



## 2. taldea: *Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènech



| 2. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Desegiten diren ordulariak | Inurriek inbaditutako ordulari gorria |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

## 3. taldea: *Gosaria*. Claude Oscar Monet



| 3. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Loreak | Gosari-hondarrak mahaian |
| --- | --- | --- |
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

## 4. taldea: ***Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck**



| 4. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Senar-emazteen eskuak | Arropak |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

## 5. taldea: ***Ibiltaria laino-itsasoari so*****. Gaspar David Friedrich**



| 5. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Lainoa | Gizona |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

6. taldea: *Lau urtaroak*. **Antonio Vivaldi. Presto: *Tempo impetuoso d'estate del Concerto 2: Summer.***
**Iraupena: 2:52. Bibolin-jotzailea: Alexander Pervomaysky.**
**Baroque Festival Orchestra. Gidaria: Alberto Lizzio.**

| Musika-lanaren xehetasuna / Sentsazioak | Ekaitza 0" – 1'8" | Euri-errekastoak 1'8" – 1'34" | Eguzkia atera da une batez 1'34" – 1'50" | Eguraldi nahasia dago 1'50" – 2'10" | Eguraldia egonkortu egin da eta eguzkia da nagusi 2'10" – 2'50" |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | | |
| **Termikoak** | | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | | |



| *Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini | | |
|---|---|---|
| 1. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Dafne-ren adatsa | Apolo-ren eskua |
| **Ikusmenekoak** | Adatsaren forma. Hosto-sorta bihurtzen da. Zuritasuna. | Zuritasuna. |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | Beroa Dafneren gorputzean. |
| **Pisuari dagozkionak** | Pisu arina, grabitatearen kontra. | Heltzea, eustea. |
| **Ukimenekoak** | Leuntasuna. | Laztantzea. Sendotasun leuna. |
| **Zenestesikoak** | Transformazio-mugimendua. | Mugimendua geratzeko ahalegina. |
| **Esterognosikoak** | Bolumen handiagoa sortzea: zuhaitza. | |

| *Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènech | | |
|---|---|---|
| 2. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Desegiten diren ordulariak | Inurriek inbaditutako ordulari gorria |
| **Ikusmenekoak** | Urtu-itxura, forma irregularra. | Inurrien kolore gorri-beltza. |
| **Entzumenekoak** | Ordularien soinua. | Ordulariaren eta intsektuen soinua. |
| **Usaimenekoak** | | Usteltasuna. |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | Ordulariak urtzen dituen beroa. | Beroa. |
| **Pisuari dagozkionak** | Biguntasuna. | Inurriek igarotzen duten biguntasuna. |
| **Ukimenekoak** | Ordularien materiaren jariakortasuna. | |
| **Zenestesikoak** | Desegiten den materiaren mugimendu geldoa. | Inurrien mugimendu frenetikoa. |
| **Esterognosikoak** | | Inurriek inbaditutako ordularia. |

| *Gosaria*. Claude Oscar Monet | | |
|---|---|---|
| 3. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Loreak | Gosari-hondarrak mahaian |
| **Ikusmenekoak** | Askotariko koloreak: gorriaren nagusitasuna. | Pitxar garden eta distiratsua. Jakien koloreak eta formak. |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | Loreen usain gozoa. | Ardoaren, frutaren, ogiaren... usaina. |
| **Dastamenekoak** | | Elikagaien zaporea. |
| **Termikoak** | Udaberriko beroa. | Ardoaren freskura. Ogiaren beroa... |
| **Pisuari dagozkionak** | | Ogiaren, frutaren, pitxarraren... pisu ezberdina. |
| **Ukimenekoak** | Petaloen leuntasuna. Arantzaren bat edo beste agian. | Frutaren leuntasuna, ogiaren zimurtasuna... |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | Lore-sortak edo -multzoak ikusten dira. | |

| *Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck | | |
|---|---|---|
| 4. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Senar-emazteen eskuak | Arropak |
| **Ikusmenekoak** | Zuritasuna eta dotorezia. | Kolore motelak eta ehunen marrazkia. |
| **Entzumenekoak** | | Elkar ukitzean egiten duten soinua imajina dezakegu. |
| **Usaimenekoak** | Dotorezia horrek usain ona dutela adierazten du ziurrenik. | Usaina imajina dezakegu. |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | Gurutzatutako eskuen beroa. | Bero-sentsazioa transmititzen dute. |
| **Pisuari dagozkionak** | Emakumearen eskuen arintasuna. | Ehunen pisua. |
| **Ukimenekoak** | Azalaren leuntasuna. | Ehundura ezberdina: leuntasuna... |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | Emakumearen eskuak gorputzaren bolumena adierazten du. | |

| ***Ibiltaria laino-itsasoari so*. Gaspar David Friedrich** | | |
|---|---|---|
| 5. artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Lainoa | Gizona |
| **Ikusmenekoak** | Forma eta koloreen sentsazio lausoa. | Paisaiaren kolore eta formak. |
| **Entzumenekoak** | | Haizearen eta naturaren soinuak. |
| **Usaimenekoak** | Hezetasun-usaina agian. | Naturaren usainak. |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | Hotza. | Hotza aurpegian. |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | Hezetasuna. | Hezetasuna. Haizea ilean eta aurpegian. |
| **Zenestesikoak** | | Haizeak mugitzen duen lainoa. |
| **Esterognosikoak** | Bolumenak nahasita eta lausotuta sentitzeko sentsazioa. | Bolumen lausotuak. Distantziak gailurretik. |

| ***Lau urtaroak*. Antonio Vivaldi** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Musika-lanaren xehetasuna / Sentsazioak | Ekaitza 0" – 1'8" | Euri-errekastoak 1'8" – 1'34" | Eguzkia atera da une batez 1'34" – 1'50" | Eguraldi nahasia dago 1'50" – 2'10" | Eguraldia egonkortu egin da eta eguzkia da nagusi 2'10" – 2'50" |
| **Ikusmenekoak** | Hodei beltzak. Iluntasuna. Tximisten deskarga elektrikoak. | Gardentasuna. Kolorerik gabeko ura. | Argitasuna. | Hodeien iluntasunaren eta eguzkiaren argitasunaren arteko kontrastea. | Argitasun biziarekin amaitu da dena. |
| **Entzumenekoak** | Trumoiak eta euriaren hotsa. | Uraren hotsa. | | Trumoiak urrunean. | |
| **Usaimenekoak** | Lur-usaina ekaitzarekin. | Belarraren eta landaretzaren usaina. | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | | |
| **Termikoak** | Freskura. | Freskura. | Bero gehiago. | Tenperatura ezegonkorra eta aldakorra. | Beroa. |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | | |
| **Ukimenekoak** | Hezetasuna. | Hezetasuna. | Lehortasuna. | Hezetasuna. | Lehortasuna. |
| **Zenestesikoak** | Hodeien mugimendua. | Euri-errekastoak. | | Hodeien mugimendua. | |
| **Esterognosikoak** | Hodeien distantzia eta bolumena. | Gardentasuna. Kolorerik gabeko ura. | Hodeien eta eguzkiaren distantzia eta bolumena. | Hodeien eta eguzkiaren distantzia eta bolumena. | Eguzkiaren distantzia eta bolumena. |

# 7. jarduera



## Sinboloak eta emozioak

**1**

*Oraingoan, aurreko jarduerako lan berberak kontuan hartuta, lan horien eremu semantikoei erreparatuko diegu. Proposatzen dizkizuegun eremuetatik abiatuta, bilatu lan horietako zein elementu dagokien eremu horiei. Literatur autoreek irudien bitartez sentsazioak transmititzen dituztela egiaztatuko duzue.*

### 1. taldea: ***Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| "Zuhaitz bilakatutako gorputz-zatiak" | |
| "Leuntasuna - fintasuna" | |
| "Beldurra - bortxa" | |

### 2. taldea: ***Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènech**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| "Denboraren joana, hondamena eta heriotza" | |

### 3. taldea: ***Gosaria*. Claude Oscar Monet**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Lorategia” | |

### 4. taldea: ***Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Garaiko barnealde burgesa” | |

### 5. taldea: ***Ibiltaria laino-itsasoari so*. Gaspar David Friedrich**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Naturako elementuak” | |

### 6. taldea: ***Lau Urtaroak*. Antonio Vivaldi**

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Uda” | |

# Irakasleentzako erantzunak

## 1. taldea: *Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Zuhaitz bilakatutako gorputz-zatiak” | Dafneren oinak eta zangoak, adatsa. |
| “Leuntasuna - fintasuna” | Dafnek goian duen eskua, Apoloren arropak. |
| “Beldurra - bortxa” | Dafneri eusten dion Apoloren eskua, Dafneren beldur-aurpegia, jazarpen-ihesaren mugimendua. |

## 2. taldea: *Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènech

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Denboraren joana, hondamena eta heriotza” | Desegindako bi ordulari, ordulari desegina zuhaitzetik zintzilik, inurriek inbaditutako ordularia, betazal itxia. |

## 3. taldea: *Gosaria*. Claude Oscar Monet

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| “Lorategia” | Eguzkia, itzalak, loreak, zuhaitzak, lore-ontzia, lorategiko mahaia... |

## 4. taldea: *Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| "Garaiko barnealde burgesa" | Lanpara, ohea, ispilua, leihoa, mahaitxoa, besaulkia, karlin-txakurra, eskalapoiak... |

## 5. taldea: *Ibiltaria laino-itsasoari so*. Gaspar David Friedrich

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| "Naturako elementuak" | Mendiak, paisaia, harkaitzak, lainoa, zerua, hodeiak, haizea... |

## 6. taldea: *Lau Urtaroak*. Antonio Vivaldi

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| "Uda" | Ekaitza, uharrak eta errekastoak, eguzkia, hodeiak, trumoiak... |

# Dokumentazio osagarria

## Artelanaren iruzkina: *Apolo eta Dafne*. Gian Lorenzo Bernini

Apolo eta Dafne (1622-1624), marmolezko irudi-multzoa. Galería Borghese.

Migel Anjelena bezala, Bernininiren (Napoli, 1598-1680) estiloa ere hainbat iturritatik hornitu zen: Grezia eta Erromako klasizismoa, Caravaggioren naturalismoa, Guido Reniren gorpuzkera-tratamendua... Ikuslea obrara hurbiltzea, hura ekintzaren partaide bihurtzea izan zen artista haren berrikuntza aipagarriena. Hautsi egin zituen, bada, artelanaren ordura arteko mugak. Horregatik, Barrokoaren sortzaileetakotzat jotzen dute adituek. Santa Teresaren *Estasia*, batetik, eta Urbano VIII.aren eta Alejandro VII.aren hilobiak (Vatikanoan), bestetik, dira Bernniniren obra hoberenak. Luis XIV.arentzat ere lan egin zuen; besteak beste, errege haren busto bikaina egin zuen. Aldiz, ez zuen parterik hartu Louvre museoaren diseinu-aldaketan, hasieran hala aurreikusita zegoen arren. *(El triunfo de la imaginación. Arte barroc*o. CD-ROMa Ediciones Dolmen S.L.; 2001.

## Artelanaren iruzkina: *Oroimenaren iraunkortasuna*. Salvador Dalí Domènech

Oroimenaren iraunkortasuna. Salvador Dalí Domènech.

Parisko Pierre Colle Galerian ikusgai jarri zuenetik, pintura hori dugu egilearen erreproduzituenetakoa, eta horrekintxe lotzen dute artezale gehienek, baita arte garaikidearen helburuez edo jatorriaz ezer ez dakitenek ere. Biguntasunaz eta gogortasunaz Dalík zuen teoriak erlojuen egituretan aurkitu zuen adierazpide gorena, batez ere jaten dugun eta jaten gaituen denboraren adierazle gisara. XX. mendeko gizakia larritzen zuen gai bati buruzkoa da obra: denbora eta espazioaren arteko lotura. Mundu osoa asaldatu eta hainbesteko eragina izan zuten Einsteinen teorien berri izan ondoren (erlatibitatearen teoria eta haren ondorioak), denboraren iragaitea eta espazioa izan ziren Dalíren obrako obsesio nagusiak. Bestalde, masturbatzaile handiaren irudiaren goren maila ere obra horrekin jo zuen. Izugarrizko eragina izan zuen obra hark ikusleengan. Erlojuak ez du balio, ez da materia, ez du funtzionatzen; hortaz, hor dugu egitura bigun hori masturbatzaile handiaren buru gainean, masa likatsua bailitzen, begi bat, betilea eta sudur handi bat dituela, grinaren, bizitzeko gogoaren eta arrazionaltasunik ezaren adierazgarri gisara. Ezerk kontrolatzen ez dituen ametsen garaipena da, desirak errealitatea gainditzearen ereserkia da. Azken batean, gizakion betiko mitoak argitaragabeko irudien bidez plazaratzeko Salvador Dalík zuen gaitasuna erakusten digu obrak. Beste aditu batzuek diote, berriz, honako hau adierazten duela: desirak menpean hartzen duela denboraren obsesioa (in *Dalí.* CD-ROMa Ediciones Dolmen S.L.; 2000.

## Artelanaren iruzkina: *Gosaria*. Claude Oscar Monet

Urtea: 1873. Orsay Museoa (Paris). Mihise gaineko olio-pintura: 160 x 201 cm.

Pintore inpresionistek asko maite zituzten eguneroko bizimoduari loturiko gaiak. Obra honetan, Monetek (1840-1926) Argenteuileko bere etxeko lorategiaren irudi bikaina eskaintzen digu. Hor ageri da pintorearen semea, Jean, jolasean, lehen planoan; atzealdean, berriz, Camille ikusten da, Clauderen neska-laguna. Bazkari-mahaia jasotzeko dago artean, intimitate-giroa sendotzearren edo. Ilunpean ageri da lehen planoa. Delacroixek bezala, malba-tonuak erabiltzen zituen Monetek ere. Eguzkiak argitutako bidezidorra dugu irudiaren une nagusia. Atzealde iluna, berriz, loreen tonu gorriek alaitzen dute. Pintzelkadak arinak dira: koloretako koma eta puntu txikiak erabili ditu pintoreak, eta edertasun handiko obra utzi digu (in Monet. CD-ROMa Ediciones Dolmen S.L.; 2000.

## Artelanaren iruzkina: *Arnolfini senar-emazteak*. Jan Van Eyck

Urtea: 1434. National Gallery Museoa (Londres). Ohol gaineko olio-pintura: 81,9 x 59,9 cm.

Enigmaz eta edertasunez betetako koadroa da *Arnolfini senar-emazteak*. Italiako Luca hiriko merkatari aberatsen familia bateko (Arnolfinitarrak) kide baten ezkontza irudikatzen du koadroak, katalogoek diotenez. Lucako eta Italiako beste zenbait hiritako merkatari ugari zegoen Flandesen sasoi hartan. Arnolfini familiako bi anaia hauetako bat izango da ezkondu eta koadroan ageri dena: Giovanni edo Michele. Gehienek uste dute Giovanni dela koadrokoa, eta Giovanna Cenamirekin ezkondu zela. Ez dator teoria horrekin bat, ordea, senarrak emazteari eskutik heltzean egiten duen keinua: emaztea baino goragoko maila sozialekoa zela adierazten zuen keinu hark. Ezin, bada, Giovanna izan, senarra baino goragoko mailakoa baitzen. Horregatik, aditu batzuek uste dute Michele dela koadroko anaia, eta Elizabeth izeneko emakume batekin ezkondu zela. Emakumea zein familiatakoa zen ez omen da jakiterik izan. Senarraren keinuak, beraz, honako hau adierazten omen zuen: emaztea babestu eta goragoko maila sozial batera sartu nahi zuela. Hona hemen beste enigma bat: koadroaren atzealdeko paretan Van Eyckek egindako inskripzioa. Elkarri lotutako karaktere gotiko ezin ederragoetan dago egina idazkuna. Inskripzioak ez dio koadroa Van Eyckek egin zuenik, baizik eta "Jan van Eyck hemen egon zen". Harrigarria adierazpena, baina baleukake esplikaziorik: Van Eyck Arnolfinitarren laguna zen eta, seguru aski, ezkontzako lekuko edo aitabitxi izan zen. Hipotesi horrekin bat datoz paretako ispiluko irudiak ere. Ezkontza hartako bi gonbidatu erakusten dizkigu ispiluak. Haietako batek (urdinez jantzitakoak) pintorea dirudi. Van Eycken zehaztasunari esker, ispiluan islatutako jendea ez ezik haren markoko apaingarriak ere bereizten dira: Jesukristoren Pasio eta heriotzaren hamar eszena. Beste hainbat gai sinboliko ere baditu koadroak, gelan sakabanatutako objektu arrunt gisara margotuak: ezkontideen oinetara dagoen txakurtxoak senar-emazteen elkarrenganako leialtasuna adierazten du; kandela bakarra piztuta daukan lanparak, berriz, ezkontzaren lotura, baita ohearen eskutokiko Santa Margaritaren eskulturatxoak ere. Ohe horretatik zintzilik dagoen sortak, bestalde, emankortasuna adierazten du. Koadroko elementu ia guztiek dute lotura sinbolikoa eszenarekin; Van Eyckek, ordea,

gelan kasualitatez banatutako gauza arrunt gisara margotu zituen. Emazteari dagokionez, aipatzekoa da orduko emakumeen moda: kopetakoa ilea erabat moztu eta adardun formako oihal batekin estaltzen zuten burua. Halaxe ageri zaigu Margarita van Eyck ere. Soinekoak, berriz, deformatu egiten zuen emakumearen anatomia eta haurdun zegoela pentsarazten. Modan zegoen garai hartan soineko-estilo hori. Nahita egindako deformazio estetikoa zen, jakina. Konparatu besterik ez dago koadro horretako emakumea *Ganteko Poliptikoa* koadroko Evarekin: estu lotutako gerruntze batek emakumearen bularra hertsatu eta igo egiten zuen; ondorioz, konkortu egiten zen sabel eta aldaka aldea (El Bosco eta Van Eyck. CD-ROMa Ediciones Dolmen S.L.; 2000.

**Artelanaren iruzkina: *Ibiltaria laino-itsasoari so*. Gaspar David Friedrich**

Urtea: 1818. Hamburger Kunsthalle Museoa. Mihise gaineko olio-pintura: 94,8 x 74,8 cm.

Kondairak dioenez (inoiz egiaztatu ez bada ere), von den Brincken zuen deitura koadroko gizonak, eta haren omenez margotu omen zuen obra hori Freidrichek (Greifswald, 1774-Dresde, 1840). Hortaz, oroitzapenezko koadroa da seguru aski, *Johann Emmanuel Bremerren oroitzapenezko koadroa*-ren (1817) tankerakoa. Saxoniako Suitza deritzon eskualdeko hainbat paisaia ageri dira atzealdean. Schandau inguruko eskualde menditsuari deitzen zaio horrela, Elb-sandsteingebirge-ri alegia: ezkerretara, Rosenberg mendia; eskuinera, Zirkelstein. Jatorrizko zirriborro gehienak 1808an eta 1813an egin zituen Friedrichek. Bigarren egonaldian errefuxiatu gisara joan zen pintorea eskualde hartara, Napoleonen armadak Dresde menpean hartu baitzuen. Ohi zuen legez, errealitatearen eta sinboloaren arteko eremuan zebilen orduan ere Friedrich. Elkarren segidako plano paraleloetan egituratuta dago obra, batetik besterako trantsiziorik gabe, bitarteko planorik ez baitago. Lainoak estaltzen du zeruertzerantz begiak egiten duen bide osoa. Mantu mistiko moduko bat zen lainoa gure pintorearentzat. Sarritan erabili zuen metodo hori Friedrichek; besteak beste, *Goizeko lainoa mendian* koadroan. Lehen planoan (tonu iluna ematen zion beti Friedrichek; zeruertzari, aldiz, argitasun bizia) ageri zaigu ibiltaria, ohiz kanpoko tamaina handikoa, triangelu-formako harrizko mendi-gailur batean. Bizkarra emanez ageri da, Pomeraniako gure maisuaren pertsonaia gehienak bezala. Interpretazio ugari egin izan dira jendea irudikatzeko ez-ohiko era horretaz. Alienazioa adierazteko modu bat da, batzuen iritziz, gizakia naturarekin adiskidetzeko ezintasunaren erakusgarri, testuinguru historiko jakin batean betiere. Beste batzuek diote, aldiz, bizkarra emanez dauden pertsonaia horiek badutela halako 'posizio transzendental' bat, naturaren testuinguru fisikotik kanpora uzten dituena. Kanpoko errealitatea –diote– idealarekin, barrukoarekin nahasten da. Beraz, Alemaniako idazle eta filosofo erromantikoen (Novalis, bereziki) bidetik jo zuen Friedrichek ere, baita zenbait artistarenetik ere (Runge). Modu metafisikoan adierazten zuten artista horiek paisaiarekiko sentipena: itsasoari begira zeudela, adibidez, ezmaterialak sentitzen ziren. Hala, bat egiten dute Jainkoagan naturak eta espiri-

tuak Friedrichen atzetiko irudi horretan. Absolutuaren proiekzioa bailitzen ageri zaigu gizona koadroan, paisaiari uztartua. Baina obraren esanahi alegoriko orokorra ikuspegi erlijiosotik aztertu izan da: Fedeak (arrokak) igotzen gaitu zeru-eremuetara, Lurreko akatsen gainetik (lainoa) hegaldatuz (Friedrich. CD-ROMa Ediciones Dolmen S.L.; 2000.

Alemaniako iparraldeko natura, Dresde inguruko landa-lurrak, iparraldeko kosta eta Saxoniako Suitza behatu eta marraztu zituen Friedrichek bizitza osoan. Gero, estudioan egiten zituen koadroak. Saxoniako Suitza deritzon horretako paisaia bat ageri da, hain justu, koadro honetan. Natura bere horretan irudikatzea ez zen, ordea, artistaren helburu bakarra; haratagoko esanahia ere ematen zion margotzeari. Sinboloen (atzetiko irudiak, hodeiak, lainoa, zeruertza...), egituraren osaeraren eta koloreen bidez adierazten zuen haraindiko esanahi hori. Bizkarra emanda dagoen gizona da naturaren esperientzia erromantikoaren paradigma: bakarrik, gailurrean..., atxiki ezin duen une bati begira dago. Ikusten duena, berriz, aldi berean da zera arrotza eta bere ‘ni’aren proiekzioa (***Historia Universal del Arte. El museo ideal.*** CD-ROMa Ediciones Mondadori – Círculo de Lectores; 1998.

**Musika-lanaren iruzkina: *Lau Urtaroak*. Antonio Vivaldi**

Presto: Tempo impetuoso d’estate del Concerto 2: Summer.
Iraupena: 2:52. Bibolin-jotzailea: Alexander Pervomaysky. Baroque Festival Orchestra.
Gidaria: Alberto Lizzio.

Antonio Lucio Vivaldi (Venezia, 1678-Viena, 1741). Konpositore italiarra. 1703an egin zen apaiz. Ilearen kolorea zela eta, ‘Apaiz gorria’ deitzen zioten. Berehala utzi zion, ordea, meza emateari, osasun-arazoak zirela medio. Biolin-jole bikaina zen, eta Europa osoan eman zituen kontzertuak. Venezian, neskentzako kontserbatorio ospetsu bateko zuzendari musikala izan zen. Maiz bidaiatzen zuen, eta opera-enpresaburu izan zen Europan birak egiten zebilela. Italiako barrokoaren gailurtzat jotzen da Vivaldiren obra (oso ugaria, bestalde). Hari-instrumentuei dagokienez, Bachen eredu izan zen. Vivaldiren obra ugari transkribatu zituen musikari alemanak. Laurehun kontzertutik gora konposatu zituen (Vivaldik finkatu zituen musika-mota horren oinarriak), hari-instrumentuetarako gehienak, berrogeiren bat oboerako eta bakan batzuk beste instrumentu batzuetarako eginak badira ere. Bereziki aipatzekoak dira *Fantasia harmonikoa* (1712), *Nabarmenkeria* (1712), *Harmoniaren eta sormenaren funtsa* (1725). Azken horren baitakoak dira *Lau urtaroak*, 23 sinfonia, 75 ganbera-sonata, berrogei bat opera eta musika erlijiosoa (*Gloria, Judith triumphans, Laudate pueri*) (in ***Enciclopedia de la cultur***a, 935 or.).

## 8. jarduera

# Hitzak, emozioak, sentsazioak



**1** *Irakurri arretaz hiru testu hauek.*

### 1. Testu lirikoa. **Otoitza**

Zu bezain ahaltsu banintza ni,
Jauna, ez litzake munduan
tristurarik izango, ez litzake
ume itsurik jaioko,
ez litzake maitasuna nekatuko,
ez litzake ilunbea triste izango
eta tristeago argia,
eta ni Zu bezain ona banintza
onago izango nintzateke Zu baino;
Jauna, ez nuen andre konkordunik egingo,
ta ez umerik hiltzen utziko
ta ez herririk agonian
ta ez begien argirik zahartzen
ta ez amarik haur hila bihotzaren gainean duela
bakarrik abandonatuko.

Eta etzuen bere buruaren gainean neska batek
nire anaiagatik alferrik negar egingo.

Etzan mundu hau holakoa izango, ez
eta guk dakigu hitz honek esaten ez duen
zer esango lukeen gure hitza zure justizia balitz.

Izango baitzen nire hitza zurea ez bezalakoa,
eta etzuen kreatura galdu baten oihartzun banala
urik ez daukan desertuan sortuko,
ta ez nuen holakoa egingo hitza
gizonok gurutzera eramanaren kulpa izatekoa.

Zure begiak balira nireok, Jauna,
harri batekin, aizto batekin, lotsa batekin
itsutu nahiko nuke beharko nire begiratu zurea.
Baina ezin, baina inola ezin.

Aingeru bat egin baninduzu behintzat
nire hegoak norbaiti emanda hiltzeko...
Baina gizon. Eta nork nahi du gaur
gizon bat ezertarako!

Joxe Azurmendi,
*XX. mendeko poesia kaierak,* 42-43 orr.

**SARRERA**

*Eskenategian METXAren gela urdina irudikatzeko balio duten elementu urri batzuk. Musikaren lehen konpasak entzuten dira. Musikoarekin batera taulara AKTORE GUZTIAK datoz. Publikoari zuzentzen dira. Textoa esatearekin batera Agirretarren herriko plaza eta inguruak irudikatzen duen maketa txikia eraikiz doaz.*

Agirretarren bandera/ hartu dute hankapera
Gure ametsen kondarrak doaz/ errekan behera.
Ikusirikan galera/ askok egin du atzera
Ezin omen da poza ekarri/ minduen aldera.

Agirretarrak zer garen/ esango dugu bigarren
Zutik irauten saiatzen gara/ erori arren.
Ez bagabiltza azkarren/ ez da gaudelako herren
Munduko zoro guztiak gara/ lagunak elkarren.

BAT: Agirretarren herria ez duzue mapetan aurkituko.

BI: Agirretarren herria ez baitago inon.

BEÑAT: Agirretarren herria edonon dago.

LAU: Agirretartasuna ez du sorlekuak ematen, baizik eta erorikoen minak.

BOST: Honek besteren sagastian sartuta belauna urratu zuen, adarrak behera egin zuelako. Horra agirretar bat.

SEI: Sokamuturrean orkatila hautsi zuen beste honek. Agirretarra izateko modu bat.

ZAZPI: Horrek mendian hartu zuen min, gauez zailagoa baita amildegiak ikustea. Ezin uka agirretarra dela.

BAT: Beti erorian ibiltzen diren gizajoak dituzue agirretarrak.

BI: Eta jendeak nahiago duenez minik ez hartu, gero eta bakanagoak dira agirretar petoak.

HIRU: Horregatik, agirretar bik elkar topatzen dutenean, tabernara doaz bizkarretik helduta, ez diote elkarri ordaintzen uzten, lintxaferuak botatzen dituzte, gainontzeko agirretarrek ere jakin dezaten mindunen arraza oraino bizi dela.

LAU: Bakoitza zenbat aldiz erori den hasiko dira kontari, erorikoaren altura luzatuz, hezur hautsiak bikoiztuz, hartutako mina malkotan adieraziz. Eta azken erorikoaren berri komentatuko dute gero.

BOST: Oraindik ere bagarela!

SEI: Oraindik eta bazagok harri zaharrean estropezu egiteko boluntariorik!

ZAZPI: (Kantuz)

Herdoildu zen igitaia/ apaingarri dago laia
Nonahi ta beti lanturu bera/ hilen kanpaia.
Agirretarrak du gaia/ iratzar dadin garaia
Harro sutzen da guk bihotzean daukagun ardaia.

*Musikak jarraitu egiten du hurrengo eszenak iraun bitartean ere.*

*Metxa*, Koldo Izagirreren *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* narrazioan oinarritua, sarrera.

## 2. Testu narratiboa. **Gizona bere bakardadean**

*Errukarria bakarra, jausten ba´da: Ez dauko jaso dagianik.*
*(Eklesiastes, IV, 10)*

Carlos esaten zioten gizonak bazekien itsaso izoztua amets-irudi bat besterik ez zela, eta bazekien ere –zeren halaxe adierazten baitzion zakarki bere kontzientziaren ahotsetako batek–, ez zuela lozorro hartan jarraitu behar, edo areago, jaiki egin behar zuela etzanda zegoen sofatik eta hoteleko behe-saloira jaitsi han bere adiskideekin biltzearren, hain zuzen ere iluntzen ari zuelako eta hastear egongo zelako astelehen hartan, 1982ko Ekainak 28, poloniarrrek jokatu behar zuten erdi-finaletako partidua. Ordea, ametsean ikusten zuen itsaso izoztuak harritu egiten zuen bere zerebroaren zati erabat esnatu gabekoa, eta zati horrek begiak itxita jarraitzeko gogoa sortzen zion erorketa inpresio atsegin baten bitartez; iruditzen zitzaion itsasora erortzen ari zen harria zela, asteroide baten antzeko zerbait-edo, eta ur izoztuek, auskalo zein paradoxaz, epeltasun goxo bat gordetzen zutela beraien baitan, eta prest zeudela izotz geruzan zuloa egiteko bera handik barrena murgil zedin. Edonola ere, nahiz ukitzeraino hurbildu itsasora, azkenean ez zen urarekin kontakturik egon. Aurrez, ametsaren aldaketa bat zela-eta, saguzarraren antzeko txori handi bat bezala ikusi zuen bere burua: hegaka zihoan uraren gainetik poliki baino polikiago, eta mirestu egiten zuen –bere pizti-begiek ematen zioten ahalmen berriarekin– elurraren txuritasuna eta itsasoak une hartan zeukan lautada birjinaren irudia.

Carlosek, sofan areago etzanez, egunaren azken eguzkia jasotzen zuen leihoari bizkarra emanez egokitu zuen bere gorputza. Ez zuen esnatu nahi, eutsi egin nahi zien amets-irudi haiei. Bestalde, itsasoaren sakonetik orkesta batek interpretaturiko doinua iristen zitzaion, eta hori ere laguntza zen, sosegua soseguaren gainean.

Bernardo Atxaga,
*Gizona bere bakardadean*, 9.or.

**2** *Behin testuak irakurri eta gero, bilatu testuetan agertzen diren sinboloak eta idatzi hurrenkeran beheko taulako lehen zutabean. Sinbolo bakoitzak ideia, emozio edo sentipen bat transmititzen du. Idatzi taulan. Behin taula bete eta gero, ikusiko duzu testuak lehen aldiz irakurritakoan baino zentzu gehiago duela.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| **Testu lirikoa. Otoitza** | | | |
| | | | |
| **Testu narratiboa. Gizona bere bakardadean** | | | |
| | | | |
| **Testu dramatikoa. Metxa** | | | |
| | | | |

**3** *Orain, lan-taldeetan, talde bakoitzak banaka betetako taulak bateratuko ditu. Azkenik, talde guztiek beren emaitzak azalduko dituzte ikaskide guztien aurrean.*

# Dokumentazio osagarria

## Jarduera burutzeko irakasleentzako zenbait argibide

Unitate didaktiko honetan behin eta berriz erabiliko ditugun sinboloei eta esanahi-mailen taulei buruzkoak.

1. Ikasleek argi jakin behar dute sinboloek esanahi-maila bat baino gehiago transmiti dezaketela edozein konbinazio posibletan (hiru mailak; sentimenak eta sentsazioak, ideiarik gabe; ideiak eta sentsazioak, sentimenik eza, etab.).

2. Ikasleek ideien maila eta esanahia, gutxi edo gehiago parafraseatua edo "itzulia", nahasteko joera dute, eta beharrezkoa da bereiztea. Ideia bat hauxe da, adibidez: *"Pertsona guztiak berdinak dira heriotzaren aurrean"*.

3. Sentimenen eta sentsazioen zutabeak bereizi egin behar dira, oraingoz, sentsazioen taula orokorretik abiatuta. Taula horretan ikusmenekoak, entzumenekoak, usaimenekoak, dastamenekoak, termikoak, pisuari dagozkionak, ukimenekoak, zenestesikoak eta esterognosikoak bereizten dira. Sentsazio horiek guztiek zentzumenetan dute jatorria. Ondorioz, esan liteke sentsazioak zentzumenetatik eratorritako fenomenoak direla.

4. Taldean jardutean, ikasleen banakako interpretazioa eta subjektiboa gainerakoenarekin kontrastatzen da. Jarduera horretan, interpretazio-kontsentsuari lehentasuna eman behar zaio (subjektibotasuna ere izan liteke kolektiboa), baina banakako ekarpenak baztertu gabe. Aurrerantzean esanahi-mailen taula hauek osatzeko, prozedura praktiko bat proposatzen dugu: *parentesi artean jarriko ditugu taldeak ontzat eman ez dituen banakako interpretazioak.*

## Sinbolismoari buruzko zenbait argibide

Sinboloa zer den argi eta zehatz azaltzea ia ezinezkoa da. Hala ere, hurbilketa sakona eta sintetikoa egin nahi izanez gero, ***Diccionario de Hermenéutica***-ko "símbolo" sarrera irakurtzea gomendatzen dugu (A. Ortiz-Osés eta P. Lanceros (zuz.); 2001:755-759), José Mª G. Estoquera-k idatzia.

Asko eta asko saiatu izan dira sinbolismoa zer den azaltzen[3]. G. Durand-en azalpena (1982) erabiliko dugu guk, sendoena guretzat, aurrekoak biltzen baititu. Jung-en sinbologiaren alderdi batzuk oinarri hartuta (A. Ortiz-Osés eta E. Trías-en, gutxiago, testuetan ere jasoak), sinbolismoaren azalpena berbideratu du estrukturalisten ideiak ere gainditu nahian. G. Durand-en esanean (1982), sinboloa da *"eskema eta arketipoen ilustrazioa, izaera anbibalentea eta interpretatzen duen kulturaren testuinguruan zirkunskribatutako zentzua duena. Baliteke eskemak eta arketipoak ez aldatzea, baina sinboloak bai"*. Egitura dialektikoa interesatzen zaigu, transformazionala, dinamikoa eta osatugabea eta sinboloaren eduki garbiari irekia. "Ibilbide antropologikoa"ren kontzeptuak asko laguntzen du irudien kultur asoziazioa eta gainezartzea aztertzen. Sinboloa zeharkako ezagutzarako hiru bideetako bat da –zeinuarekin eta alegoriarekin batera–, eta ezinezkoa da bere esanahia zuzenean antzematea. Hala, sinbolismoa subjektuaren desio inperatiboen eta ingurune objektiboaren mehatxuen arteko oreka da. Gehiago luzatu gabe, G. Durand-ek dio irudizkoa, sinboloak, sailkatze-sistema bikoitz baten menpe daudela (bi alderdikoa eta hirukoa aldi berean). Hasteko, eguneko erregimena dago, jarrerazko menperatzailearekin eta goranzko eskemekin eta diairetikoekin harremana duena; horien funtsezko arketipoak argia eta heroia dira. Eta gaueko erregimena. Azken horrek bi zati ditu, digestio-menperatzailea bata eta ziklikoa bestea. Horrela egitura eskizomorfoak (eguneko erregimena), egitura mistikoak eta egitura sintetikoak edo barreiatzaileak (gaueko erregimena) daude[4]. Gero (1993), irudizkorako hurbilketa hori literatur obren mitokritikarekin eta mitoanalisiarekin osatu zuen. Mitokritikak antzinako literatur kritikaren (ingurunean eta unean oinarritua –positibismoa eta marxismoa–), psikologikoaren eta psikoanalitikoaren eta, azkenik, estrukturalismoaren sintesi konstruktiboa izan nahi du. Honela definitu zuen (1993:343):

*"Metodologikoki, obrara eginbeharreko mimetikoak hurbilketa bereizten dituzten hiru denboratan egin daiteke:*

*1) Lehenik, "gaien" erlazioa, hau da, obraren sinkronizitatea osatzen duten mugimendu erredundante edo "obsesiboena".*

*2) Bigarrenik, espiritu berarekin, pertsonaien eta dekoratuen egoerak eta egoera-konbinazioak aztertzen dira.*

---

[3] Gure lanean, horri buruz, honako hauek egindako hausnarketak erabili ditugu: D. Sperber, 1988; J. Caro Baroja, 1990; A. Ortiz-Osés, 1982, 1985, 1988 eta 1996; E. Trías, 1994 eta, batez ere, G. Durand, 1982.

[4] L. Garagalza-k (1990) lan bikaina du G. Durand-en pentsamoldeari buruz.

3) *Azkenik, tratamendu-mota "amerikarra" erabiltzen da, Lévi-Strauss-ek Edipo-ren mitoari aplikatzeko erabiltzen duena bezalakoa, mitoaren irakasgaiak lokalizatuz eta mito baten ikasgai baten eta garai edo kultur espazio jakin bateko beste mito batzuen korrelazioaren bidez."*

Azkenik, G. Durand (2000:115-116) jakinaren gainean dago irudizkoak denbora-ibilbidea zehazten zaila duela, gainezartzeak etengabeak baitira. Hauxe esan zuen (2000:116):

> *"Esan liteke, Stéphane Lupasco-ren terminologia erabiliz, kultura baten une guztietan mito asko gainezartzen direla (bi gutxienez). Horietako batzuk "eguneratuta" daude, hau da, egun-egunean espresatzen dira eta "pentsamendu ororen" logika galdu eta kausazko arrazoiaren narrazio deskriptiboaren logikan kokatzen dira. Beste batzuk, berriz, "bultzatuak" dira, itzalean geratzera behartuak, baina, aldi berean, mitoen "alogika" ugari dutenak."*

Horrela, narrazio mitikoak, *sermo mythicus* "alogikoak", ezagutza gisa, ez du arrazoitzen ez deskribatzen, baizik eta errepikapenez, erredundantziaz limurtu. Hori oinarri hartuta, G. Durand-en aurrekontuetatik abiatuz, asko interesatzen zaigu A. García Berrio-ren (1994) irudizkoaren Poetika, literatur arlokoa.

Baina irakasleak DBH 4. mailan ezin du sinbolismoaren oinarrizko azalpen bat baino gehiago eskatu, derrigor erredukzionista izan arren ikasgelako lan pedagogikoari argitasuna emango diona. Horregatik, ikasleekin lantzeko lan-fitxa bat aurkezten dizuegu, G. Durand-en ideiei (1982) eta L. Garagalza-ren (1990) iruzkinari jarraituz egina. Edozein kultur elementuri aplika dakioke, dimentsio eta bokazio antropologikoa baitu.

**Lan-fitxa. Sinboloen jatorria eta azalpena**

| Erregimena | Erreflexu nagusia edo zentzumen-motorren sortzetiko egitura | Eskemak | Arketipoak | Irudizko egitura antropologikoak, kultura bakoitzaren sinboloen iturriak |
|---|---|---|---|---|
| Egunekoa | Posturetan nagusia: posizio tentea, bertikaltasuna. | "Diairetikoa" edo goranzkoak. | Materia argitsuak eta bisualak. Bereizteko eta garbitzeko teknikak. Gailurra, zerua, nagusia, heroia, ezpata. | Egitura eskizomorfoak edo heroikoak: heroia irudi argitsua eta goranzkoa da, munstroa garaitu eta beste mundura iristea lortzen duena. Heriotza eta iragankortasuna konnotazio femeninoak dituzten sinboloen bidez irudikatzen dira (animaliatasuna, ilunpea, amildegia). |
| Gauekoa | Elikaduran nagusia: bularreko haurren xurgatze- eta orientatze-mugimenduak. | Jaistekoak edo beheranzkoak. | Sakonerako materiak (ura edo haitzuloetako lurra). Edabe eta elikagaien teknikak. Erreminta neurritsuak. Hutsa, gaua. | Egitura mistikoak: heroiak sakon-sakonera jaitsi behar du. Natura da iragankortasunaren eta heriotzaren aurreko babesa orain. Aurreko sinboloak leuntzen dira: gau barea, jaitsiera, kopa. Itxura femenino eta amatiar goxoa: Jainkosa Ama Handiak. |
| | Kopulatzean nagusia (aurrekotik eratorria): sexualitatearen mugimendu erritmodunak eta prozesu ziklikoak. | Intimitatean uzkurtzea. | Urtaroen erritmoa eta astrologia. Marruskadura teknologikoa. Zikloaren ordezko teknikak (gurpila, tornua...). Altzoa, intimitatea. | Egitura sintetikoak edo barreiatzaileak: bilakaeraren bizitza-heriotza dualismoa heltzeak leundua dago. Bi talde: Itzulera edo denboraren errepikatze infinitua (denarioa, gurpila...); eta bilakaeraren heltzea edo egiteko genetikoa eta aurrera egitekoa (zuhaitza, bastoia). |



## 9. jarduera

# Nire esperientzia

**1**

*Pentsatu antzemandako sentsazioek harritu zaituzten egoera batean. Adibidez, jatetxe bateko sukaldera egindako bisita, atrakzio batean egindako ibilaldia (errusiar mendia, etab.), kontzertu bat, etab. Bereizirik bizi izandako zentzumen-esperientzia txikietan oinarritutako egoera ere irudika dezakezu.*

**2**

*Sailkatu hautatutako egoeran antzemandako sentsazio-mota ezberdinak.*

**3**

*Egizu zerrenda bat hautatutako egoeran antzemandako sentsazioekin bat datozen eta deskribatzeko balio duten hitz eta esamoldeekin.*

**4**

*Zure esperientzia idazten hasi aurretik, jarraitu pauso hauek:*

1. *Aztertu errealitatea zentzumenez eta osatu sentsazioak eta sentimenak transmititzen dituzten hitzen eta esamoldeen eremu semantikoak eta isotopiak.*
2. *Hartu unetxo bat hausnartzeko eta ezagutzan sakontzeko, objektua, egitura, harremanak, etab. aztertu eta baloratzeko.*
3. *Hautatu bereizgarriena edo enpatikoena nabarmentzen duten datuak.*
4. *Hautatu ikuspuntu bat datuak egitura jakin batean ordenatzeko:*
   - *a) orokorretik partikularrera;*
   - *b) formatik edukira edo alderantziz;*
   - *c) denboran eta espazioan hurbilekotik urrunekora edo alderantziz.*

**5**

*Ba al dago sentitu zenuena sinboliza dezakeen objekturik, izakirik...? Pentsatu erabil dezakezun sinboloren bat.*

**6**

*Sartu aurreko pauso guztiak bizi izan edo irudikatutako egoera lehen pertsonan deskribatzeko egingo duzun idatzian.*



# 5.1.Pertzepziozko ezagutza

## 5.1.2. Artea eta pertzepzioa

*10. jarduera: Artistaren lekuan*

*11. jarduera: Artelanen iruzkinen hastapenak*



## *Irakasleentzako gida*

### *1. Sarrera*

Aurreko kapituluan eta jardueretan, E. Soler Fiérrez-ek[1] proposatzen zituen sentsazioak aztertu ditugu, eta hauek, eremu semantiko eta isotopietan nola biltzen diren, edo sinboloetan nola kondentsatzen diren. Zentzumen-heziketak identifikatzen, sailkatzen, serieak osatzen eta sentsazio-multzoak berregiten irakatsi behar duenez, aurreko literatura- eta musika-lanak eta artelanak hautematean, ikasleen hiztegi aktibo eta pasiboa areagotzea izan da helburu nagusia. Hala ere, orain hiztegi espezifiko eta teknikoagoarekin ekingo diogu artelanen analisiari. Gomendagarria litzateke Plastika eta Ikus-Hezkuntza arloarekin batera jardutea, jakintza-arlo horretan pintzelkada xume hauetan baino askoz gehiago sakondu ahal izango bailitzateke. Zentzu horretan, I. Aguirrek (2000), adibidez, ikuspegi interesgarria aurkeztu du.

Mintzagai dugun ezagutza heterogenetikoak kontzeptuak, objektuak subjektuak ikusten dituen bezala eta afektuak bereizteko –eta hierarkizatzeko– ilusioa gainditu nahi du, eta artelanen (eta edozein ezaugarri kulturalen) eta irudizkoaren arteko harremana nola zehaztu proposatzen du. R. Arnheim-ek (1999:11) argi azaltzen du:

> "Gauzak gure zentzumenen bidez ikusteko dohaina bazter utzi dugu. Kontzeptua eta pertzeptua bereizita agertzen dira, eta pentsamendua abstrakzioen artean ibiltzen da. Gure begiak identifikatzeko eta neurtzeko tresna hutsak dira; horregatik, irudietan azal daitezkeen hamaika ideia falta ditugu eta ez gara ikusten dugunaren esanahiak deskribatzeko gauza."

Eta honela definitzen du pertzepzioa (R. Arnheim; 1999:15): *"Hautematea pentsatzea ere bada, arrazoitzea intuitzea ere bada, behatzea asmatzea ere bada."*[2]

---

[1] E. Soler Fiérrez, 1988, 49-50 orr.

[2] Informazio gehiago nahi izanez gero J. Villafañe (1998).

| Elementuak | Kontzeptuak |
|---|---|
| 1. Irudiaren elementu morfologikoak | Puntua |
| | Lerroa |
| | Planoa |
| | Egitura |
| | Kolorea |
| | Forma |
| 2. Irudiaren elementu dinamikoak | Iragankortasun-kontzeptua |
| | Tentsioa |
| | Erritmoa |
| 3. Irudiaren elementu eskalarrak | Dimentsioa |
| | Formatua |
| | Eskala |
| | Proportzioa |
| 4. Ikono-sintesia | Ikono-ordenaren kontzeptua |
| | Irudiaren egiturak |
| | Esanahi plastikoa |
| 5. Irudiaren konposizioa | Konposizioari buruzko zehaztasunak |
| | Oreka dinamikoa |
| | Ikusmenaren pisua eta norabidea |

Zentzumenak hezteko gure lan pedagogikoak, aurretik, zentzumenen lexikoa eta sentsazioen deskribapena aztertu ditu; Plastika eta Ikus-Hezkuntza arloaren helburuetako bat berau da. Heziketa artistikoa ez da aurreko ahalegin orokorraren alderdi espezializatua baizik. Beraz, bi helburu horiek lortzera ere bideratu behar da.

*1. Hiztegi artistikoa lantzea*

Artelanak aztertzeko, J. Villafañe-ren sailkapenari jarraitu diogu. Irudiaren errepresentaziorako funtsezko kontzeptuak zehazten ditu J. Villafañe-k. Hogei kontzeptu horiek ezinbestekoak dira ikasleak lexiko artistikoan trebatzen hasteko. Berriro azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela Plastika eta Ikus-Hezkuntza arloarekin batera jardutea. Hori posible ez bada, gomendagarria da irakasleak kontzeptu horien definizioak laburbildu eta adibide hauetakoren batean aplikatzea[3].

2. *Artelanen deskribapena eta iruzkinak lantzea*

Behin lexiko artistikoa areagotu eta gero, artelanen deskribapenetan erabili behar dugu. Horretarako, behaketa sistematikorako fitxa batzuk diseinatu dira. Fitxa horiek asko zor diote F. Morante López eta A. M. Ruiz Zapata-ren liburuari (1997). Deskribapena, azkenik, arte-iruzkin batekin amaitzen da. Iruzkina egiteko gomendagarria da artearen historia on bat eskura izatea, E. H. Grombich-ena adibidez (1997) edo Mondadori-k argitaratutako lan kolektiboa (Gaztelaniazko itzulpena Everest eta Círculo de Lectores-ena da; 1998), baita I. Chilvers, H. Osborne eta D. Farr-en ***Diccionario del Arte*** ere (Alianza Hiztegiak; 1984) lehenago ere aipatua.

[3] I. Chilvers, H. Osborne eta D. Farr, 1984.

## 2. Helburuak

- Hizkuntza ez-ahozkoaren komunikazio-aukerak aztertzea.
- Zentzumenen pertzepziorako eta artelanen iruzkinak egiteko prozedura eraginkorra ematea.
- Artea gustukoa izan dadin lantzea.

## 3. Jardueren segida

### 10. jarduera: Artistaren lekuan

- *Deskribapena:* Jarduera honen helburua ikasleek hautematen dituzten sentsazioak deskribatzen ikastea da, landutako lexikoa eta eremu semantiko, isotopia eta sinbolo kontzeptuak erabiliz. Horretarako, hiru artelan proposatuko ditugu (arkitektura-lan bat, eskultura bat eta koadro bat). Horietan, eragiten dituzten sentsazioak, artistak horretarako erabilitako elementu artistikoak eta artistak, euren ustez, transmititu nahi zituen ideiak eta emozioak behatu beharko dituzte.
- *Beharrezko materiala:*
  - *Vatikanoko San Petri plaza*. Bernini.
  - *Pietatea*. Miguel Ángel.
  - *San Pauloren konbertsioa*. Caravaggio.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak.

### 11. jarduera: Artelanen iruzkinen hastapenak

- *Deskribapena:* Behin hautemandako sentsazioak deskribatu eta gero, ikasleek aztertutako lanaren iruzkina egingo dute idatziz. Horretarako, gidoi bat izango dute lanaren analisi teknikoarekin jasotako sentsazioak laburbiltzeko, eta dokumentazio osagarria, autorearen biografiaren eta lana egin zeneko testuinguruaren berri jakiteko.
- *Beharrezko materiala:* 10. jarduerako materiala eta proposatzen den gidoia.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

# 10. jarduera

## Artistaren lekuan

Orain arte, testu literarioetatik, musika-lanetatik eta artelanetatik sentsazioak hautematen eta deskribatzen ikasi dugu geure emozioetan amaitzeko. Beste lan-mota batzuk egiten dituzten artisten lekuan jarriko gara orain, lan horietara hurbiltzen denarengan zer sentsazio eta emozio eragin ditzaketen aztertzeko.

***Talde bakoitzak lan bat aztertuko du. Azterketaren ondoren, gainerako ikaskideekin komentatuko dituzte emaitzak.***

### 1. taldea: *Vatikanoko San Petri plaza*. Bernini





**1** *Behatu arretaz Vatikanoko San Petri plaza.*

## 2

*Zer sentsazio eragiten dizue Vatikanoko San Petri plazak?*

| Artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Plazaren erdiko obeliskoa | Arkupe kurbatuak |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

## 3

*Jarri arreta honako elementu arkitektoniko hauetan eta zehaztu San Petri plazan nola gauzatzen diren.*

| | |
|---|---|
| **1. Bista konkretuaren identifikazioa:** | |
| Goitiko bista. | |
| Aurretiko bista. | |
| **2. Sistema arkitektonikoa:** | |
| Zuzena. | |
| Ganga-formakoa. | |
| **3. Elementu konstruktiboak: euskarriak eta estalkiak.** | |
| Euskarriak: egitura- edo apaindura-funtzioa. | |
| Hormak. | |
| Kanpoko euskarriak: pilareak, zutabeak, zutikoak, etab. | |
| Arkuak: | |
| Mota. | |
| Funtzioa. | |
| **4. Dekorazio-elementuak: urri edo ugari.** | |
| Natura: arkitektonikoak, eskultorikoak edo piktorikoak. | |
| Erabilitako materialak. | |
| Gaia: landareak, geometria edo irudiak. | |
| Funtzioa: oinarrizkoa edo osagarria. | |
| **5. Balio plastikoak:** | |
| Proportzioa eta harmonia. | |
| Simetria edo asimetria. | |
| Kanpoko bolumenak: horizontaltasuna edo bertikaltasuna; kanpokoarekin eta ingurunearekin duten harremana. | |
| Barneko espazioa: argia, kolorea eta giroa, eskala, konposizio orokorra. | |

4

*Jarri arreta lan arkitektoniko honetan dauden sinboloei. Aipatu eragiten dizkizueten ideiak, emozioak edota sentsazioak.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Plazako arkupeen forma besarkada baten antzekoa da. | | | |
| | | | |



2. taldea: ***Pietatea.*** **Miguel Ángel**



1

*Behatu arretaz Pietatea, Miguel Ángel-en eskultura.*

2 *Zer sentsazio eragiten dizue eskulturak?*

| Artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Mariaren aurpegia | Mariaren arropak | Jesusen eskuineko eskua | Mariaren eskua Jesusi eusten | Jesusen burua |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | | |
| **Termikoak** | | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | | |



## 3

*Jarri arreta honako elementu eskultoriko hauetan eta zehaztu Pietatean nola gauzatzen diren.*

| | |
|---|---|
| **1. Eskultura-mota:** | |
| 1.1. Koskor biribila, irudia edo eskultura-multzoa. | |
| 1.1.1. Gorputz osoa, bustoa edo gorputz-enborra. | |
| 1.1.2. Jarrera: zutik, eserita, otoitzean, etzanda... | |
| 1.2. Erliebea (altuerliebea edo baxuerliebea). | |
| **2. Gaia eta izenburua:** | |
| ........................................ | |
| **3. Materiala: harria, marmola, zura, buztina...** | |
| ........................................ | |
| **4. Teknika: tailatua, modelatua, burdinurtua...** | |
| ........................................ | |
| **5. Kokagunea:** | |
| 5.1. Arkitekturatik aske. | |
| 5.2. Arkitekturari lotua (apaingarria). | |
| **6. Azalen egitura:** | |
| 6.1. Lisoa/latza; leuna/zimurtsua; landua/ertzduna. | |
| 6.2. Bigun- edo gogor-sentsazioa. | |
| **7. Bolumena:** | |
| 7.1. Kanpoko bolumena: profila, aurrealdea, ikuspegi ugaritasuna. Sakontasuna (erliebeetan batik bat). | |
| 7.2. Barneko bolumena: tarteak eta hutsak, etab. | |
| **8. Konposizioa eta mugimendua:** | |
| 8.1. Patxadatsua, trankila edo hieratikoa. | |
| 8.2. Dinamikoa: tentsio anatomikoa, kanpoko mugimendua, fikziozko mugimendua, etab. | |
| 8.3. Benetako mugimendua: eskultura zinetikoak. | |
| **9. Espresio-formak:** | |
| 9.1. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | |
| 9.2. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | |
| **10. Espresio-elementuak:** | |
| 10.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | |
| 10.2. Arropak eta izurrak: funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna. | |

## 4

*Jarri arreta eskultura honetan dauden sinboloei. Aipatu eragiten dizkizueten ideiak, emozioak edota sentsazioak.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Ama Birjinaren aurpegia. | | | |
| | | | |

3. taldea: ***San Pauloren Konbertsioa*. Caravaggio**



**1**

*Behatu arretaz San Pauloren konbertsioa, Caravaggio-ren koadroa.*

## 2

*Zer sentsazio eragiten dizue irudiak?*

| Sentsazioak / Artelanaren xehetasuna | Zaldiaren aurreko eskuineko hanka | San Pauloren aurpegia | San Pauloren besoak |
|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | |
| **Entzumenekoak** | | | |
| **Usaimenekoak** | | | |
| **Dastamenekoak** | | | |
| **Termikoak** | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | |
| **Ukimenekoak** | | | |
| **Zenestesikoak** | | | |
| **Esterognosikoak** | | | |



**3** *Jarri arreta honako elementu piktoriko hauetan eta zehaztu San Pauloren konbertsioan nola gauzatzen diren.*

| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| ........................................ | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera...** | |
| ........................................ | |
| **3. Materiala: harria, marmola, zura, buztina...** | |
| ........................................ | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea...). | |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objektuarena berarena. | |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib.: tenebrismoa). | |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | |
| 7.3. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa. | |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikak: plano-jokoa, argiaren erabilera, etab. | |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | |

4

*Jarri arreta koadroan dauden sinboloei. Aipatu eragiten dizkizueten ideiak, emozioak edota sentsazioak.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: San Pauloren besoak zerura begira. | | | |
| | | | |



# Irakasleentzako erantzunak

## 1. taldea: *Vatikanoko San Petri plaza*. Bernini

| Sentipenak / Artelanaren xehetasuna | Plazaren erdiko obeliskoa | Arkupe kurbatuak |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | Goratzea, simetria. | Kurbadura, zuritasuna. |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | Mugimendu inguratzailea. |
| **Esterognosikoak** | Simetria. | Barneko handitasun gehiago.<br>Perspektiba handiagoko fatxada. |

| | |
|---|---|
| **1. Bista konkretuaren identifikazioa:** | |
| Goitiko bista. | Bai (Plaza). |
| Aurretiko bista. | |
| **2. Sistema arkitektonikoa:** | |
| Zuzena. | Bai (Arkupeak). |
| Ganga-formakoa. | Bai (Basilika). |
| **3. Elementu konstruktiboak: euskarriak eta estalkiak.** | |
| Euskarriak: egitura- edo apaindura-funtzioa. | Egitura-funtzioa. |
| Hormak. | Ez. |
| Kanpoko euskarriak: pilareak, zutabeak, zutikoak, etab. | Arkupe kurbatuak marmolezko zutabeekin. |
| Arkuak: | Ez. |
| Mota. | Ez. |
| Funtzioa. | Ez. |
| **4. Dekorazio-elementuak: urri edo ugari.** | |
| Natura: arkitektonikoak, eskultorikoak edo piktorikoak. | Eskultorikoak. |
| Erabilitako materialak. | Marmola. |
| Gaia: landareak, geometria edo irudiak. | Irudiak. |
| Funtzioa: oinarrizkoa edo osagarria. | Osagarria, baina sinbolikoa. |
| **5. Balio plastikoak:** | |
| Proportzioa eta harmonia. | Bai. |
| Simetria edo asimetria. | Simetria. |
| Kanpoko bolumenak: horizontaltasuna edo bertikaltasuna; kanpokoarekin eta ingurunearekin duten harremana. | Barneko handitasun gehiago. |
| Barneko espazioa: argia, kolorea eta giroa, eskala, konposizio orokorra. | Kanpokoa da. |

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Plazako arkupeen forma besarkada baten antzekoa da. | Elizak ez du bereizketarik egiten eta denak onartzen ditu; edonork jo dezake ama honengana. | Samurtasuna, ulermena, maitasuna. | Ikusmenekoa: kurbadura eta zuritasuna. Esterognosikoa: bilduta, elizak babestuta egoteko sentsazioa. |

## 2. taldea: *Pietatea.* Miguel Ángel

| | Artelanaren xehetasuna | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Sentsazioak** | Mariaren aurpegia | Mariaren arropak | Jesusen eskuineko eskua | Mariaren eskua Jesusi eusten | Jesusen burua |
| **Ikusmenekoak** | Zurbiltasuna. Oinaze barea. | Izurdura. Emakume-anatomia. | Hilotzaren laxotasuna. Zurbiltasuna. Muskulatura. | Pisuak eragindako tentsioa. | Hilotzaren laxotasuna. Zurbiltasuna. Baretasuna. |
| **Entzumenekoak** | Negar-zotin isila. | Ehunaren marruskadura. | Isiltasuna. | | Isiltasuna. |
| **Usaimenekoak** | | Ehunaren usaina. | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | | |
| **Termikoak** | | Beroa transmititzen dute gorputz biluziarekin kontrastean. | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | Jesusen pisua sumatzen du. | | | Semearen hilotzaren pisua sumatzen du. | |
| **Ukimenekoak** | | Arropa leunak baina lodiak. | | Leuntasun fina. | |
| **Zenestesikoak** | | Uhin-mugimendua, Jesusi eusteak eragina. | Ibilge. | | Ibilge. |
| **Esterognosikoak** | | Bolumen triangeluarra eta sakona sortzea. | | Sakontasuna sortzen du. | |

| | |
|---|---|
| **1. Eskultura-mota:** | |
| 1.1. Koskor biribila, irudia edo eskultura-multzoa. | Eskultura-multzoa. |
| 1.1.1. Gorputz osoa, bustoa edo gorputz-enborra. | Gorputz osoak. |
| 1.1.2. Jarrera: zutik, eserita, otoitzean, etzanda... | Ama Birjina eserita Jesusen hilotzari eusten. |
| 1.2. Erliebea (altuerliebea edo baxuerliebea). | Ez. |
| **2. Gaia eta izenburua:** | |
| *Pietatea*, Miguel Ángel-ena. Ama Birjinaren nahigabea irudikatzen du, gurutzetik eraistean Jesusen hilotzari eusten diola. | |
| **3. Materiala: harria, marmola, zura, buztina...** | |
| Marmola. | |
| **4. Teknika: tailatua, modelatua, burdinurtua...** | |
| Zizelkatua. | |
| **5. Kokagunea:** | |
| 5.1. Arkitekturatik aske. | Aske. |
| 5.2. Arkitekturari lotua (apaingarria). | |
| **6. Azalen egitura:** | |
| 6.1. Lisoa/latza; leuna/zimurtsua; landua/ertzduna. | Lisoa, leuna eta landua. |
| 6.2. Bigun- edo gogor-sentsazioa. | Biguntasuna. |
| **7. Bolumena:** | |
| 7.1. Kanpoko bolumena: profila, aurrealdea, ikuspegi ugaritasuna. Sakontasuna (erliebeetan batik bat). | Ikuspegi ugaritasuna. |
| 7.2. Barneko bolumena: tarteak eta hutsak, etab. | Arropetan eta Jesusen hanken artean tarteak daude. |
| **8. Konposizioa eta mugimendua:** | |
| 8.1. Patxadatsua, trankila edo hieratikoa. | Eskultura-multzoa patxadan dago. |
| 8.2. Dinamikoa: tentsio anatomikoa, kanpoko mugimendua, fikziozko mugimendua, etab. | Izurren eta arropen mugimenduak eta Ama Birjinaren tentsioak Jesusi eustean kontrastea egiten dute hilotzaren gelditasunarekin. |
| 8.3. Benetako mugimendua: eskultura zinetikoak. | Ez. |
| **9. Espresio-formak:** | |
| 9.1. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | Naturalismo idealizatua eta arte figuratiboa. |
| 9.2. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | |
| **10. Espresio-elementuak:** | |
| 10.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | Anatomiaren irudikapen perfektua. |
| 10.2. Arropak eta izurrak: funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna. | Egitura triangeluarra lortzen dute; handiak, okerrak eta sakonak dira, eta mugimendua transmititzen dute hilotzaren gelditasunarekin kontrastean. |

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Ama Birjinaren aurpegia. | ---------------------------- | Atsekabea; nahigabe jasanezina. Baretasuna. | Ikusmenekoa: zurbiltasuna, oinaze barea. Entzumenekoa: negar-zotin isilak. Pisuari dagokiona: Jesusen pisua sumatzen du. |

## 3. taldea: *San Pauloren konbertsioa.* Caravaggio

| Artelanaren xehetasuna / Sentsazioak | Zaldiaren aurreko eskuineko hanka | San Pauloren aurpegia | San Pauloren besoak |
|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | Tentsio anatomikoa. Pertxeroien sendotasuna. Kolorea. | Aurpegi liluratua eta itsutua. | Anatomia. Argia eta itzalak. Eskuak erreguka. |
| **Entzumenekoak** | | | |
| **Usaimenekoak** | | | |
| **Dastamenekoak** | | | |
| **Termikoak** | | Oso bero handia. | Oso bero handia. |
| **Pisuari dagozkionak** | Pisua eta indarra. | | |
| **Ukimenekoak** | | | Argi jainkotiarra ukitu nahi dute. |
| **Zenestesikoak** | Mugimendu artega. | | Goranzko mugimendua. |
| **Esterognosikoak** | Koadroaren barne-hutsunea eta perspektiba sortzen ditu. | | Koadroaren barne-hutsunea eta perspektiba sortzen ditu. |

| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| Pauloren erorikoa irudikatzen du, Jainkoaren agerraldiak liluratuta, agerraldi horrek eragin zuen Pauloren konbertsioa. San Pauloren konbertsioa, Caravaggio. | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera...** | |
| Olioa. | |
| **3. Materiala: harria, marmola, zura, buztina...** | |
| Mihisea. 230 x 175 cm. | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea...). | Pintzelkada laburra eta akabatua. |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | Lisoa, leuna, distiratsua. |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | Ez. |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | Bolumena irudikatzen du. |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | Argiluna. |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | Argi irreala. |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objektuarena berarena. | Jainkoarengandik datorrela dirudi, eta San Paulori soilik eragiten dio. |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib.: tenebrismoa). | Ez dago tenebrismorik, baina morroia itzalpean dago. |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | Perspektiba sortzea. |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | Beroa. Tonu okreak eta gorrixkak. |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | Errealista. |
| 7.3. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa. | Protagonista. |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | Sakontasuna erakusten du plano ezberdinetako figurak erabiliz. |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikoak: plano-jokoa, argiaren erabilera. | Plano-jokoa eta argiaren erabilera. |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | Konplexua: erdiguneko elipsi hutsa, zaldiari eta Pauloren besoei esker lortua. |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | Elipsearen erdigunean zaldiaren apoa dago, San Pauloren erregu-eskuen simetria-zentro gisa. |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | Arte figuratiboa. |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | Naturalismo errealista. |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | Perfekzioa anatomian eta eskalan. |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | Funtzio osagarria dute. |

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: San Pauloren besoak zerura begira. | Jainkoa gupidatsua da Jainkoarekin topo egiteak aldatu egiten du pertsona. | Damua, hobena. | Ikusmenekoa: Anatomia. Agerraldiaren argi oso bizia eta itzalak. Eskuak zabalik eta erruki eske. Termikoa: Bero handia. Ukimenekoak: Argi jainkotiarra ukitu nahi dute. Esterognosikoa: Koadroaren barne-hutsunea eta perspektiba sortzen ditu. |



# 11. jarduera

## Artelanen iruzkinen hastapenak

**1**

*Aurreko jardueran eskuratutako informazioarekin, idatzi lanaren iruzkina. Horretarako, erabili aurreko materialak eta gidoi hau. Lagungarri gisa, jardueraren amaieran agertzen den dokumentazio osagarria ere erabil dezakezu.*

1. Lanaren sailkapena.
    1.1. Estiloa.
    1.2. Eskola edo garaia.
    1.3. Egilea. Bere produkzioaren zer alditako lana den.
    1.4. Lanaren izenburua.
2. Edukia eta funtzioa.
    2.1. Gaia.
        2.1.1. Gaiaren identifikazioa.
        2.1.2. Ikonografia eta sinbologia.
    2.2. Funtzioa: mitikoa, erlijiosoa, magikoa, gizalegezkoa, politikoa, irakastekoa...
3. Lanaren karakterizazioa.
    3.1. Egin zeneko egoera: testuinguru soziokulturala eta aurrekariak.
    3.2. Lanaren garrantzia.
4. Egilea: lana ulertzeko baldintzak.
5. Ondorioak.

# Dokumentazio osagarria

## *Vatikanoko San Petri plaza*. Gian Lorenzo Bernini

Vatikanoko San Petri Plaza. 1656/1667 bitartean eraikia. Italiar barrokoa.

Migel Anjelek[4] diseinatutako kupula Carlo Madernak goratu zuenean hartu zuen behin betiko itxura Vatikanoko Basilikak, eta, bereziki, fatxada berria egin ziotenean. Izugarria da fatxada, sendoa, sinplea. Fatxada horretara garamatzan eskailera apala da, eraikinaren aldean behintzat, eta ez dauka gerora Erroman egindako antzeko eskaileren kutsu eszenografiko barroko hura. 1607an amaitu zuen fatxada Madernak; 1629an, berriz, Lorenzo Berninik ekin zien Basilikaren urbanizazio- eta handitze-lanei.

Ordurako baztertua zen Bramanteren hasierako proiektua (lau fatxada berdineko Basilika egitea, gurutze grekoko oinplanoaren gainean); erabaki zen, hortaz, erdiko nabea luzatzea eta Madernaren fatxadak amaitzea obra. Erdiko ardatza (nabarmen luzatua jada) hartu zuen abiapuntu Berninik, eta haren gainean diseinatu zuen Mendebalde osoko plazarik ikusgarrienetako bat.

Pienzako plazan eginikoaren bidetik jo zuen (edo Migel Anjelek Erromako *Campidoglion* egindakotik), eta bi besotzar zuzen eraiki zituen fatxadaren muturretatik ardatzerantz. Bi besoen elkartze horrek ilusio optikoa sortzen du (Pienzan edo *Campidoglion* bezala) eta tamaina are handiagokoa irudikatzen du fatxada nagusia.

Barneko baldakinetik kanpoko fatxadara bitarteko adinako luzera dute beso zuzen horiek. Kolomadi doriko-erromatar bikainak osatzen ditu besoak. Amaieran, estatua-taulamendua dauka kolomadiak. Baina Bernininiren jenialtasuna kolomadi horren barnerako kurbatzean datza. Elipse batekin egin zuen kurba (zirkuluak baino dinamismo handiagoa du elipseak), eta bi iturri bikain jarri zituen haren fokuetan. Hartara, beti dauzka begien aurrean ikusleak, elipsearen edozein lekutan jartzen delarik ere.

Lau ilara ditu kolomadi kurbatuak, lau ordena ezberdinetan jarriak: guztira, 296 koloma. Taulamenduaren gainean, 140 santuren estatuari eusten diete kolomek. Maisuaren ikasleek egin zituzten estatuak. Ikusgarria da deanbulatorio horren efektua, zutabe-basoa ez dela inoiz amaitzen ematen baitu, edonondik begiratuta ere. Horrenbestez, perspektiba zentraleko arkitektura-ideala behin betiko amaitu zuen Berninik. Brunelleschiren garaietatik, ideal hori izan zen nagusi arkitekturan. Basilikaren fatxada izugarria, bada, kolomadi kurbatuak eskaintzen dituen behatoki infinituen mende dago beti.

Ez dago behatoki bakar eta idealik, baizik eta guztien batura. Izan ere, Basilika erdiko ardatz handitik ikusteko legokeen aukera bakarra han jarritako obelisko egiptoarrak galarazten du (40 metroko altuera du). Obeliskoa dela eta, alboetara desbideratzen da ikuspegia. Horixe zen, hain justu, Berniniren ideal barrokoaren asmoa.

Gainerakoan, izugarri handia egiten da ardatz axial luze hori, Basilikaren alderik luzeena baino dezente handiagoa. Luzetarako ardatzak luzatze hori etengabe erabili izan da obra harrezkeroko eraikin barroko handietan (Versailles, La Granja, Parisen Haussmannek egindako zabaldura...).

2 Hirigintza barrokoaren obra nagusi horren elipsea egin aurretik, Berninik beste norbaiten aholkua eskatu zuela diote: Juan Caramuel de Lobkowitz teologo, matematikari eta arkitekto espainiarrarena. Igevanoko gotzaina zen sasoi hartan Caramuel. Erromako antzoki nagusitzat jo daiteke Basilika (Koliseoa baino handiagoa da), eta irudikatzen du Elizak Hiriari eta Munduari (*Urbi et Orbi*) ematen dien besarkada (sinestunei, herejeei eta sinesgabeei). Nolabaiteko bitartekaritza kosmologikoa ere irudikatzen duela esaten du zenbaitek.

---

[4] A. Fernández, E. Barnechea eta J. Haro, 1989, 290-291 orr.

[5] *El triunfo de la imaginación. Arte barroco*, 2001.

### Berniniren bizitza eta obra[6]

Migel Anjelena bezala, Berniniren (Napoli, 1598-1680) estiloa ere hainbat iturritatik hornitu zen: Grezia eta Erromako klasizismoa, Caravaggioren naturalismoa, Guido Reniren gorpuzkera-tratamendua... Ikuslea obrara hurbiltzea, hura ekintzaren partaide bihurtzea izan zen artista haren berrikuntza aipagarriena. Hautsi egin zituen, bada, artelanaren ordura arteko mugak. Horregatik, Barrokoaren sortzaileetakotzat jotzen dute adituek. Santa Teresaren *Estasia*, batetik, eta Urbano VIII.aren eta Alejandro VII.aren hilobiak (Vatikanoan), bestetik, dira Berniniren obra hoberenak. Luis XIV.arentzat ere lan egin zuen; besteak beste, errege haren busto bikaina egin zuen. Aldiz, ez zuen parterik hartu Louvre museoaren diseinu-aldaketan, hasieran hala aurreikusita zegoen arren.

## *Pietatea*. Miguel Ángel Buonarroti

Pietatea (1498-1499). Italiar Errenazimentua.
Quattrocento. Marmola. 174 cm-ko altuera.

Semearen gorpua belaunen[7] gainean daukan ama gazte bat: horra hor edertasun neoplatonikoaren definizio plastikorik hoberenetakoa, kristau humanismoaren apaltasun kontzientearen irudikapena. Ez amari ez semeari ez darie gehiegizko oinaze-adierazpen mingarririk, eta bien arteko adin-aldeari ere ez zion garrantzi handirik eman artistak. Eskulturaren alderdi formalei dagokienez, azpimarratzekoak dira bi gorputzak, piramide itxi eta aldeberdin batean. Jean Bilhiéres de Lagraulas kardinalak agindu zion Migel Anjeli Vatikanorako marmolezko Pietate bat egiteko. Egindako lanaz harro, Ama Birjinaren bularraldea zeharkatzen duen bandan izenpetu zuen, letra larritan izenpetu ere.

### Migel Anjelen bizitza[8]

Migel Anjel dugu artistarik artistena: pintorea, eskultorea eta arkitektoa. Haren nortasunaren sendotasuna jenialtasunaren ispilu dugu. Michelangelo Buonarroti Capresen jaio zen, Arezzotik hurbil, 1475eko martxoaren 6an. Familia aberatsekoa zen. Sei urte zituela hil zitzaion ama. Adin horrekintxe ekin zien lehenbiziko gramatika-ikasgaiei. Orduantxe ezagutu zuen Francesco Granicci pintorea, hamabi urteko mutikoa. Graniccik bultzatu zuen Migel Anjel pintatzera. Ez zen aitaren gustuko erabakia izan. Hainbat urtez aita-semeak elkarrekin tirabiran jardun ondoren, amore eman zuen, azkenik, aitak (Lodovico). Migel Anjelek ikasketa administratibo edo komertzialak egitea nahi zuen Lodovicok, baina Domenico Ghirlandaioren estudioan hasi zen semea, hamahiru urte zituela. Han ikasi zituen freskoak egiteko teknikak, eta han landu zuen bere marrazkilari-trebezia izugarria. Ghirlandaioren estudioan egonaldi laburra egin ondoren, eskultura ikasteari ekin zion Medicitarren lorategian, Lorenzo ‘Il Magnificoren’ babespean eta Bertoldo di Giovanni donatellozalearen zuzendaritza artistikopean. Urte zoriontsuak izan ziren haiek Migel Anjelentzat, semeordetzat hartu baitzuen Il Magníficok. Medicitarren jauregian bizi zen, eta hantxe ezagutu zituen Humanismoaren jarraitzaile handienak: Poliziano, Marsilio Ficino, Pico della Mirandola. Medicitarren babespean egin zituen, bada, lehenbiziko eskulturak. Medicitarrek hiriko agintea galdu zutenean, ordea, ihes egin behar izan zuen gure artista gazteak. Veneziara joan zen lehenbizi, Bolognara ondoren. 1495-1496ko neguan itzuli zen Florentziara. Gaztaroko urte haietan hasi zen nabarmentzen Migel Anjelen anatomiarekiko miresmena: ia gauero joaten zen udaleko gorpu-biltegira disekzioak egitera,

[6] *El triunfo de la imaginación. Arte barroco*, 2001.
[7] *Miguel Ángel eta Rafael*, 1999.
[8] *Miguel Ángel eta Rafael*, 1999.

giza gorputzaren barne-egituraketa hobeto ezagutzearren. Mugimendu eta anatomiarekiko miresmen izugarria adierazten dute Migel Anjelen orduko eskulturek, *Zentauromakiak* bereziki. Donatellok ez zuen sekula lortu horrelako mailarik.

1496ko uztailaren 1ean joan zen lehenbizikoz Erromara. Han, aita santuen hirian, agindu zion Vatikanoak *Pietá* obra egiteko. Florentziara itzuli eta *David* egin zuen, baita Palazzo della Signoria jauregiaren kontseilu-aretoaren dekorazioa ere. Cascinako bataila margotzeko agindu zioten Migel Anjeli, Leonardok margotutako Anghiariko batailarekin lehia zedin. Biluziarekiko obsesioa argi erakutsi zuen –beste behin ere– obraren zirriborroan. Sasoi hartako artista gazte askoren eredu bihurtu zen. Azkena aipatutako bi obra horiek desagertu egin ziren, zoritxarrez. 1505ean, Erromara itzultzeko eskatu zion Migel Anjeli Julio II.a aita santu ahaltsuak. Berrogei irudiko hilobi bat egiteko agindu zion, halakoxea baitzegokion hain pertsonaia jasoari. Baina proiektutzar hura, azkenean, hankamotz geratu zen, eta *Moises* eta *Esklaboak* besterik ez zituen egin. Aita santuaren eta artistaren izaerak oso antzekoak zirenez, berehala sortu ziren elkarren arteko enfrentamenduak, nahiz eta miresmen handia zioten elkarri. ‘Hilobiaren tragedia’ deitzen zion Migel Anjelek lan hari. Julio II.ak agindu zion Migel Anjeli bere maisulan gorena ere: Sixtotar Kaperaren sabaia. Lau urte eman zituen hura dekoratzen, 1508tik 1512ra. Nekagarria izan zen lana, ez baitzeukan batere laguntzailerik, eta pintorearen izaera zakarra nabarmendu zuen. Are zakarragoa egin zuten izaera beste zenbait faktorek: berezkoa zuen kontentagaiztasunak, soldata eskasak eta familiaren etengabeko laguntza-eskariak, Buonarroto anaiarenak batik bat. Adierazgarria da aitari 1509an idatzi zion gutun hau: “Bada urtebete aita santuak zentimo bat bakarra ere ematen ez didala. Ez diot dirurik eskatzen, nire lana ez baita ari aurrera egiten behar lukeen modura. Horra, bada, lanaren zailtasuna eta nirea ez den lanbidean aritzearen ondorioak. Inongo probetxurik gabe denbora galtzen ari naiz. Jainkoak lagun nazala”. Beste gutun batean, lehengo bide beretik jarraitzen du: “Atsekabeturik segitzen dut, eta ez oso osasuntsu; lanpeturik, nork agindurik ez dudala eta dirurik gabe”. Julio II.a hil ondoren (1513), hilobitzarraren proiektua murriztu egin zuten haren oinordekoek. Zartateko handia izan zen hura Migel Anjelentzat. Etengabe bidaiatzen zuen Carrarara, lasai eta gustura sentitzen baitzen han, hazi zuen familiaren ondoan. 1534an, Erroman jarri zen bizitzen behin betiko Migel Anjel. Han egin zuen *Azken juizioa*, Sixtotar Kaperan, Paulo III.a aita santuaren aginduz. Vatikanoko pintore, eskultore eta arkitekto izendatu zuen Migel Anjel aipatu aita santuak. Azken juizioan, berriro nabarmendu zuen pintoreak anatomiarekiko miresmena (Kristo bera ere biluzik margotu zuen), eta barrokoaren aitzindari bilakatu zen. Baina moralisten erreakzioa berehala iritsi zen: artean pintorea bizirik zela hasi ziren gorputz biluziak estaltzen. Volterra izan zen zeregin horren arduradunetako bat. Gero eta auzi gehiago sortu ziren Julio II.aren oinordekoekin haren hilobiko lanak zirela eta. Muturreko egoeretara ere iritsi izan ziren. Aita santuaren laguntzari esker atera zen onik Migel Anjel iskanbila haietatik. 1564ko otsailaren 18an hil zen Migel Anjel, Erroman, 89 urte zituela. Martxoan, haren iloba Leonardok ezkutuan eraman zuen Florentziara osabaren gorpua. San Lorenzo elizan egin zizkioten hiletak, ospetsuak egin ere, eta Santa Crocen ehortzi zuten.

**_San Pauloren konbertsioa_. Michelangelo Merisi (Caravaggio)**

San Pauloren konbertsioa (1600-1601).
Santa Maria del Popolo eliza (Erroma). Mihise gaineko olio-pintura: 230 x 175 cm.

## San Pedroren gurutziltzaketa[9]

koadroko hizkera ustez arrunt berbera erabili zuen Caravaggiok beste mirakulu poetiko hau azaltzeko, San Paulok berak kontatua. Kristauak jazartzen zituen soldadu harroa eta gaztea zen Saulo (hala zuen izena orduan). Eguerdi batean, beste hainbat soldadurekin beste hiri batera zihoala, argi ikaragarri kementsu batek zalditik bota zuen. Jainkoaren ahotsak, berriz, galdera hau egin zion: “Saulo, zergatik jazartzen nauzu?”. Itsu geratu zen Saulo hainbat egunez. Kristau-komunitateak lagunduta berreskuratu zuen ikusmena, mirakuluz berreskuratu ere. Kristau bihurtu eta Paulo izena hartu zuen. Oso bestela kontatu zigun istorio hura Caravaggiok, itxurazko arinkeriaz alegia. Kritika zorrotzak jaso izan zituen horregatik: lehenik eta behin, badirudi koadroko eszena ukuilu batean gertatzen dela, esparruaren tamaina itogarria ikusirik. Zaldia, berriz, pertxeroi baldarra da, erabat desegokia Saulo soldadu gaztearentzat. Eta, paradoxaren paradoxa, eszena ez da eguerdian gertatzen, San Pedroren idazkiek zioten legez, gauean baizik. Eszenak arrunt bihurtzen zituzten aldaketa horiek sarritan egin ohi zituen Caravaggiok, Jainkoa eguneroko zereginetan, baita hutsalenetan ere, agertzen zaigula adierazteko. Baldarkeriak baldarkeria, zenbait xehetasunek erakusten digute ikusten ari garen eszenaren transzendentzia jainkotiarra. Hona hemen jainkotasun-aztarna horietako batzuk: zorrotzena, agian, koadroaren erdiko hutsunea da. Beste Norbaiten presentzia adierazten du hutsune horrek, gaztea zalditik eraitsi duenarena hain justu. Bestetik, hor dago argia, irreala eta masiboa, Saulo bete-betean argiztatzen; ez, ordea, morroia. Zalditzarrak, berriz, badirudi Sauloren gainera jausteko zorian dagoela. Otoitzean bezala dago Saulo, besoak zabalduta, erreguka. Itxita daude mutilaren begiak, baina ez da beldurrik antzematen haren aurpegian; estasian dagoela dirudi. Kode eta aztarna horiez baliatzen da Caravaggio, maisuki baliatzen ere, jainkotasunaren presentzia adierazteko eguneroko bizimoduko eszena arrunt batean. *San Pedroren gurutziltzaketa* koadroaren tamaina berekoa da *San Pauloren konbertsioa* (koadro-bikotea da, izan ere), eta tonu aldetik ere badute elkarren antzik (kolore-kidetasunik (kolore-sorta bera, kutsu klaustrofobikoa...).

### Caravaggioren bizitza

1571ko udazkenaren hasieran jaio zen Michelangelo Merisi, hau da, Lepantoko bataila izan zen urte berean. Felipe II.aren eta Liga Santuaren itsas armada turkiarren aurka borrokatu ziren bataila hartan. Hantxe galdu zuen besoa Miguel de Cervantesek. Caravaggio hiriko gorteko goi-funtzionarioa zuen aita. Izurri-epidemia batek harrapatu zuen familia, Milanen zeudela. Aita hil egin zen, eta familia Caravaggiora itzuli zen. Gertakari haiek eragin handia izan zuten Michelangeloren pinturan, artista izateko trebatzen ari zen urteetan bereziki. Garai hartako Italiako familia oso ahaltsuak ezagutu zituen pintoreak, aitaren babesleen bitartez. Humanismoaren eta erreforma katolikoaren inguruko intelektualak eta pentsalariak ziren babesle haietako gehienak.

1584an, bere kabuz itzuli zen Caravaggio Milanera, Simon Peterzano pintorearen tailerrean ikastun gisara jarduteko. Hainbat balio piktoriko transmititu zizkion Peterzanok Caravaggiori: Veneziako kolorea eta sentsualitatea, batetik, eta Lonbardiako argizaletasun errealista, bestetik. Argia, kolorea eta errealitatea nola maneiatu ongi ikasi zuen Caravaggiok. Haren ustez, benetako arte-eredua ez zen ez Errenazimentua ez estatuagintza klasikoa, baizik eta Natura bera. Irizpide hori oinarri harturik, garrantzi bera ematen zien Michelangelok lore edo frutei buruzko koadro bati eta istorio biblikoei buruzko beste bati. Ikuspegi horrek hautsi egin zuen ordura arteko gai-hierarkia. Natura hila pintura-genero autonomo eta baliotsutzat jotzen lehenbizikoetakoa izan zen Caravaggio. Era berean, edertasun-mota bakarra ez, baizik

[9] *Caravaggio*, 1999.

eta asko zeudela uste zuen. Bere gisara interpretatu zituen Caravaggiok bere garaiko pinturaren arauak. Hori zela eta, miresle eta aurkako ugari izan zituen haren pinturak.

Interpretazio oso konplexuko eszenak prestatzen zituen Caravaggiok bezero bakoitzarentzat, kodez beteak: mihise apal bat adierazpen intelektual sofistikatu bihurtzen zuen. Bestalde, nabari da koadroetan Caravaggioren joera homosexuala ere (nahiko frogatua, dirudienez). Modeloetako batzuk koadro askotan ageri dira, eta bere burua ere sarritan margotzen zuen, pertsonaietako bat bailitzan.

Sasoi hartako moralaren aurkako jarrerak ez zituzten begi onez hartu askok eta askok. Erromako 'hanpan' bilatzen zituen koadroetarako modeloak, eta lasai asko ibiltzen zen hiriko gaizkileen artean. Caravaggioren ama birjinak prostitutak izaten ziren; aingeruak, putoak; apostoluak eta santuak, eskaleak. Pertsonaien janzkiak, berriz, orduko modaren araberakoak izaten ziren, ez tunika klasikoak. Koadroetako gizon-emakumeen oinak eta aurpegiak zikinak eta urratuak egoten ziren. Lehiaketak galdu egiten zituzten haren pinturek, eta arbuiatu egiten zituzten Elizaren bezeroek; Erromako eta atzerriko bildumazaleek, ordea, oso gogoko zituzten.

Eskandalu eta pasio-gatazka ugari izan zituen Caravaggiok Erroman. Sarritan atxilotu zuten 1604-1605 urteetan, eta istilu askotan esku hartu zuen. Del Monte kardinalaren eta beste babesle batzuen laguntzari esker ateratzen zen onik liskarretatik. Heriotza-zigorra (lepoa moztea) ezarri zioten istilu larri haietako bategatik, eta Erromatik ihes egin behar izan zuen. Sasoi iskanbilatsu hartakoak dira, dena den, Caravaggioren obra ezagunenetako batzuk. Koadro erlijiosoetan, Jainkoaren Erresuma eguneroko zereginetan eta jende miserablean ere badagoela adierazten zuen, bekatariengan eta Eskrituretatik bazterrera utzitakoengan. Zenbait truku eta efektu erabiltzen zituen pinturak dirdaitsu irudiarazteko: argilunak, kontrapikatuak, pertsonaien keinuak... Funtsezkoa da argia Caravaggioren koadroetan, eremu autonomo gisara baitihardu, beste pertsonaia bat balitz bezala. Denbora modura erabiltzen zuen argia, narrazioaren erritmoa koadroan sarrarazteko. Argi-iturria ez da inoiz ageri mihisetan. Bestalde, artifiziala izaten da argia gehienetan, eta alboko angeluren batetik sartzen da koadrora. Naturaz gaindikoa, Jainkoa adierazten du argiak Caravagioren pinturan. Hala zioten Platonen argi-metafisikak edo San Agustinek ere: Jainkoa argia da.

Etengabeko joan-etorrian eman zituen azken urteak Caravaggiok. Justiziatik ihesi ibili behar hark aldatu egin zuen gure artistaren pintura: areagotu egin zuen errealismoa, eta leundu koloreak. Intentsitate psikologikoa, berriz, lirismo malenkoniatsu sakon bihurtu zen. Caravaggioren koadroetako espazio itogarriak, berriz, hutsune izugarriz bete ziren. 1610eko uztailaren 18an hil zen, Porto Ercoleko hondartzan, erabat bakarrik, pneumoniak edo disenteriak jota.



# 5.1.Pertzepziozko ezagutza

## 5.1.3. Besteen pertzepzioa: irudizkoa

*12. jarduera: Hegoaldeari buruz dugun irudia*

*13. jarduera: Ohiko topikoak*



## Irakasleentzako gida

### *1. Sarrera*

Orain arte gure pertzepzioak eta sentsazioak arte-, literatura- eta musika- munduan aztertu ditugu; unitatearen atal honetan zentzumenen lexikoa eta pertzepzioen analisia, gainerakoak –"desberdintzat" ditugunak batik bat– gure erara hautemanez ikasia aplikatuko ditugu. Besteei buruz ditugun estereotipoak aldatzen ikasteko, lehendabizi, antzematen eta behatzen ikasiko dugu. Horretarako, honako informazio hau proposatzen dugu irakasleentzako euskarri teoriko gisa.

Gure ikuspuntutik, besteen pertzepzioan oinarrizkoena beti irudi bat eraikitzen dela da. G. Durand-ek (2000) uste du gizakiei berez dagokiela sinbolizatzeko gaitasuna[1] –beldur guztiak, esperantza guztiak eta kultur emaitza guztiak sortzen dituena[2]–. J. J. Wunenburger-ek definitzen duen gisa defini dezakegu (G. Durand; 2000:9-10):

> *"Irudizkoak, askoz zabalago hartuta, irudi mental eta bisualen multzoa irudikatzen du, (...) gizabanakoak, gizarteak, gizateria osoak antolatu eta sinbolikoki adierazten ditu bere balio existentzialak eta munduaren interpretazioa denborak eta heriotzak ezarritako erronken aurrean. Irudizkoa (...) kategoria antropologikoa, funtsezkoa eta sintetikoa, bilakatzen da horrela, eta horren bidez artelanak eta arrazoizko errepresentazioak (ondorioz zientzia) uler daitezke, azken finean kultura osotasunean."*

Baina irudia eraikitzea, gizakiari eta kulturari berez badagokie ere, gutxitan lortzen da pertsona horrek besteekin harremanean dituen pertzepzioak "heztea". Ikasleek, gizarteko gainerako kide guztiek bezala, ia kontrolik gabe, irudizko mundu pertsonala eratzen dute eta irudi kolektiboek ere eragiten diete.

---

[1] 8. jarduerako dokumentazio osagarria kontsulta daiteke, sinbolismoari buruzkoa.

[2] Irudizkoaren analisiak, XX. mendearen erditik aurrera, sakonera-psikologiaren laguntza zientifikoa izan du, baieztapen anatomiko-fisiologiko eta etologikoena, basatiaren eta ohikoaren psikologiarena, mitokritika eta mitoanalisi durandarrarena, zientziaren beraren irudizko alderdiarena eta sinboloaren ikerketa traszendentearena.

Kontrol falta horren ondorioz, besteen gaineko irudiak oso gogorrak dira, eta gure erantzuna (emozioak eta jarrerak) baldintzatzen dute harekin kontaktuan jartzean.

Irudizko munduak bi dimentsio ditu: banakako irudizkoa eta irudizko kolektiboa, eta bina alderdi dituzte: inkontzientea edo kontrolik gabea bata eta kontrolatua bestea.

### Irudizko mundu pertsonala

Irudizko mundu pertsonalean, lehenik, norberak besteengandik jaso dituen pertzepzio inkontzienteak –edo kontrolik gabeak gutxienez– daude. Baina, nola eragiten dute pertzepzio horiek besteen ezagutzan? Galdera horri erantzun ahal izateko, bi une ezberdin aztertuko ditugu: gure pertzepzioak nola sortzen diren eta nola interpretatzen ditugun.

Pertzepzioaren prozesu kognitiboari dagokionez, gizakiak bere erara hauteman eta antolatzen du ingurunea beti. Zehazki, hautemandako mundua egituratzeko modua ez dago bere nerbio-sistema zentralaren baitan bakarrik, baita errealitatearen pertzepzioarekin batera doazen behar, balio, sineste eta norberari buruzko kontzeptuen baitan ere. J. L. Martorell-ek (2000), ildo horretan, iragazkien kontzeptua azpimarratzen du behin eta berriz, betaurrekoekin metafora eginez. Dioenez, pertsonek beren iragazkiek inposatzen dizkieten betaurrekoekin jarduten dutenean, ez dute behar, suposatzen dutena baieztatzen dieten gauzak gertatzea beti, izan ere, betaurrekoak eurak arduratzen dira hala gertatzen denean garrantzia emateaz eta gainerakoetan kentzeaz[3]. Horrela, berez betetzen den profezia bat betez bizi da pertsona. Azken finean, iragazkiek betaurrekoak jartzen dituzte norberaren burua eta gainerakoak modu jakinean hautemateko; behin era horretan hautemanda, jarrera ere hauteman eta "probatzen" den horretara egokitzen da; behin eta berriz probatuta, pertzepzioa indartu egiten da. Elkartasunean hezteko zailtasunetako bat da norberaren buruaren pertzepzioak eta besteenak, iragazkiei lotuta daudenak, iragazkaitzak direla eta informazio hutsari ere ez diotela pasatzen uzten. Ondorioz, informazioak kontrakoa esan arren sinesmen horiei eusteko, errealitatea berriro definitzen da. Errealitatea berriz definitzea nik horretan ikusi behar dudanera egokitu arte behartzea da. Definizio berriak nahiko argi ikusten dira hizkuntzan: adibidez, gehiegizko orokortzeak edo muturreko zehaztasunak, maximizatu eta minimizatzea, exageratu eta ezereztea, berriz definitzeko mekanismoak dira.

Pertzepzioen bigarren unea, horien interpretazioa da. M. Marroquín eta A. Villa-ren ustez (1995), interpretazio hori (eta ondorioz gertatzen diren aldaketak), bi arlotakoak dira: *pentsamenduen arloa eta sentimenen arloa.*

Lehenengoan, garrantzi nabarmena dute barne-komunikazioak –barne-elkarrizketek edo barne-esaldiek osatua–, gure irudimenean pilatzen diren irudiek eta pentsamendu automatikoak (kontrolatzen zaila). Azken horren osagaiak, gainera, ez dira esaldiak, "*baizik eta hitz solteak, edo esaldi-zatiak, bat-batean gure zeru psikikoan sortzen direnak eta nahiko jatorri ezaguneko arrasto emozionalak uzten dituztenak*". Horregatik, pentsamenduen arloari dagozkion aldaketa eta distortsio asko nahiko zailak dira antzematen, txiki-txikitatik gure sinesteen artean txertatu baititugu.

Sentimenen arloan arazoa konplexuagoa da, pentsamendu, sentimen (emozio) eta ekintzen arteko lotura estuaren ondorioz. Esanahi pertsonala goian aipatutako fenomeno horiek itxuraldatutako pentsamendu askok osatzen dute. Eta barne-elkarrizketak, askotan, ideia irrazionaletan oinarritzen denez, objektiboki ezegokiak diren sentimen edo emozioak eragin ditzake.

Pertzepzioez gain, norberaren irudizkoa esperientzia pertsonalek osatzen dute, hain zuzen ere, inguruko estimuluek eta, ondorioz, besteek eragindako esperientzia pertsonalek. Esperientzia horiek guztiek osatzen dute gizabanakoaren oroimena. Oroimen horrek, J. B. Best-ek azaltzen duenez (2001:83-120),

[3] Fenomeno horrek pertzepzioak norberaren esperientzietan ere eragina izatea eragiten du, aurreraxeago ikusiko dugun bezala.

biltegiratzeko, berkodetzeko eta elkarrekikotasunak ezartzeko funtzioa duenez eta pertzepzioak eta bere distortsioek gizabanakoaren esperientzien maiztasunean eta, batik bat, balorazioetan eragiten dutenez, oso garrantzitsua da adostasuna errazten duten esperientziak eta desadostasunera bideratzen dutenak bereiztea. Aurreraxeago azalduko ditugu bi kontzeptu horiek.

### Irudizko mundu soziala

Hala ere, pertsona baten irudizko munduan ez dago norberaren dimentsioa soilik, baita irudizko mundu sozialaren etengabeko eragina ere, hau da, beste talde batzuen gainean egiten ditugun mitifikazio sozialak, idealizazioak eta demonizazioak. Irudizko mundu sozialak aparteko erresistentzia du (horrek asko zailtzen du bere transformazioa) eta gugandik ezberdina denak sortzen digun beldurra islatzen du.

Irudizko sozialean esateko asko dute elementu sozializatzaile nagusiek (familia, eskola, komunikabideak, pare-multzoa, hizkuntza...)[4], gainerakoak hautemateko funtsezkoak diren balio eta kontrabalioak ere transmititzen dituzte. Horietatik ikasten dugu gero gure jarrera zehaztuko duen irudiarekin sinbolizatzen ditugun datuak hautatu eta manipulatzen.

### Identitate ezberdina ematea: adostasun-esperientziak eta desadostasun-esperientziak

Irudizko mundua osatzeak besteei nortasun ezberdina ematea dakar, bi esperientzia-motaren bidez: diskriminazioa (positiboa edo negatiboa) eragiten duten desadostasun-esperientziak eta elkartasunera eta bizikidetzara bideratutako adostasun-esperientziak.

Desadostasun-esperientzia horiek deskribatzeko Amani Kolektiboaren hausnarketak baliatuko ditugu (1994:65-78). Dioten gisan, talde jakin batekoa izateak taldekideak eta hortik kanpokoak desberdin hautematera garamatza. Pertzepzio-mota horretan, lehenik, identitate sozialak –konparatuz eta bereiztuz lortzen duguna– eragiten du. Hala ere, litekeena da identitate sozial horren pertzepzioa, hasieratik, fenomeno-sorta oso garrantzitsu batek markaturik egotea. Adibidez, taldeen arteko gatazketan endotaldeko faboritismoa sortzen da beti, eta horrek taldeen arteko aldeak eta talde barruko antzekotasunak areagotzen ditu. Gure taldeari mesede egiteko modu bat besteak gutxiestea da, eta horretarako, taldeek endotaldeko faboritismora soilik ez, exotaldea homogeneizatzera ere jotzen dute, hau da, taldekideen banakotasuna ezabatzera. Fenomeno horiek guztiek ondorio bera eragiten dute: gure taldea hobeto balioesten dugu, kohesio gehiago eta beste talde batzuek baino aniztasun handiagoa duela ikusten dugu, eta beste taldeak gugandik oso ezberdinak eta beraien artean oso homogeneoak (estereotipatuak) iruditzen zaizkigu.

Fenomeno horiek gertatzen direnean, ñabardurarik gabeko pertzepzio-esperientzia baten edo besteekiko desadostasun-esperientzia baten aurrean gaude, gatazka sozialak edo besteak gutxietsita aurkezteak eragina. Orduan, pertzepzioa estereotipoz betetzen da. Honela defini daitezke estereotipo horiek (Amani Kolektiboa; 1994:65-78):

- *Talde bati egozten zaizkion ezaugarriak.*
- *Talde bateko kideen irudi mental sinplifikatua, gizartean zabaldua.*
- *Talde bateko kideei ezaugarri jakin batzuk egozten dizkieten sineskeriak.*

Ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- *Aldaketak oso ondo jasaten dituzte. Kontrako ebidentziak daudenean ere ez dira aldatzen.*
- *Errealitatea sinplifikatzen dute.*

[4] Elementu sozializatzaileei buruzko informazio sakonagoa nahi izanez gero: A. Giddens, 1991, 109-112 orr.

- *Orokortu egiten dute.*
- *Informazioa zalantzazkoa denean, osatu egiten dute.*
- *Itxaropenak bideratzen dituzte.*
- *Estereotipoarekin bat datorren informazioa errazago gogoratzen dugu.*

Baina, estereotipoekin batera, pertsonak aurrekontzeptu edo ideia batzuk ere martxan jartzen ditu, irrazionalak edo, gutxienez, oraindik hausnartu gabeak, oso zuhurra ez den pentsamendu automatikoaren fruituak.

Aurrekontzeptu eta estereotipoekin, pixkanaka, pertsonak aurreiritzi bat sortzen du. Emozio- eta ekintza-elementuak dituzten aurreiritziak dira (Amani kolektiboa; 1994:65-78): *"Egiaztatu gabeko aurrepaiketa, izaera mesedegarria edo kaltegarria duena, pertsona bati edo talde bati buruzkoa, ekintzarako joera duena zentzu kongruentean"*. Beraz, osagai kognitiboa (zer pentsatzen dudan edo aurrekontzeptua), emozionala (zer sentitzen dudan) eta konatiboa (nola jarduten dudan) dituzte. Estereotipoak bezala, horiek ere positiboak edo negatiboak izan daitezke, eta gizabanako bati edo talde bati dagozkionak.

Azkenik, aurreiritziek diskriminazioa ekartzen dute (positiboa edo negatiboa), besteekin arerio gisa jokatzea, alegia. Amani Kolektiboak deskribatzen duen bezala (1994:65-78), zuzena (eraso fisiko edo hitzezkoen bidez), edo zeharkakoa izan daiteke, ohikoena (legeriaren, hizkuntzaren, curriculum ezkutuaren, jarreren eta abarren bidez).

Besteekin izandako adostasun-esperientziek, ordea, izakien arteko harremana berdintasunezkoa izatea eskatzen dute; zenbat eta gizabanako bereiziagoak, hobe (norbera izatearen garrantzia eta balioa). Gainera, pertzepzio enpatikoak behar ditu. Enpatia honela defini dezakegu (C. Castilla del Pino; 2000: 343): *"1. kontaktu-gaitasuna. 2. onartzen dugun objektu batekin harremanean jarduten dugunean sentitzen dugun atsegina. Objektu batekin gustura gaudenean eta harekin ditugun harremanetan enpatizatzen dugu. Norbaitekin enpatizatzeko gustuetan, ideologian, sentimen estetiko edo etikoetan bat egin behar dugu. Baina horrek ez du esan nahi enpatizatzen dugun hura atsegin dugunik; gerta liteke atsegin ditugun pertsona askorekin ez enpatizatzea ere"*[5].

Pertzepzio enpatikoari adierazpen-kontzeptuen defentsa gehitu behar zaio. O. Castanyer-ek (1999) honela definitu du asertibitatea: *"Norberaren eskubideak berresteko gaitasuna, besteek manipula gaitzaten utzi gabe eta guk besteak manipulatu gabe. Pentsamendu-eredu batzuk, erantzun emozional eta sentimental jakin bat eta kanpo-portaera jakin bat eskatzen ditu".*

Horrek guztiak elkartasunaren kulturara garamatza, errealitatea hautemateko sentimena lantzeko eta horrekin bizi ahal izateko lekura. Eta bizikidetza hori ziurtatzeko modu bakarra adostasuna berdinen arteko hurbiltze antropologikoa, enpatikoa eta adierazpenezkoa izatea da.

Amaitzeko, "besteen" pertzepziozko ezagutzaren prozesua azaldu dugu eskema honetan.

[5] H. Cornelius-ek eta S. Faire-k (1995) komunikazio enpatikoari laguntzen eta eragozten dioten faktoreez jardun dute.


BESTEEN PERTZEPZIOA
IRUDIZKO MUNDUA ERAIKITZEA
IRUDIZKO MUNDU PERTSONALA
IRUDIZKO MUNDU SOZIALA
PERTZEPZIO INKONTZIENTEAK
ESPERIENTZIA PERTSONALAK
INKONTZIENTE KOLEKTIBOA
ELEMENTU SOZIALIZATZAILEEN ETA ONDORENGO IRITZIEN BIDEZ BALIOAK SINBOLIZATZEA
IDENTITATE EZBERDINA EMATEA
ÑABARDURARIK GABE (DESADOSTASUNA):
• EZBERDINTASUNAK AREAGOTU
• BESTEAK HOMOGENEOAK ETA DESBERDINDU GABEAK
ÑABARDURA DUENA (ADOSTASUNA):
• ANTZEKOTASUNAK AREAGOTU
• GIZABANAKOAK BEREIZI
PERTZEPZIO ETA EMOZIO ESTEREOTIPOAK
AURREKONTZEPTUAK
PERTZEPZIO ETA EMOZIO ENPATIKOAK
ADIERAZPEN-KONTZEPTUAK
AURREIRITZIAK
EZAGUTZA HETEROGENETIKO SOLIDARIOA
DISKRIMINAZIOA
BIZIKIDETZA
DESADOSTASUNA
ADOSTASUNA

## 2. Helburuak

- Espiritu kritikoa sustatzea, lehenik kontziente izanik eta gero, gure estereotipoak eta aurreiritziak baztertuz.
- Hizkuntzari buruzko hausnarketaren garrantzia aintzat hartzea, norberaren hizkuntza-produkzioak eta horiek besteekin dugun jarreran duten eragina erregulatzeko.
- Enpatia edo besteekin identifikatzea (ideia, sentimen eta sentsazio unibertsalen eramaile gisa) garatzea.

## 3. Jardueren segida

### 12. jarduera: Hegoaldeari buruz dugun irudia

- *Deskribapena:* Hasieran, ikasleek Hegoaldeko herrialderen batean bizi den pertsona baten “argazki mentala” egin behar dute. Gero, irudi horrek eragiten dizkien sentsazioei, ideiei eta emozioei behatuko diote. Ondoren, irudi hori neska gazte indiar baten benetako irudiarekin konparatuko dute. Azkenik, analisi hori bera baliatuko dute irudi mentalaren eta benetakoaren arteko aldea ikusteko. Ikaskide guztien arteko elkarrizketarekin amaituko dugu: zer estereotipo ezartzen diegu herrialde horiei? Zer aurreiritzi dugu Hegoaldeko jendeari buruz? Egokia al da Hegoaldea izendapen generikoa erabiltzea hain errealitate konplexuaz hitz egiteko?
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 13. jarduera: Ohiko topikoak

- *Deskribapena:* Pertzepziozko ezagutzaren bloke osoa amaitzeko, beste jarduera bat proposatzen dugu, pertzepziozko topikoaren eta pertzepzio ñabartuaren eta beste pertsona batzuen pertzepzio bereiziaren arteko kontrastearen bidez hausnarketa sustatzea helburu duena. Ikasleak sei taldetan banatuko ditugu. Hiru talderi ijitoak, magrebtarrak eta Saharaz azpiko afrikarrak nola irudikatzen ditugun aztertzea proposatuko diegu. Eragiten diguten sentsazioen azterketa eta talde sozial horien deskribapen orokorra egingo dute. Beste hiru taldeek ere gauza bera egingo dute, baina pertsona konkretuekin: Joaquín Cortés, Zinedine Zidane eta Kofi Annan. Azkenik, talde guztien pertzepzio eta deskribapenak erkatuko ditugu. Ziurrenik pertzepzioak oso desberdinak izango dira, zergatik? Ez al gara bada pertsona berberez ari?
- *Beharrezko materiala:* Talde bakoitzarentzako proposatzen den materiala.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutu saio bat.

## 12. jarduera

# Hegoaldeari buruz dugun irudia

1

*Herrialde “azpigaratu” edo Hegoaldeko deritzenei buruz informazio asko erabiltzen ohituta gaude. Pentsa ezazu, errealitate horri buruz ari garenean, norbaitek ez dakiela nori buruz ari garen. Herrialde horiek nolakoak diren, jendea han nola bizi den, nolakoak diren... kontatzeko eskatu dizu, baina ez hitzekin, irudi baten bidez baizik. Zuk irudizko argazki bat egin behar duzu. Baina ez duzue argazki-makinarik erabiliko horretarako, irudimenean egingo duzu argazkia. Hegoaldeko herrialde bateko eszena bat irudikatu behar duzu eta argazki horretan nor jarriko zenukeen erabaki. Gizon bat, emakume bat edo haur bat. Pentsatu zertan ari den eta nola dagoen ere (kezkatuta, pozik, triste...). Sakatu argazki-makinako botoia.*

2

*Behin argazkia “atera” eta gero, behatu une batez. Jarri arreta argazkiko xehetasunen batean (aurpegia, paisaia...). Irudi horrekin, bete honako sentsazioen taula hau.*

| Argazkiaren xehetasuna / Sentsazioak | | |
|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | |
| **Entzumenekoak** | | |
| **Usaimenekoak** | | |
| **Dastamenekoak** | | |
| **Termikoak** | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | |
| **Ukimenekoak** | | |
| **Zenestesikoak** | | |
| **Esterognosikoak** | | |

3

*Lagunak ikuspegi osoagoa izan dezan, idatzi zure argazkiak islatzen dituen hiru ideia nagusiak. Gero, erabaki argazkiak Hegoaldeko pertsona horri buruz zer hiru emozio edo sentimen eragiten dizkizun.*

| Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena |
|---|---|
| 1. ideia | 1. sentimena |
| 2. ideia | 2. sentimena |
| 3. ideia | 3. sentimena |

4

*Jarduera berbera egitea proposatzen dizugu orain, baina oinarri gisa, zeuk irudikatutakoa hartu beharrean, benetako irudi bat hartuz egitea gonbidatzen dizugu. Rahsmi Gamit da hau, Gujerat-en –Indiako 28 estatuetako bat– bizi den neskatila. Rahsmi-k 18 urte ditu eta irakasle-ikasketak egiten ari da. Goizero, Irakasle Eskolara joan aurretik, herrixkako putzura joaten da ur bila. Une horretan argazki bat ateratzen uzteko eskatu diogu. Rahsmi-k irribarre egin eta eskuak elkartuz agur egin digu, "namasté", argazkia egin dezakegula adierazteko.*



## 5

*Taulan dauden xehetasunak aintzat hartuta, idatzi sortzen dizkizun sentsazioak.*

| Argazkiaren xehetasuna / Sentsazioak | Rahsmi-ren aurpegia | Ura | Rahsmi-ren arropa | Paisaia |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

## 6

*Hautatu orain Rashmi-ren argazkiak eragiten dizkizun hiru ideia eta hiru sentimen nagusiak.*

| Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena |
|---|---|
| 1. ideia | 1. sentimena |
| 2. ideia | 2. sentimena |
| 3. ideia | 3. sentimena |

## 7

*Azkenik, erkatu taulak. Gainerako ikaskideekin, hitz egin gai hauei buruz:*

- *Zer alde nagusi dituzte taulek?*
- *Zergatik daude alde horiek?*
- *Hegoaldeaz dihardugunean, herrialde desberdin bat baino gehiago ditugu mintzagai, nork bere errealitate kultural, politiko eta soziala dutenak. Hala ere, guztiak errealitate homogeneo baten osagaiak direla dirudi. Hori zergatik gertatzen dela uste duzue?*
- *Gainera, herrialde horien errealitate konplexua errealitatearen alderdi batekin soilik lotzen dugu: pobrezia, marjinazioa, hondamendiak, bortxakeria... Alderdi hori egiazkoa bada ere, ez ditu egiazko alderdi guztiak biltzen, positiboak falta dira. Hegoaldeko herrialdeek zer balio eta errealitate positibo dituztela uste duzu?*
- *Zer egin dezakegu errealitatearen antz handiagoa duen irudia izateko? Nola egin diezaiekegu aurre Hegoaldeko pertsonei buruz ditugun aurreiritziei?*



## 13. jarduera

# Ohiko topikoak

1

*Gure gizartean beste kultura batzuetako pertsonekin bizi gara. Taldean, beste kultura bateko pertsonengana nola hurbiltzen garen aztertu behar dugu. Azken finean, horiei buruz aurreiritzirik dugun edo ez hausnartuko dugu.*

### *1. taldearentzako materiala*

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta ijito bat ikusten duzuela. Irudikatu une batez zehazki nolakoa den: gizonezkoa edo emakumezkoa den, fisikoki nolakoa den, nola dagoen jantzita, une horretan zertan ari den... Datu horiekin, osatu taula hau.*

| *Ijitoa* | *Deskribapen fisikoa* |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........................ | ........................ |
| 2: ........................ | ........................ |
| 3: ........................ | ........................ |
| 4: ........................ | ........................ |
| 5: ........................ | ........................ |
| 6: ........................ | ........................ |
| 7: ........................ | ........................ |
| 8: ........................ | ........................ |
| 9: ........................ | ........................ |
| 10: ........................ | ........................ |

*b) Irudi horri arretaz behatu eta osatu eragiten dizkizuen sentsazioen taula.*

| Ijitoa-xehetasuna / Sentsazioak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

*c) Hartu berriz zuen eszena. Imajinatu orain pertsona hori hurbildu eta euro bat eskatzen dizuela telefonoz deitzeko. Pentsatu zer erantzungo zenioketen eta nola. Azaldu idatziz irudikatu duzuen eszena.*

## *2. taldearentzako materiala*

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta magrebtar bat ikusten duzuela. Irudikatu une batez zehazki nolakoa den: gizonezkoa edo emakumezkoa den, fisikoki nolakoa den, nola dagoen jantzita, une horretan zertan ari den... Datu horiekin, osatu taula hau.*

| *Magrebtarra* | *Deskribapen fisikoa* |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........ | ........ |
| 2: ........ | ........ |
| 3: ........ | ........ |
| 4: ........ | ........ |
| 5: ........ | ........ |
| 6: ........ | ........ |
| 7: ........ | ........ |
| 8: ........ | ........ |
| 9: ........ | ........ |
| 10: ........ | ........ |

*b) Irudi horri arretaz behatu eta osatu eragiten dizkizuen sentsazioen taula.*

| Magrebtarra-xehetasuna / Sentsazioak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

*c) Hartu berriz zuen eszena. Imajinatu orain pertsona hori hurbildu eta euro bat eskatzen dizuela telefonoz deitzeko. Pentsatu zer erantzungo zenioketen eta nola. Azaldu idatziz irudikatu duzuen eszena.*

## *3. taldearentzako materiala*

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta Saharaz azpiko afrikar bat ikusten duzuela. Irudikatu une batez zehazki nolakoa den: gizonezkoa edo emakumezkoa den, fisikoki nolakoa den, nola dagoen jantzita, une horretan zertan ari den... Datu horiekin, osatu taula hau.*

| ***Saharaz azpiko afrikarra*** | ***Deskribapen fisikoa*** |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........................ | ........................ |
| 2: ........................ | ........................ |
| 3: ........................ | ........................ |
| 4: ........................ | ........................ |
| 5: ........................ | ........................ |
| 6: ........................ | ........................ |
| 7: ........................ | ........................ |
| 8: ........................ | ........................ |
| 9: ........................ | ........................ |
| 10: ........................ | ........................ |

*b) Irudi horri arretaz behatu eta osatu eragiten dizkizuen sentipenen taula*

| Saharaz azpiko afrikarra-xehetasuna / Sentipenak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

*c) Hartu berriz zuen eszena. Imajinatu orain pertsona hori hurbildu eta euro bat eskatzen dizuela telefonoz deitzeko. Pentsatu zer erantzungo zenioketen eta nola. Azaldu idatziz irudikatu duzuen eszena.*

## 4. taldearentzako materiala

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta, bat-batean, Joaquín Cortés dantzari ospetsua ikusten duzuela. Behatu une batez bere ezaugarri fisikoei. Nola deskribatuko zenukete?*

| *J. Cortés* | *Deskribapen fisikoa* |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........ | ........ |
| 2: ........ | ........ |
| 3: ........ | ........ |
| 4: ........ | ........ |
| 5: ........ | ........ |
| 6: ........ | ........ |
| 7: ........ | ........ |
| 8: ........ | ........ |
| 9: ........ | ........ |
| 10: ........ | ........ |

*b) Zer sentsazio eragiten dizkizue?*

| J. Cortés-xehetasuna / Sentsazioak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

*c) Itzuli hasierako eszenara. Imajinatu orain Joaquín Cortés bera zuengana datorrela. Ez dakizue zuengandik zer nahiko duen. Erabat harrituta geratu zarete, txanpon bat eskatu baitizue telefonoz deitzeko. Nola erreakzionatuko zenukete? Zer esango zeniokete?*

## *5. taldearentzako materiala*

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta, bat-batean, Zinedine Zidane futbolari ospetsua ikusten duzuela. Behatu une batez bere ezaugarri fisikoei. Nola deskribatuko zenukete?*

| *Zidane* | *Deskribapen fisikoa* |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........ | ........ |
| 2: ........ | ........ |
| 3: ........ | ........ |
| 4: ........ | ........ |
| 5: ........ | ........ |
| 6: ........ | ........ |
| 7: ........ | ........ |
| 8: ........ | ........ |
| 9: ........ | ........ |
| 10: ........ | ........ |

*b) Zer sentsazio eragiten dizkizue?*

| Zidane-xehetasuna / Sentsazioak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

*c) Itzuli hasierako eszenara. Imajinatu orain Zidane bera zuengana datorrela. Ez dakizue zuengandik zer nahiko duen. Erabat harrituta geratu zarete, txanpon bat eskatu baitizue telefonoz deitzeko. Nola erreakzionatuko zenukete? Zer esango zeniokete?*

## *6. taldearentzako materiala*

*a) Pentsa ezazue egun batez kalean zabiltzatela eta, bat-batean, Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusia, Kofi Annan, ikusten duzuela. Behatu une batez bere ezaugarri fisikoei. Nola deskribatuko zenukete?*

| *Kofi Annan* | *Deskribapen fisikoa* |
|---|---|
| Ezaugarriak:<br>1: ........ | ........ |
| 2: ........ | ........ |
| 3: ........ | ........ |
| 4: ........ | ........ |
| 5: ........ | ........ |
| 6: ........ | ........ |
| 7: ........ | ........ |
| 8: ........ | ........ |
| 9: ........ | ........ |
| 10: ........ | ........ |

*b) Zer sentsazio eragiten dizkizue?*

| Kofi Annan-xehetasuna / Sentsazioak | Azala | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

c) Itzuli hasierako eszenara. Imajinatu orain Kofi Annan bera zuengana datorrela. Ez dakizue zuengandik zer nahiko duen. Erabat harrituta geratu zarete, txanpon bat eskatu baitizue telefonoz deitzeko. Nola erreakzionatuko zenukete? Zer esango zeniokete?

## 2

Behin taula guztiak bete eta gero, izendatu taldearen ordezkaria, zuen erantzunak gainerako ikaskideei azal diezazkien. Talde guztiek ez zeneuzkaten pertsonaia berberak. Kontuan hartu sentsazio eta deskribapenetan dauden aldeak. Ikaskide guztien artean, erantzun galdera hauei:

- Zer alde dago ijitoa irudikatu duen taldearen eta Joaquín Cortés irudikatu duen taldearen erantzunen artean?
- Eta magrebtarra eta Zidane irudikatu dituztenen artean?
- Eta Saharaz azpiko afrikarra eta Kofi Annan irudikatu dituztenen artean?
- Zer jarrera dugu, hasieran, ijitoengana hurbiltzen garenean?
- Eta magrebtarrengana hurbiltzean?
- Eta afrikarrengana hurbiltzean?



# 5.2. Emoziozko ezagutza

## 5.2.1. Sentimenak

*14. jarduera: Hitz zehatzak*

*15. jarduera: Emozioen izenak*

*16. jarduera: Hunkitzeko artea*

## Irakasleentzako gida

***1. Sarrera***

### Emoziozko heziketa

Unitatearen atal honetan emoziozko ezagutza izango dugu aztergai, eta, horretarako, aurreko blokeko pauso berak emango ditugu:

1. Emoziozko lexikoa ezagutu eta emozioak (norberarenak eta besteenak) sailkatu.
2. Artearen emoziozko ezagutza artearen bidez.
3. Norberaren emoziozko ezagutza.
4. Besteen emoziozko ezagutza.

Ikusi dugun bezala, ezagutzaren emoziozko alderdiak gainerako hierarkia berbera du eta heztea zaila izango da, baina funtsezkoa.

Gainera, pentsamendu heterogenetiko batean hezteak adimenean du jatorria, hiru alderdi horien lotura, ez batasuna, gertatzen den lekuan. Garunaren ezker hemisferioa nagusiki logikoa, analitikoa eta arrazoizkoa da, eta eskuinekoa, intuitiboa, orokorra, emozionala eta metaforikoa. Eskuin hemisferioaren izena belztu eta, ia-ia, atrofiatzeko joera –horren ondorioa izan da lehen aipatutako lobotomia soziala– zabal-zabal ibili da XX. mendearen zati handi batean, eta joera horren alde egin dute mitifikatutako zenbait gezurrek: emozioa primitiboa da; logikaren aurrekoa eta arriskutsua; kontzientzia okertu eta distortsionatu egiten du; autokontrola sentimenen errepresioarekin identifikatzea, etab. Emoziozko adimenak (D. Goleman; 1996) eta beste garapen moderno batzuek mendebaldeko joera hori zuzendu nahi dute.

Bi arazo nagusi ditugu emoziozko heziketa honetan. Lehenik, afektuak, emozioak eta sentimenak hitzez adierazteko arazoa dugu, eta bigarrenik, autore batzuek emoziozko analfabetismo izendatu dutena.

Horrek pertsonen barne-adimena (nork bere burua ezagutu, kontrolatu eta motibatzeko gaitasuna) eta pertsona artekoa gutxiago garatzea dakar (enpatikoki besteen lekuan jartzeko eta besteekin harremanak izateko gaitasuna); H. Gardner-ek landutako terminoak dira horiek biak (1994). Emozio-atrofia hori honela deskriba daiteke: norberaren sentimenak eta besteenak, adierazpen orokor eta zehaztugabeetatik kanpo, antzemateko gaitasunik eza eta modu positibo eta konstruktiboan bideratzeko zailtasuna.

Aztergai dugun gaia benetan aberatsa bada ere, ez luzatzearren, sentimenen funtzioetan jarri dugu arreta. Funtzio horiek emango dizkigute sentimen bat egokia den edo ez jakiteko gakoak, eta egiteko hori bete beharko dute ikasleek ondorengo jardueren bidez. Horri buruz, C. Castilla del Pino-k (2000) egin duen azterketan oinarritu gara. C. Castilla del Pino-rentzat sentimenek hiru funtzio nagusi bete behar dituzte:

Lehenik (2000:53-59), **objektuekiko loturak** subjektuak prozesu kognitiboak eta desira-prozesuak bateratzea eskatzen du. Ikuspegi horretatik, subjektuak onartzeko edo baztertzeko nahi du objektua, eta sentimenak oinarrizko desiraren forma bereiziak dira, ingurunea antolatu eta horretara egokitzeko bitartekoak. Azken finean, lotura afektiboa ez da zuzenean objektuekin egiten, subjektuak berak horien gainean eraikitako irudiekin baizik. Subjektu-objektu harremana gatazka-iturria izaten da beti, horregatik, oreka lortzea garaipena lortzea da.

Bigarrenik (2000:61-73), sentimenek zerbait adierazten dute. **Adierazpena**, gehienetan, ez da hitzezkoa izaten, eta sentimenaren oreka-ezak sortzen duen tentsioak eragiten du. Horren sintomak sentitzen dituenak berak soilik antzematen ditu batzuetan, eta ingurukoek beste batzuetan. Hala ere, ez dira nahastu behar sentitzen den sentimena, horrekin batera gertatzen diren aldaketa somatobiszeralak eta horien adierazpena.

Azkenik (2000:75-96), sentimenek errealitatea **axiologikoki eta subjektiboki antolatzeko** balio dute. Subjektua, bere bizitzan zehar, bereziki objektu batez kezkatzen da: bera eta bere gorputza. Horrela, subjektuak errealitatearen iritzi subjektiboa izaten du eta erreferentzialtasun- edo objektibotasun-ilusioan jausten da. Horrek guztiak ondorio bat baino gehiago du: errealitatearen menpekotasuna, objektuen ordenazio subjektiboa, habitata eraikitzea, besteekin partekatutako errealitatean ordena bat ezartzea eta errealitatea itxuraldatzea. Antolamendu axiologiko horrek hainbat zati ditu, eta balio pertsonalen taula osatzean amaitzen da.

Hiru funtzio horiei buruzkoa da ikasleentzat erantsi dugun sentimen egoki edo desegokien taula.

Unitatearen atal honetan proposatu ditugun jarduerak gure ikasleen artean dauden bi hutsune horiek konpontzeko proposatu ditugu. Norberaren emozioak hobeto ezagutzeak (antzematen, izendatzen eta aztertzen jakitea) munduan egoteko beste modu bat eta, ondorioz, beste harreman batzuk izatea dakarrela sinesteak animatu gaitu horretara.

Ikuspegi horretatik, hainbat jarduera proposatzen zaizkie ikasleei; besteak beste, emozioak izendatzeko hizkuntza aberatsagoa eta zehatzagoa ikastea, eta, Puccini-ren musika pieza bat edo Renoir-en koadro bat emozioen bidez gozatzea.

Baina badakigu, jarduera horiek berriak direla eta hainbat zailtasun sor ditzaketela, bai didaktikaren bai kontzeptuen aldetik; horregatik, sentimenei buruzko bi taula erantsi ditugu ikasleentzat. Jarduerak egiteko, horietara jo dezakete ikasleek.

## Ikasleentzako taulak

*Lehenengo gaian bezala, honako taula hauek ikasleek eskura izan ditzaten fotokopiatzea komeni da, bloke honetako jarduerak egin ahal izateko.*

### 1. Sentimenen lexikoaren taula[1]

| Tribuak | Klanak |
|---|---|
| I: Bultzada, behar edo motibazio baten esperientzia | Desioa, irrika, grina, gutizia, bortxa |
| II: Higuin fisiko, psikologiko edo moralaren esperientzia | Nazka |
| III: Norberaren bizitasun eta energiaren esperientzia | Adorea, euforia |
| IV: Norberaren bizitasun eta energia faltaren esperientzia | Adore falta, ahultasuna, gogo falta |
| V: Aldaketa- edo alterazio-esperientzia negatiboak | Urduritasuna, antsietatea, pazientziarik eza |
| VI: Ezagutu edo jarduteko beharrezko bitartekoak ez izateak sentimen negatiboa dakar, eta horrek ekintza eragozten du | Segurtasun falta, nahasmendua |
| VII: Aldaketa ezatsegin baten faltaren edo gutxitzearen esperientzia | Lasaitasuna, baretasuna, segurtasuna |
| VIII: Estimulu nabarmen edo aktibatzaileen faltaren esperientzia | Aspertzea |
| IX: Desioak eragozten dituen sentimen negatiboak | Haserrea, sumina, amorrua, ezinikusia |
| X: Higuin iraunkorreko edo norbaiten balioa ukatzeko esperientzia | Desamodioa, mesprezua, gorrotoa |
| XI: Pertsona baten onak ezinegona sortzen dio beste bati | Inbidia, jelosia |
| XII: Arriskuren bat edo norberaren kontrol-gaitasuna gainditzen duen zerbait agertzearen esperientzia | Beldurra, ezustekoa, izua, fobia |
| XIII: Aurreikuspen gozo bat gertakariek iluntzen dutelako esperientzia | Etsipena, porrota |
| XIV: Etorkizunaren balioztatze positiboak eragindako esperientziak | Ikusmina, itxaropena, konfiantza |
| XV: Etorkizunaren balioztatze negatiboak eragindako esperientziak | Itxaropenik eza, konfiantzarik eza |
| XVI: Gure desio edo proiektuetako objektua galdu izanaren esperientzia | Tristura, malenkonia, babesik eza, gupida, mira, etsipena |
| XVII: Ezohiko zerbait agertzeak eragindako esperientziak | Ezustekoa, harridura, miresmena, errespetua, sentimen estetikoa, sentimen komikoa, sentimen erlijiosoa |
| XVIII: Egikaritzeak eragindako esperientziak | Gogobetetasuna, poza, alaitasuna, gure desio eta proiektuengatiko zoriona |
| XIX: Norbaitek on egin digulako izandako esperientziak | Esker ona |
| XX: On egindako esperientzia eta desioa | Maitasuna, adiskidetasuna, maitasun erotikoa, txera, filantropia |
| XXI: Norberaren balioztatze positiboak eragindako esperientziak | Harrotasuna, duintasuna, urguilua |
| XXII: Norberaren balioztatze negatiboak eragindako esperientziak | Gutxiagotasuna, nork bere burua mesprezatzea, lotsa, hobena |

[1] J. A. Marina eta M. López Penas, 1999, 432-445 orr.

## 2. Sentimenen sailkapena[2]

Sentimenak bi irizpide hauen arabera sailkatzen ikasi behar dute ikasleek:

| 1. sailkapen-irizpidea | |
|---|---|
| **SENTIMEN EGOKIAK**<br>(edo moldakor onuragarriak, edo ohikoak) | **SENTIMEN EZEGOKIAK**<br>(edo ez-moldakor ez-onuragarriak, edo ohiz kanpokoak) |

| 2. sailkapen-irizpidea | |
|---|---|
| **ALOBALORAZIO-SENTIMENAK**<br>(edo kanpokoarekin erlazionatuak) | **AUTOBALORAZIO-SENTIMENAK**<br>(edo norberarekin erlazionatuak: norbera onartzea edo ez onartzea) |

### *2. Helburuak*

- Irudiak eta artelanak pertzepzioaren, emozioen eta arrazoiaren bidez ulertzea, eta horien helburuak eta sortu direneko komunikazio-egoerak bereiztea.
- Ahoz eta idatziz zuzen eta koherentziaz espresatzea, helburuak eta komunikazio-egoerak aintzat hartuta, pixkanaka norbere emoziozko ezagutzatik eta besteen ezagutzatik etorritako estilo adierazgarri propioa hartuz.
- Irakurtzea eta idaztea komunikazio-bidetzat eta kultur aberastasunerako eta norbere ezagutzarako eta plazerrerako iturritzat hartzea.
- Lan literario eta artistikoetara gero eta autonomia gehiagorekin heltzea.
- Hizkuntzaren espresio-aukerak, estetikoak eta ludikoak jakinaren gainean erabiltzea, norberari eta besteei buruzko pertzepzioak, emozioak eta hausnarketak dituzten asmo sortzaileko testuak sortzean.

### *3. Jardueren segida*

#### *14. jarduera: Hitz zehatzak*

- *Deskribapena:* Abiapuntuko lehenengo premisa zera da: emozioak antzemateko (bigarren bloke honen helburuetako bat) lehen pausoa zehazki izendatu ahal izatea da; horregatik, hiztegia lantzeko hiru jarduera egingo dituzte ikasleek, emozioen hiztegia zabaltzeko, ikasleak zehaztasunez eta barietatez erabiltzen ohitzeko, eta hainbat hiztegi-motaren erabilera sustatzeko.

---

[2] C. Castilla del Pino, 2000, 154 or.

- *Beharrezko materiala:*
  - *Euskal Hiztegi Modernoa*. Elhuyar hizkuntza zerbitzuak.
  - *Oinarrizko hiztegia*. Elhuyar hizkuntza zerbitzuak.
  - *Sinonimoen kutxa. Sinonimo eta antonimoen hiztegia*. J. Urrujulegi.
  - *Sinonimoen hiztegia*. Uzei.
  - Euskal hiztegiak: www.jalgi.com
  - *Diccionario de los sentimientos*. J. A. Marina eta M. López Penas. Aholkatzen da: "Mapas léxicos" zatia (1999:423-450). Kapitulu honen sarreran laburpen bat dago.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Irakasleentzako erantzunak.

### *15. jarduera: Emozioen izenak*

- *Deskribapena:* Aurreko jardueran bezala, ikasleek proposatutako emozioen sinonimoak eta antonimoak bilatu behar dituzte.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 25 minutu.

### *16. jarduera: Hunkitzeko artea*

- *Deskribapena:* Jarduera honetan pintura- eta musika-lanak sartu ditugu. Taldeka, egokitu zaien lana behatu edo entzungo dute. Lanak eragiten dizkien sentsazioei, emozioei eta eremu semantikoei irteten utzi eta horiek idatziz jasotzea da helburua. Pintura-lanen kasuan, behaketa artistikoko fitxa beteko dute.

  Jarduera amaitzeko, gainerako taldeen aurrean aurkeztuko dituzte lortutako emaitzak, eta gero, horri buruz hitz egingo dute guztien artean. Gure zentzumenak erabiliz koadro bat behatu edo musika-pieza bat entzun daitekeela ikusiko dute ikasleek.
- *Beharrezko materiala:*

  Honako pintura-lan hauen irudiak (diapositibak erakustea aholkatzen da):
  - *En el café.* Edgar Hilaire Degas.
  - *Le Moulin de la Gallette.* Pierre Auguste Renoir.

  Honako musika-lan hau jarri entzuteko:
  - *Tosca*. Giacomo Puccini. III.ekitaldiaren amaiera ("E non giungono" – "Trionfal di nova speme": 2:39; "L'ora!" – "Son pronto": 0:37; "Como è lunga l'attesa!": 2:34; "Presto, su!": 1:32).
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria eta irakasleentzako erantzunak.



# 14. jarduera

## Hitz zehatzak

*Esan nahi dugun hura hobekien azaltzen duten hitzak aukeratzea ez da beti erraza izaten. Esate baterako, nola sentitzen garen adierazteko, esanahi ezberdina duten antzeko hitz-mordotik bat hautatu beharko dugu. Emozioak izendatzen ikasteko, honako jarduera hau proposatzen dizuegu.*

**1**

*Beheko taula honetan, elkartu terminoak definiziorik egokienarekin. Jarri "Letra" zutabean emozio bakoitza hobekien azaltzen duen definizioari dagokion letra ( a), b), c), etab.). Beharrezko ikusten dituzun hiztegi eta kontsultarako lan guztiak erabil ditzakezu.*

| Emozioa | Letra | Definizioa |
|---|---|---|
| A) Nahastea | | a) Beste pertsona batek emandako ondasunak sentimendu positiboa eragiten du, harekiko onginahia eta zorra. |
| B) Konfiantzarik eza | | b) Gehiegizko arreta erakartzen eta bereganatzen duen zerbait berri eta bitxiaren pertzepzioak sentimendu bat, positiboa ala negatiboa, sortzen du, eta erreakzionatzeko gaitasuna gelditzen du. |
| C) Ikusmina | | c) Maite ditugun kideen eta tokien urruntasunak sentimendu negatiboa sortzen du, haiengana itzultzeko gogoarekin batera. |
| D) Esker ona | | d) Zerbaitek edo norbaitek zer portaera izango duen ziur ez jakiteak sentimendu negatiboa –beldurra, irmotasun eza edo aurreikus ez daitekeen etorkizunarekiko segurtasun eza– sortzen du. |
| E) Harrokeria | | e) Norbaitenganako gaizkinahizko sentimendu bortitza: zerbaiti buruzko higuin edo herra bizia. |
| F) Harridura | | f) Itxarote larria, interes, jakin-min, nahi edo ilusioarekin batera. |
| G) Ezinikusia | | g) Objektu edo egoera batek sentimendu negatiboa eragiten du, barne-higuina, kontrolaezina eta irrazionala, nahitaez saiheste-jarreretara eramaten duena. Antsietate-krisia ere izan daiteke. |
| H) Mira | | h) Norbere duintasun edo balioaren gehiegizko kontzientziak sentimendu positiboa eragiten du. Gizarteak maiz negatiboki baloratzen du hori, eta besteekiko erdeinua, nagusitasun-portaerak eta laudatua izateko nahiarekin batera izaten da sentimendu positibo hori. |
| I) Gorroto | | i) Ekitea edo nahi batzuk lortzea eragozten duen oztopo, irain edo mehatxu baten pertzepzioak sentimendu negatiboa eragiten du, eta eragilearen kontrako mugimendua, harekin zerikusia duen guztiarekiko herra eta hari kalte egiteko eta hura suntsitzeko nahiarekin batera joan ohi da. |
| J) Izua | | j) Ideietan edo arauetan argitasunik edo zehaztasunik ezak, edo aldaketak azkarregi egiteak, segurtasun-ezeko sentimendu negatiboa eragiten du. |

## 2

*Termino hauen artean, hautatu egokiena esaldiak osatzeko.*

introspekzioa, ziurtasuna, izualdia, debozioa, adorea, mutirikeria, jelosia, apeta, zortea (ona/txarra), poza

1. ........................................ ikaragarria izan zuten arrakastaz jabetu zirenean.
2. Zailtasunak zailtasun, ........................................ izan zuten zaurituei laguntzeko.
3. Zientzialariek ez dakizkite izurritearen arrazoiak ........................................ osoz.
4. Jatetxean zegoenean, barraskiloak jateko ........................................ izan zuen.
5. Iruindarrek ........................................ handia diote San Fermini.
6. ........................................ nahi ez dituen gauzak esanarazten dizkio.
7. Bere kideekiko ........................................ gainditu egiten du.
8. Sekulako ........................................ izan zuen, berria bat-batean hartu zuenean.
9. ........................................ iruditu zitzaien mahai-soinua ekitaldia hasi aurretik hondatzea.
10. ........................................ -ariketa bat egin du, alegia, norbera ezagutzeko ariketa.

## 3

*Bildu klanetan (eremu semantiko berari dagozkion multzoak) honako hitz hauek. Behin klanak zehaztuta, bereizi sinonimoak eta antonimoak.*

asaldura, nagikeria, etsipena, adorerik eza, artegatasuna, gutizia, uzkurdura, eztikeria, ahultzea, jatuntasuna, adorea, malenkonia, grina, aztoramena, abstinentzia-sindromea, unadura, kezka, gogaita, asperra, abaildura, dibertsioa, larritasuna, interesa, asetasuna, poza, alaitasuna, estutasuna, urduritasuna, aztoramenduan, lotsa, amorrua, buruhaustea, gogo bizia, ahalkea, gogo falta, traba, umiltasuna, makaltasuna, gorritzea, antsietatea, aztoramena, tripa-jana, lotsagabekeria, kemena, segurtasuna, ausardia, egonezina, lasaitasuna, gogo bizia

| Klana | Sinonimoak | Antonimoa(k) |
|---|---|---|
| **1. klana = irrika** | grina, gogo bizia... | asetasuna, gogo falta |
| **2. klana =** .................... | | |
| **3. klana =** .................... | | |
| **4. klana =** .................... | | |
| **5. klana =** .................... | | |

# Irakasleentzako erantzunak

| Emozioa | Letra | Definizioa |
|---|---|---|
| A) Nahastea | j) | a) Beste pertsona batek emandako ondasunak sentimendu positiboa eragiten du, harekiko onginahia eta zorra. |
| B) Konfiantzarik eza | d) | b) Gehiegizko arreta erakartzen eta bereganatzen duen zerbait berri eta bitxiaren pertzepzioak sentimendu bat, positiboa ala negatiboa, sortzen du, eta erreakzionatzeko gaitasuna gelditzen du. |
| C) Ikusmina | f) | c) Maite ditugun kideen eta tokien urruntasunak sentimendu negatiboa sortzen du, haiengana itzultzeko gogoarekin batera. |
| D) Esker ona | a) | d) Zerbaitek edo norbaitek zer portaera izango duen ziur ez jakiteak sentimendu negatiboa –beldurra, irmotasun eza edo aurreikus ez daitekeen etorkizunarekiko segurtasun eza– sortzen du. |
| E) Harrokeria | h) | e) Norbaitenganako gaizkinahizko sentimendu bortitza: zerbaiti buruzko higuin edo herra bizia. |
| F) Harridura | b) | f) Itxarote larria, interes, jakin-min, nahi edo ilusioarekin batera. |
| G) Ezinikusia | i) | g) Objektu edo egoera batek sentimendu negatiboa eragiten du, barne-higuina, kontrolaezina eta irrazionala, nahitaez saiheste-jarreretara eramaten duena. Antsietate-krisia ere izan daiteke. |
| H) Mira | c) | h) Norbere duintasun edo balioaren gehiegizko kontzientziak sentimendu positiboa eragiten du. Gizarteak maiz negatiboki baloratzen du hori, eta besteekiko erdeinua, nagusitasun-portaerak eta laudatua izateko nahiarekin batera izaten da sentimendu positibo hori. |
| I) Gorroto | e) | i) Ekitea edo nahi batzuk lortzea eragozten duen oztopo, irain edo mehatxu baten pertzepzioak sentimendu negatiboa eragiten du, eta eragilearen kontrako mugimendua, harekin zerikusia duen guztiarekiko herra eta hari kalte egiteko eta hura suntsitzeko nahiarekin batera joan ohi da. |
| J) Izua | g) | j) Ideietan edo arauetan argitasunik edo zehaztasunik ezak, edo aldaketak azkarregi egiteak, segurtasun-ezeko sentimendu negatiboa eragiten du. |

1. **Poz** ikaragarria izan zuten arrakastaz jabetu zirenean.

2. Zailtasunak zailtasun, **adorea** izan zuten zaurituei laguntzeko.

3. Zientzialariek ez dakizkite izurritearen arrazoiak **ziurtasun** osoz.

4. Jatetxean zegoenean, barraskiloak jateko **apeta** izan zuen.

5. Iruindarrek **debozio** handia diote San Fermini.

6. **Mutirikeriak** nahi ez dituen gauzak esanarazten dizkio.

7. Bere kideekiko **jelosiak** gainditu egiten du.

8. Sekulako **izualdia** izan zuen, berria bat-batean hartu zuenean.

9. **Zorte txarrekoa** iruditu zitzaien mahai-soinua ekitaldia hasi aurretik hondatzea.

10. **Introspekzio** -ariketa bat egin du, alegia, norbera ezagutzeko ariketa.

| **Klana** | Sinonimoak | Antonimoa(k) |
|---|---|---|
| **1. klana = irrika** | grina, gogo bizia, antsietatea, gutizia, abstinentzia-sindromea, jatuntasuna | asetasuna, gogo falta |
| **2. klana = adore falta** | etsipena, adorerik eza, uzkurdura, ahultzea, abaildura, makaltasuna | adorea, kemena |
| **3. klana = urduritasuna** | asaldura, artegatasuna, aztoramena, kezka, larritasuna, estutasuna, urduritasuna, egonezina, tripa-jana | lasaitasuna |
| **4. klana = asperra** | nagikeria, eztikeria, malenkonia, unadura, gogaita, asperra, amorrua | dibertsioa, interesa, poza, alaitasuna |
| **5. klana = lotsa** | buruhaustea, aztoramena, lotsa, traba, umiltasuna, ahalkea, gorritzea, aztoramendua | lotsagabekeria, segurtasuna, ausardia |

# 15. jarduera

## Emozioen izenak

**1**

*Emozioak bereiztea da ezagutzeko lehen pausoa. Bete ezazu emozioen sinonimo eta antonimoen taula hau. Beharrezko ikusten dituzun hiztegi eta kontsultarako lan guztiak erabil ditzakezu. Azkenik, sailkatu emozioak motaren arabera.*

| Emozioa | Sinonimoak | Antonimoak | Mota |
|---|---|---|---|
| 1. Kontsolagarri | | | |
| 2. Nahigabe | | | |
| 3. Agonia | | | |
| 4. Lasaitasun | | | |
| 5. Ezintasun | | | |
| 6. Gorroto | | | |
| 7. Estimu | | | |
| 8. Gozamen | | | |
| 9. Gogogabetasun | | | |
| 10. Ziurgabetasun | | | |
| 11. Eskuzabaltasun | | | |
| 12. Harrokeria | | | |

# 16. jarduera

## Hunkitzeko artea

**1. eta 2. taldeentzako materiala**

**Artelana: *En el café*. Edgar Hilaire Degas**

1

*Behatu arretaz koadro hau.*



## 2

*Proposatutako xehetasunak oinarri hartuta, zehaztu zer sentsazio eragiten dizkizueten.*

| ***En el café*. Edgar Hilaire Degas** | | | |
|---|---|---|---|
| **Xehetasuna / Sentsazioak** | Emakumearen aurpegia | Botila | Kafetegiko giroa |
| **Ikusmenekoak** | | | |
| **Entzumenekoak** | | | |
| **Usaimenekoak** | | | |
| **Dastamenekoak** | | | |
| **Termikoak** | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | |
| **Ukimenekoak** | | | |
| **Zenestesikoak** | | | |
| **Esterognosikoak** | | | |

## 3

*Hautatu zuen ustez koadroko xehetasunik esanguratsuenak direnak. Idatzi taulan zer emozio transmititzen dizueten; zehaztu kanpo-emozioa (alobaloraziorako) edo berezkoa (autobaloraziorako) transmititzen duten, sailkatu azaldutako tribu eta multzoen arabera eta definitu dagokien klaneko hitzaren bidez. Behar bezala egiteko, koadroko pertsonaien lekuan jarri behar duzue.*

| ***En el café*. Edgar Hilaire Degas** | | | |
|---|---|---|---|
| **Xehetasuna** | Tribuak | Klanak | Sailkapena |
| Emakumearen aurpegiera | | | |
| Gizonaren aurpegiera | | | |

4

*Bildu lan honetako elementuak eremu semantikoka eta eman erabat biltzen dituen izena. Emozioen kasuan, "klan" kontzeptuak lana erraztuko dizue. Artistek lanetan sentsazioak eta sentimenak transmititzen dituztela egiaztatuko duzue.*

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| Kafetegiko elementuak | |
| Tristura, nork bere burua mesprezatzea | |
| Jantziak | |

5

*Azkenik, jasotako xehetasunak oinarri hartuta, pentsatu une batez zer ideia, emozio eta sentsazio transmititzen duten. Idatzi taulan.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Absenta-kopa | | | |

6

*Material horrekin guztiarekin, osatu arte-behaketaren fitxa hau.*

| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| ........................................ | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera...** | |
| ........................................ | |
| **3. Euskarria: horma, taula, mihisea, beira, zeramika...** | |
| ........................................ | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea...). | |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objektuarena berarena. | |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib.: tenebrismoa). | |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | |
| 7.3. Argiarekin eta modelatuarekin duen harremana (lauak/ñabartuak). | |
| 7.4. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa. | |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikoak: plano-jokoa, argiaren erabilera... | |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | |

**7** *Lana zehatz-mehatz aztertu duzue. Bakarka, idatz ezazue lanaren iruzkina, batez ere, eragin dizkizuen sentimen eta emozioei eta egileak horretarako erabili dituen bitartekoei arreta jarriz.*

3. eta 4. taldeentzako materiala

## Artelana: *Le Moulin de la Gallette.* Pierre Auguste Renoir

1

*Behatu arretaz koadro hau.*



## 2

*Proposatutako xehetasunak oinarri hartuta, zehaztu zer sentsazio eragiten dizkizueten.*

| ***Le Moulin de la Gallette.*** **Pierre Auguste Renoir** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Xehetasuna / Sentsazioak** | Bikoteak dantzan | Emakumeen aurpegiak | Dantza-soinuak | Basoak eta botilak mahai gainean |
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

## 3

*Hautatu zuen ustez koadroko xehetasunik esanguratsuenak direnak. Idatzi taulan zer emozio transmititzen dizueten; zehaztu kanpo-emozioa (alobaloraziorako) edo berezkoa (autobaloraziorako) transmititzen duten, sailkatu azaldutako tribu eta multzoen arabera eta definitu dagokien klaneko hitzaren bidez. Behar bezala egiteko, koadroko pertsonaien lekuan jarri behar duzue.*

| ***Le Moulin de la Gallette.*** **Pierre Auguste Renoir** | | | |
|---|---|---|---|
| **Xehetasuna** | Tribuak | Klanak | Sailkapena |
| Lehen planoko emakumeak | | | |
| Eskuineko gazteak | | | |
| Bikoteak dantzan | | | |

4

*Bildu lan honetako elementuak eremu semantikoka eta eman erabat biltzen dituen izena. Emozioen kasuan, "klan" kontzeptuak lana erraztuko dizue. Artistek lanetan sentsazioak eta sentimenak transmititzen dituztela egiaztatuko duzue.*

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| Festa-dantza | |
| Jantziak | |

5

*Azkenik, jasotako xehetasunak oinarri hartuta, pentsatu une batez zer ideia, emozio eta sentsazio transmititzen duten. Idatzi taulan.*

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Dantza | | | |

6

*Material horrekin guztiarekin, osatu arte-behaketaren fitxa hau.*

| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| ................................................................ | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera...** | |
| ................................................................ | |
| **3. Euskarria: horma, taula, mihisea, beira, zeramika...** | |
| ................................................................ | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea...). | |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objektuarena berarena. | |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib.: tenebrismoa). | |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | |
| 7.3. Argiarekin eta modelatuarekin duen harremana (lauak/ñabartuak). | |
| 7.4. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa. | |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikoak: plano-jokoa, argiaren erabilera... | |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | |

**7**

*Lana zehatz-mehatz aztertu duzue. Bakarka, idatz ezazue lanaren iruzkina, batez ere, eragin dizkizuen sentimen eta emozioei eta egileak horretarako erabili dituen bitartekoei arreta jarriz.*

## Musika-lana: *Tosca.* Giacomo Puccini

**1**

*Entzun arretaz musika-piezaren zati hau eta osatu sentsazio-taula.*

*Tosca. Giacomo Puccini. III.ekitaldiaren amaiera ("E non giungono" – "Trionfal di nova speme": 2:39; "L'ora!" – "Son pronto": 0:37; "Como è lunga l'attesa!": 2:34; "Presto, su!": 1:32).*

| *Tosca.* Giacomo Puccini | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Xehetasuna / Sentsazioak | *"E non giungono" – "Trionfal di nova speme" (2:39): egunsentia eta Tosca eta Cavaradossi maitemindu-bikotea (1:29-2:03)* | *"L'ora!" – "Son pronto" (0:37): exekuta dezaten, irteteko agindua (1")* | *"Como è lunga l'attesa!" (2:34): tiroa (1:25) eta Cavaradossi-ren heriotza (1:15-1:57)* | *"Presto, su!" (1:32): Toscaren suizidioa (0:50-1:22)* |
| **Ikusmenekoak** | | | | |
| **Entzumenekoak** | | | | |
| **Usaimenekoak** | | | | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | | | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | | | | |
| **Zenestesikoak** | | | | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

2 *Hautatu zuen ustez musika-lan honetako xehetasunik esanguratsuenak direnak. Idatzi taulan zer emozio transmititzen dizueten; zehaztu kanpo-emozioa (alobaloraziorako) edo berezkoa (autobaloraziorako) transmititzen duten, sailkatu azaldutako tribu eta multzoen arabera eta definitu dagokien klaneko hitzaren bidez.*

| *Tosca.* Giacomo Puccini | | | |
|---|---|---|---|
| **Xehetasuna** | **Tribuak** | **Klanak** | **Sailkapena** |
| Tosca eta Cavaradossi maitemindu-bikotea (1:29-2:03) | | | |
| Caravadossi-ren heriotza, Toscak ikusia (1:15-1:57) | | | |
| Toscaren suizidioa (0:50-1:22) | | | |

3 *Bildu lan honetako elementuak eremu semantikoka eta eman erabat biltzen dituen izena. Emozioen kasuan, "klan" kontzeptuak lana erraztuko dizue. Artistek lanetan sentsazioak eta sentimenak transmititzen dituztela egiaztatuko duzue.*

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
|---|---|
| Heriotza tragikoa | |
| Maitasuna | |

4 *Material horrekin guztiarekin, idatz ezazue lanaren iruzkina, batez ere, eragin dizkizuen senti-men eta emozioei eta konpositoreak horretarako erabili dituen bitartekoei arreta jarriz.*

| Artelana: *En el café.* Edgar Hilaire Degas | | | |
|---|---|---|---|
| Xehetasuna / Sentsazioa | Emakumearen aurpegia | Botila | Kafetegiko giroa |
| **Ikusmenekoak** | Kolore zurbila. Ahoko makillajea. | Gardena. Forma. | Koloreak kontrastean. |
| **Entzumenekoak** | Bere baitako isiltasuna. | | Iskanbila ziurrenik. |
| **Usaimenekoak** | Perfumea. | Absenta-usaina. | Usain-nahasketa: tabakoa, absenta, perfumea... |
| **Dastamenekoak** | Absenta. | Absenta-zaporea. | Hainbat edari. |
| **Termikoak** | Hotza. | Alkoholaren beroa. | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | |
| **Ukimenekoak** | | Egitura lisoa eta leuna. | Gainazalak: marmol liso eta leunezko mahaitxoak batik bat. |
| **Zenestesikoak** | Gelditasuna. | | Mugimendu handia litekeena. |
| **Esterognosikoak** | Ispiluetako bolumen aldatua. | | Gune itxia, ispiluek handitua. |

| Xehetasuna | Tribuak | Klanak | Sailkapena |
|---|---|---|---|
| Emakumearen aurpegiera | XIII: Aurreikuspen gozo bat gertakariek iluntzen dutelako esperientzia, XXII: Norberaren balioztatze negatiboak eragindako esperientziak eta X: Higuin iraunkorreko edo norbaiten balioa ukatzeko esperientzia. | Porrota, nork bere buruarekiko mesprezua eta mesprezua. | Autobaloraziorako ezegokiak (lehenengo biak) eta alobaloraziorako ezegokia. |
| Gizonaren aurpegiera | XV: Etorkizunaren balioztatze negatiboak eragindako esperientziak. | Etsipena (agian). | Alobaloraziorako ezegokia. |

| **Eremu semantikoa edo isotopia** | **Multzokatutako elementuak** |
|---|---|
| Kafetegiko elementuak | Mahaitxoak, ispiluak, botila, kopak... |
| Tristura, nork bere burua mesprezatzea | Bere baitako begirada eta begirada galdua, sorbalda eroriak, gelditasuna, gizonagandiko isolamendua... |
| Jantziak | Kapelak, blusa, gona, jaka, zapatak... |

| **Sinboloa** | **Ideia edo kontzeptua** | **Emozioa edo sentimena** | **Sentsazioa** (mota eta definizioa) |
|---|---|---|---|
| Xehetasun artistikoa: Absenta-kopa | (Bizitza oso gogorra da Parisa iristen diren emakumeentzat). | Lasaitasun artifiziala. | Dastamenekoa, usaimenekoa, termikoa, pisuari dagokiona, ukimenekoa eta ikusmenekoa. |

| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| En el café ("La absenta"), Edgar Hilaire Degas-ena. Emakume bat (Ellen André) eta gizon bat (Marcel Desboutin) kafetegiko mahai batzuen atzean eserita, ispiluen aurrean eta edariak aurrean dituztela. | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera...** | |
| Mihise gaineko olio-pintura. 92 x 62 cm. | |
| **3. Euskarria: horma, taula, mihisea, beira, zeramika...** | |
| Mihisea. | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea...). | Soltea, azkarra, laburra. |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | Fina. |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | - |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | Bai, marrazkia oinarri dela. |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | Sfumatoa. |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | Artifiziala; modeloen gainean irrist egiten du. |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objektuarena berarena. | Kanpoko foku zehaztugabea. |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib.: tenebrismoa). | Itzal epel egokiak. |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | Perspektiba sortzen du. |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | Kontrastea modeloen jantzietan. |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | Errealista, nortasun-kontrastea. |
| 7.3. Argiarekin eta modelatuarekin duen harremana (lauak/ñabartuak). | Planoak sortzea. |
| 7.4. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa | Protagonista. |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | Bai, perspektiba bikoitza (mahaiak goitik; figurak aurretik). |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikoak: plano-jokoa, argiaren erabilera... | Planoak eta argia. |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | Konposizio konplexua, lerro bertikalak eta diagonalak. |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | Emakumea eta absenta-kopa. |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | Figuratiboa. |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | Naturalismoa. |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | Azterketa ona. |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | Kontraste-balio sinbolikoa du. |

| Artelana: *Le Moulin de la Gallette.* Pierre Auguste Renoir | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Xehetasuna / Sentsazioak | Bikoteak dantzan | Emakumeen aurpegiak | Dantza-soinuak | Basoak eta botilak mahai gainean |
| **Ikusmenekoak** | Jantzien koloreak. Keinuak. | Argiak eta itzalak. | | Gardentasuna. |
| **Entzumenekoak** | Musika-hotsa. | Musika eta gizonen elkarrizketak entzutea. | Musika eta murmurioa. | Beiraren txilin-hotsa. |
| **Usaimenekoak** | Perfumeak. | Perfumeak. | | Edarien usainak. |
| **Dastamenekoak** | | | | Edarien zaporeak. |
| **Termikoak** | Mugimenduagatik beroa. | Giro beroa dantzagatik. | | |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | |
| **Ukimenekoak** | Elkarri helduta daude. | | Dantza lotua. | Gainazal lisoa eta leuna. |
| **Zenestesikoak** | Musikaren mugimendu erritmikoa. | Mugimendu-keinua eta birak dantzan. | Dantzaren erritmoa. | |
| **Esterognosikoak** | Desberdintzen ez den masa-bolumena sortzen du. | | Desberdintzen ez den masa-bolumena sortzen du. | |

| Xehetasuna | Tribuak | Klanak | Sailkapena |
|---|---|---|---|
| Lehen planoko emakumeak | I: Bultzada edo motibazio baten esperientzia.<br>XX: On egindako esperientzia eta desioa. | Desioa, irrika.<br>Gogobetetasuna, poza, alaitasuna. | Alobaloraziorako egokia. |
| Eskuineko gazteak | I: Bultzada edo motibazio baten esperientzia<br>XIV: Etorkizunaren balioztatze positiboak eragindako esperientzia.<br>XX: On egindako esperientzia eta desioa. | Desioa, irrika.<br>Ikusmina, itxaropena, konfiantza.<br>Maitasuna, adiskidetasuna, filantropia. | Alobaloraziorako egokia. |
| Bikoteak dantzan | III: Norberaren bizitasun eta energiaren esperientzia.<br>XVIII: Gure desio eta proiektuak gauzatzeak eragindako esperientziak. | Adorea, euforia.<br><br>Gogobetetasuna, poza, alaitasuna, zoriona. | Alobaloraziorako egokia. |

| Eremu semantikoa edo isotopia | Multzokatutako elementuak |
| --- | --- |
| Festa-dantza | Argiak, irribarreak, bikoteak dantzan, elkarrizketa biziak, musua, faroltxoak... |
| Jantziak | Kapelak, kapeluak, kapela garaiak, polisoidun jantziak, lebitak, lepokoak, zapatak... |

| Sinboloa | Ideia edo kontzeptua | Emozioa edo sentimena | Sentsazioa (mota eta definizioa) |
| --- | --- | --- | --- |
| Xehetasun artistikoa:<br>Dantza | | Poza, dibertsioa. | Ikusmenekoak: argiak, koloreak, itzalak.<br>Entzumenekoak: musika eta iskanbila.<br>Usaimenekoak: perfume, edari, tabako eta abarren usaina.<br>Dastamenekoak: edariak eta tabakoa.<br>Termikoa: beroa.<br>Ukimenekoak: bikoteak elkar ukitzen dantza lotuan.<br>Zenestesikoak: dantza-mugimendu erritmodunak. |



| | |
|---|---|
| **1. Irudikatutako gaia eta izenburua:** | |
| *"Le moulin de la Gallette"*, Pierre Auguste Renoir-ena. Dantzaldi bat da, Montmartre-ko errota huts batean, Parisko buhameria dantzatzeko eta itzalean mokadu bat hartzeko elkartzen zen lekuan. | |
| **2. Teknika: freskoa, tenpera, akuarela, olioa, papera…** | |
| Mihise gaineko olio-pintura. 131 x 175 cm. | |
| **3. Euskarria: horma, taula, mihisea, beira, zeramika…** | |
| Mihisea. | |
| **4. Faktura edo margotzeko modua:** | |
| 4.1. Pintzelkada edo ukitua (laburra/luzea; akabatua/desegina; soltea…). | Luzea, desegina, soltea. |
| 4.2. Egitura: lisoa/latza; leuna/zimurtsua; distiratsua/matea. | Latza, distiratsua. |
| 4.3. Orbana, teknika mistoa eta beste bitarteko batzuk. | Giro-sentsazioa irudiak lausotuta lortzen da. |
| **5. Modelatua:** | |
| 5.1. Bolumena irudikatzea edo ez. | Bai. |
| 5.2. Kolore- eta argi-kontraste arinak (sfumatoa) edo bortitzak (argiluna). | Espazioa argi-ukituekin ilunduta. |
| **6. Argia:** | |
| 6.1. Mota: naturala, artifiziala, estudiokoa. | Naturala eta artifiziala. |
| 6.2. Iturria (argi-fokua edo fokuak): giro-argia, foku zehatz batekoa, objetuarena berarena. | Plazako farolak. |
| 6.3. Intentsitatea eta kontrastea itzalekin (adib. tenebrismoa). | Argi-efektuak ilundutako espazioan. |
| 6.4. Funtzioa: bolumena sortzea, perspektiba sortzea. | Perspektiba sortzea. |
| **7. Kolorea:** | |
| 7.1. Erabilitako gama (hotza/beroa) eta tonalitateak. | Tonalitate malbak itzaletarako. |
| 7.2. Kolorearen izaera: errealista edo sinbolikoa. | Errealista. |
| 7.3. Argiarekin eta modelatuarekin duen harremana (lauak/ñabartuak). | Plano ezberdinak. |
| 7.4. Lanean duen funtzioa: protagonista edo bigarren mailakoa. | Protagonista. |
| **8. Perspektiba (pinturaren bi dimentsioetatik abiatuta):** | |
| 8.1. Espazioa eta sakontasuna erakusteko asmoa edo ez. | Giroa sortzea eta jendetza-efektua. |
| 8.2. Perspektiba lortzeko bitarteko teknikoak: plano-jokoa, argiaren erabilera… | Bi perspektiba: lehen planoa, hondoko figurak goitik, aurreko perspektiba. |
| **9. Konposizioa:** | |
| 9.1. Figuren banaketa: bakuna/konplexua. | Konplexua: diagonal bat eta plano paralelo ezberdinak. Irudiak bi zirkulutan ordenatuta: mahaiaren inguruan eta dantzari-bikotearen inguruan. |
| 9.2. Egitura formala: koadroaren interesgunea. | Zirkuluak. |
| **10. Espresio-formak:** | |
| 10.1. Arte figuratiboa arte abstraktuaren aurrean. | Figuratiboa. |
| 10.2. Naturalismoa (errealismoa edo idealismoa) antinaturalismoaren aurrean. | Naturalismoa. |
| **11. Espresio-elementuak:** | |
| 11.1. Anatomia: proportzioak, perfekzioa, eskala, muskulatura. | Azterketa ona, baina iradokia. |
| 11.2. Arropak eta izurrak (funtzioa eta forma, tamaina eta sakontasuna). | Kolore- eta egitura-aniztasuna. |

| *Tosca.* Giacomo Puccini | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Xehetasuna / Sentsazioak | *“E non giungono” – “Trionfal di nova speme” (2:39): egunsentia eta Tosca eta Cavaradossi maitemindu-bikotea (1:29-2:03)* | *“L’ora!” – “Son pronto” (0:37): exekuta dezaten, irteteko agindua (1”)* | *“Como è lunga l’attesa!” (2:34): tiroa (1:25) eta Cavaradossi-ren heriotza (1:15-1:57)* | *“Presto, su!” (1:32): Toscaren suizidioa (0:50-1:22)* |
| **Ikusmenekoak** | Egunsentiko argia. | Aginte-keinua. | Tiroaren garrak. | |
| **Entzumenekoak** | Maiteminduen kantua. Lauretako kanpaiak. | Aginduaren hotsa. | Tiroaren hotsa. | Tosca-ren garrasia. Bere gorputzaren talka-hotsa. |
| **Usaimenekoak** | | | Bolbora-usaina. | |
| **Dastamenekoak** | | | | |
| **Termikoak** | Egunsentiko hotz hezea. | Egunsentiko hotza. | Egunsentiko hotza. | Egunsentiko hotza. |
| **Pisuari dagozkionak** | | | | Lurraren kontra jotzen duen gorpuaren pisutasuna. |
| **Ukimenekoak** | Besarkada. | | Bala sartzeko unea. | |
| **Zenestesikoak** | Pertsonaien mugimenduak. | Cavaradossi hormara doa. | Cavaradossi lurrera erori da tiroen ondorioz. Gelditasuna. | |
| **Esterognosikoak** | | | | |

| Xehetasuna | Tribua – Zein multzori dagokion | Klana | Sailkapena |
|---|---|---|---|
| Tosca eta Cavaradossi maitemindu-bikotea (1:29-2:03) | XX: On egindako esperientzia eta desioa eta XVII: Ezohiko zerbait agertzeak eragindako esperientziak. | Maitasuna eta sentimen erlijiosoa. | Alobaloraziorako egokiak. |
| Cavaradossi-ren heriotza, Toscak ikusia (1:15-1:57) | XVI: Gure desio edo proiektuetako objektua galdu izanaren esperientzia eta IX: Desioak eragozten dituen sentipen negatiboak. | Babesik eza eta sumina. | Alobaloraziorako ezegokiak. |
| Toscaren suizidioa (0:50-1:22) | XII: Arriskuren bat edo norberaren kontrol-gaitasuna gainditzen duen zerbait agertzearen esperientzia. | Izua. | Alobaloraziorako ezegokia. |

| **Eremu semantikoa edo isotopia** | **Multzokatutako elementuak** |
|---|---|
| Heriotza tragikoa | Heriotza-zigorra; exekuzio-itxura; tiro egiteko agindua; tiroak; Cavaradossi-ren heriotza; Scarpia-ren hiltzailea; Tosca-ren suizidioa amildegian behera salto eginez, etab. |
| Maitasuna | Maiteminduak; heriotzaz haragoko maitasuna; agurra; egunsentiko itxaropena, etab. |

# Dokumentazio osagarria

**Artelana: *En el café.* Edgar Hilaire Degas**

Urtea: 1876. Orsay Museoa (Paris). Mihise gaineko olio-pintura: 92 x 68 cm.

Nouvelle Athéneseko kafetegian hasi ziren elkartzen Manet eta errealistak, Café Guerboisetik alde egin eta gero. Hantxe margotua da Degasen obra ezagunenetako bat. Ellen André aktore eta modeloak eta Marcel Desboutin grabatzaileak posatu zuten koadro hartarako. Kafetegietako mahai tipiko baten atzean jarri ziren biak, lokaleko paretak apaintzen zituzten ispiluen aurrean. Mahaien gainean, absenta-botila bat, likore-kopa eta alkoholik gabeko edaridun baso bat zeuden, emakumezko modeloak zioenez. Prostituta zirudien emakumeak. Haietako asko zegoen Parisen sasoi hartan, landa-eremuetatik joanak, lana eta bizimodu hobea aurkitzeko itxaropenaz. Koadroko emakumearen alkoholzaletasunak adierazten duenez, ordura arte soilik gizonezkoenak ziren bizioak bereganatzen hasiak ziren emakumezkoak ere. Emakumearen mespretxu-aurpegiera, gogoa beste nonbait baleuka bezala egotea dira koadroaren ezaugarri nagusietakoak. Alboan, berriz, gizona dago, emakumeari kasurik ere egiten ez diola. Ez dago asmatzerik zer-nolako harremana zuten elkarrekin emakumeak eta gizonak. Agian, sortzen ari zen gizarte industrializatu (indibidualista, besteen arazoez batere kezkatzen ez dena) hark zekarren etsipena adierazi nahi zuen. Itxuraz azkar eta ia pentsatu gabe egina dirudien koadro horren eszena, ordea, zorrotz egituratuta dago. Koadroa lerro bertikal eta diagonalez osatuta dago; bestalde, sakontasunak ere arduratzen zuen pintorea. Horregatik islatu zituen ispiluan bai gizona bai emakumea, eta elkarren segidako planoetan jarri zituen mahaiak. Koloreak ere sakon aztertu zituen: biziki kontrastatzen dute Marcelen trajearen tonu ilunek eta Ellenen blusa eta kapeluaren kolore argiek. Ohikoa da kontraste hori Degasen obran. Horri esker, are nabarmenagoa da bi pertsonaien arteko aldea. Garrantzi handia du argiak irudi horretan, modeloen gainetik labaindu eta itzal leunak sortzen ditu. Egokiro banatuta daude itzalak. Bestalde, kolore zuri pixka batekin eginak daude marmoleko eta kristaletako argi-islak. Nahiko pintzelkada solteak nabari dira koadroan; azkarrak dira pintzelaren ukituak. Kontuan hartzekoa da, bestalde, margotu aurretik egindako marrazte-lana. Nabari da eszena horretan Japoniako irudigintzaren eragina, perspektiba bikoitza erabili baitu pintoreak: goitik, mahaiak ikusten dira; aurretik, gizona eta emakumea (***Degas,*** CD-ROMa. Ediciones Dolmen S.L.; 1999).

**Artelana: *Le Moulin de la Gallette.* Pierre Auguste Renoir**

Urtea: 1876. Orsay Museoa (Paris). Mihise gaineko olio-pintura: 131 x 175 cm.

## Le Moulin de la Galette

Le Moulin de la Galette izan zen Pariseko aisiaren tenpluetako bat. Benetako errota izan zen garai batean, eta Montmartreko gailurrean zegoen, hots, Pariseko bohemiaren paradisuan: artistak, idazleak, prostitutak, langileak... Dantza egoten zen igande eta jaiegunetan Le Moulinen, eta hara biltzen ziren auzoko herritar asko. Orkestra batek musika jotzen zuen; dantzalekuaren alboetan, berriz, mahaiak jartzen ziren, zuhaitzen pean betiere, itzala aprobetxatzeko. Garai hartako bizimodua irudikatzea ezinbesteko osagaia zuten inpresionistek. Hala, bada, Renoirrek hilezkor bihurtu zuen leku hura, Inpresionismoaren koadro mitikoetako batean hain zuzen. Degasen helburu nagusia zen irudi guztiak itzalpeko ingurune batean argi-ukituekin margotzea, “Eguzkitan biluzik” edo “Zabua” koadroetan bezala. Tonu malbak erabili zituen itzalak margotzeko. Mahaietan, Lamy, Goeneutte eta Georges Rivière pintoreak ikusten dira, Estelle eta Jeanne ahizpak eta Montmartre auzoko beste zenbait neska gazte. Eszenaren erdian, berriz, dantzan ari dira Pedro Vidal pintore kubatarra eta haren lagun Margot; atzealdean, Cordey, Lestringuez, Gervex eta Lhote pintoreak daude. Jendetza-efektua bikain lortu zuen Renoirrek. Bi perspektibatatik margotu zuen eszena: lehenbiziko planoa, goitik; atzealdean dantzan ikusten diren gizon-emakumeak, aurretik. Degasek asko maite zuen perspektiba-nahaste hori, baita beste zenbait artistak ere. Diagonal batekin eta urruntzen ari diren hainbat plano paralelorekin dago antolatua koadroa. Ez ditu ahaztu pintoreak elementu klasiko horiek. Bi zirkulutan daude ordenatuta irudiak: mahaiaren inguruan bata, trinkoena, eta dantzari-bikotearen inguruan bestea, irekiagoa. Giro-sentsazioa emateko, irudiak lausotu egin zituen pintoreak, eta halako aire-kutsu bat sortu zuen pertsonaien inguruan. Koadroaren alaitasuna dela eta, obra hau dugu Renoirren eta talde osoaren garrantzitsuenetako bat. Halaber, XIX. mendeko Pariseko bizimoduaren lekukotza ere bada. (***Renoir***, CD-ROMa. Ediciones Dolmen S.L.; 1999).

**Musikalana: *Tosca. Giacomo Puccini.* III. ekitaldiaren amaiera**
**(“E non giungono” – “Trionfal di nova speme”: 2:39; “L’ora!” – “Son pronto”: 0:37; “Como è lunga l’attesa!”: 2:34; “Presto, su!”: 1:32)**

Hiru ekitaldiko opera. Libreto: Giuseppe Giacosa & Luigi Illica, Victorien Sardou-ren obran oinarritua: Londres, 7/1976. Estreinaldia: 1900eko urtarrilaren 14an.
Erroma (Constanzi antzokia). Lekua eta garaia: Erroma, 1800eko ekaina.

## III. EKITALDIAREN SINOPSIA

Sant’Angello gazteluan dago Cavaradossi. Handik idatzi dio gutuna Toscari. Orduan, emakume abeslaria azaltzen da, berri on batekin: bizirik dago. Haren heriotza fartsa baino ez da izan. Tiro egiteko agindua eman dute. Cavaradossi hormaren kontra dago, simulazio bat delakoan. Baina tiroak benetakoak dira. Scarpiak traizio egin diola ohartu da Tosca: hilda dago Cavaradossi. Scarpiaren hiltzailea Tosca dela jakin dute. Lekaioak badatoz. Toscak bere buruaz beste egin du, gazteluaren goiko aldetik salto eginda (András Batta, Opera, 462 or.).



# 5.2.Emoziozko ezagutza

## 5.2.2. Artearen emoziozko ezagutza

*17. jarduera: Bi lan literarioren forma eta baliabide erretorikoen analisia*

*18. jarduera: Literatur generoak eta testu-iruzkinak*

*19. jarduera: Hainbat arteren iruzkin konparatua (zinema eta pintura) gatazkatik*

## Irakasleentzako gida

***1. Sarrera***

Hau ez da Erretorika Klasikotik datorren baieztapen bat azpimarratzeko unea: arteak atsegin ematea eta hunkitzea lortzen du, baina baita irakastea ere (*"delectare, movere et docere"*). Hala ere, azken mendeetan, arteak gero eta harrera hobea izan du jendearen artean, eta horrek bere balio didaktikoa gutxitu du beste bien mesedetan. Ahaztu egin zaigu, J. Marías-ek dioen gisan (1992:16), berezkotasuna hezten, baina baita –gure ustez– artearen bidez **ezagutzen** ere.

Gure abiapuntua, artelanen konposizioa irudi estetikoz egina dela (arte guztietan aztertuko dugu) da, ideia-, sentimen- edota sentsazio-multzo batera garamatzaten irudiez. Horien artean, lehenago ikusi dugun bezala, sinboloak garrantzi espresibo osoa du.

Horrela, sormen artistikoaren arlora gatoz, bi noranzko dituen arlora; izan ere, alde batetik, artista sortzailearengana garamatza, eta bestetik, birsortzera, harrera artistiko osora. Gai horiek, ordea, sakonak dira oso, eta sarrera labur honetan ezin diegu behar bezala heldu. Hauxe besterik ez dugu esango, I. Paraíso-ren laguntzarekin (1995:119-134): fantasia sortzaileek errealitateak eragiten duen frustrazioa konpentsatzen dute, eta, plazerra eta autorearentzako eta hartzailearentzako (identifikatu eta gero) katarsia sortzen dute, oreka kolektiboa berrezarri baita jarrera-eredu batzuk ezarri ere, esperientzia errealak izan ez arren (definizioz aldaezina), hartzailearen erantzunak bideratzen dituztenak. Artea, zalantzarik gabe, desio ditugun objektu bizigabe eta bizidunekin eta besteekin elkartzeko eremu pribilegiatua da, izan ere, arteak oinarri antropologiko-irudizko batzuk ditu, lan bakar eta berdingabe batek oihartzun unibertsala izatea eragiten dutenak (A. García Berrio; 1994:634-640). Beraz, sormenak bere muga artistikoak gainditzen ditu, eta, gainera, ezinbesteko ideal berri bihur daiteke (A. López Quintás; 1987).

Unitatearen atal honetan, hiru alderdi erabat inbrikatu aztertu nahi ditugu:

1. Artistak lana konposatzeko erabiltzen dituen bitarteko estetikoak ezagutzea.
2. Artistaren barne-munduaren eta objektu errealen kanpo-munduaren arteko harremana zenbatestea. Harreman horrek identifikazio artistikoa ekar dezake (kanpokoaren introiekzioa edo barrukoaren proiekzioa), kanpokoari buruzko hausnarketa-arrazoiketa pertsonala edo esperientzia autobiografikoen irudikapena.

3. Gure zentzumenak eta aparatu kognitibo-emoziozkoa lanean jarriko duen harrera artistikoa sustatzea. Gure ikasleek gorputz osoarekin gozatzen, hunkitzen eta ezagutzen ikastea nahi dugu.

## 2. Helburuak

- Ahoz eta idatziz zuzen eta koherentziaz espresatzea, helburuak eta komunikazio-egoerak aintzat hartuta, pixkanaka norbere emoziozko ezagutzatik eta besteen ezagutzatik etorritako estilo adierazgarri propioa hartuz.

- Lan literario eta artistikoetara gero eta autonomia gehiagorekin heltzea.

## 3. Jardueren segida

### 17. jarduera: Bi lan literarioren forma eta baliabide erretorikoen analisia

- *Deskribapena:* Jarduera honetan, bi literatur-testu oinarri hartuta, lan literarioen formaren analisian sakontzen da. Horretarako, baliabide erretorikoak errepasatzea proposatzen dugu, analisi-jarduera baten bidez. Ikasleek testuek komunikatzen dituzten ideiak, sentimenak, sentsazioak eta erabilitako baliabide literarioak antzeman beharko dituzte.

- *Beharrezko materiala:*
    - *Egiaren osasuna*. Gabriel Aresti.
    - *Egunsentiko ihesa.* Pako Aristi.

  Gainera, hauek ere izatea aholkatzen dugu:
    - Erretorikako eskuliburu on bat. *Fundamentos de retórica*, Kurt Spang-ena, edo *Manual de retórica*, Bice Mortara Garavelli-rena, aholkatzen ditugu.

- *Dinamika:* Banakakoa.

- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 18. jarduera: Literatur generoak eta testu-iruzkinak

- *Deskribapena:* Jarduera honetan Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiko helburu nagusietako bati helduko diogu: testu-iruzkina. Horretarako, hiru genero nagusien iruzkinak bereizten dituzten gidoi batzuk erabiliko ditugu. Jarduera neutroa izatea nahi genuke, gero teknika hori hautatutako testuen analisi partzialean aplikatu ahal izateko, elkartasunerako hezkuntzako alderdirik interesgarrienetan. Testu-iruzkinak egiteko metodologiak ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzen du. Amaieran banaka lortutako emaitzak guztien artean eztabaidatzea aholkatzen dugu.

- *Beharrezko materiala:*

  Testu narratiboa:
    - *Burua lehertu zitzaigunekoa.* Xabier Etxaniz Rojo.

  Testu lirikoa:
    - *Nire aitaren etxea*. Gabriel Aresti.

  Testu dramatikoa:
    - *Beteluko Balnearioko Mirakulua*. Mikel Antza eta Iñaki Uria.

Gainera, honako hauek aholkatzen ditugu:

- Testu-iruzkinak egiten ikasteko hainbat lan. Unitate didaktikoan, gidoiak prestatzeko, joera semiotikoa hautatu dugu. Ikusi horri buruz J. Romera Castillo-k esana (1990).
- Termino literarioen hiztegia, literatur teoriako lanak eta literatur generoen ezaugarriei eta historiari buruzkoak. Horri buruzko sarrera on bat M. A. Garrido-rena da (2000).

- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko hiru saio. Hiru egunetan jarraian egitea gomendatzen dugu.

### *19. jarduera: Hainbat arteren iruzkin konparatua (zinema eta pintura) gatazkatik*

- *Deskribapena:* Ikasleek, konparatuz, etapa kultural bereko hainbat arteren (zinema eta pintura) iruzkinak egiten ikastea da gure asmoa, kasu honetan 25 eta 27 urteen arteko abangoardietakoak. Lan bakoitzeko funtsezko sinboloak zein diren antzeman eta konparatu ondoren, garai horretako gatazkak deskriba ditzakegu.
- *Beharrezko materiala:*
    - *Potemkin Korazatua* filmea. Serguei M. Eisenstein.
    - *Los placeres iluminados* koadroa. Salvador Dalí.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



## 17. jarduera

# Bi lan literarioren forma eta baliabide erretorikoen analisia

**1** *Irakurri arretaz Gabriel Arestiren poema hau.*

Egiaren osasuna

## Berriro etorri naiz

Portura heltzen den batelaren antzean
Nire atzetik dator
Hainbat oroitzapenen itsaso beltz bizia.

Ene herritxua
Nire portu baketsua
Gurasoen kabia hutsa
Hil zaizkigunen kanposantu eternala.

Zugandik alde urteak dira
Munduan zehar ibilia nagoela
Udaberriaren lagun
Enadak berak ere badatortza
Bakearen kimu berdeak
Erne baitira gizonen artean.

Urteak dira baina
Orma hautsiak ikusten ditut oraindik
Eta bihotzean gorrotoaren bitsa.

Hamaika zatitan birrindurik
Dagoen gure herri honetan
Gizonak eztira anai.

Egiazko hitzak eta gezurrezko ideiak
Erakusten dizkigute
Maitatzen dutelakoa
Gorrotatzen dute.

Ezta geiso gaurkoa
Gaurko geisoa izan arren egiaz
Betidanik gure artean
Oñaz eta Ganboaren arteko hasarreak
Pizturik dirau.

Behinolako karlistak eta liberalak
Gaurko ezkertiak eta eskumatiak
Berriro odoleztatu dituzte
Mendiak eta gartzelak.

Atzo jauntxuak gaur kapitalistak
Feudalak atzo burgesak gaur
Zeinbat zakur hainbat mustur.

Bakoitzak dio:

Lagun hurkoa hiltzeko eskubidea
Eztauka inork
Nik baizik.

Guztiengandik hurrun
Ihes egin nuen nik.

Alderdi hiltzale bakoitzak esan zidan:
Nirekin ezpazaude
Etsaien zelataria zarade.

Haiek egia zekien nik baino hobeki...!
Eta ez beren egia, nirea baizik...!
Barneko ideiaren ardoak
Sena galdu arte mozkortzen gaitu
Asko dira mozkortzen direnak
Gure herrian gehienak.

Ogitik datorkigu egia
Egiatik datorkigu ogia
Gizonak
Ez tripatik
Ogiz bakarrik ezkara bizi
Zerren egia-ogia hutsik
Beharrezkoena da guretzat.

Aizearen hagaletan eskegi nuen
Nire barneko deiadar sutsua:
Tisis edo bizien,
Har-edo-laga beharreko honetan
Ez bata ez bestea
Nahiago dut osasuna.

Osasun-osasuna
Ogi oso bat egia oso bat
Ogiaren eta egiaren osasuna.

Tisiko alderikoak zuri
Gorrotoaren gorrotoz tinko
Zegozkidan so.

Bizien alderdikoak ere
Gorrotoaren gorrotoz beterik
zegozkidan adi.

Haien erdian bizirik nengoen
Osasunaren defentsore bakarra.

Egia osoaren defentsore bakarra.

Urteak dira eta oraindik ere
Gure herriaren ariman
Gorrotoaren suak dirau pizturik.

Kantabriako itsaso eder gurea
Epel itzatzu bihotz sutsu gogor hoek
Zure antzean gizonek har
Dezaten zeruaren kolore urdina.

Gabriel Aresti,
*Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 27- 29 orr.

## 2

*Orain, Gabriel Arestik poema honekin transmititzen dituen ideia, sentsazio eta emozioetan sakontzea proposatzen dizugu. Idatzi taula honetan zatirik esanguratsuenak eta jarri, alboan, bakoitzak transmititzen dizun ideia, sentimena eta sentsazioa, baita erabilitako baliabide literarioaren izena eta deskribapena ere.*

**_Egiaren osasuna_. Gabriel Aresti**

| Zati esanguratsua | Maila | | | Baliabidearen deskribapena | Baliabidearen izena |
|---|---|---|---|---|---|
| | Ideia edo kontzeptua | Sentipena | Sentsazioa | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

## 3

*Irakurri arretaz Pako Aristiren testu hau.*

### Egunsentiko ihesa

**Artean neoi** argi batzuek piztuta zeuden, gauean dardara eginez. Baina bazetorren eguna. Azkar itzali zuen esnagailua. Bizkor utzi ohea. Eta isilik itxi gelako atea, maitearen loa eten nahi ezta.

Sukaldeko leihora irtenda, hiriak isuri zion lurrin eta haize anabasa lehenxeago aurpegira botatako ura baino freskagarriagoa gertatu zitzaion.

Zerura begiratuta, ez zuen sumatu lainoen presentziak argiari eragiten dion esne kolorearen aztarnirik. Aldiz, urdiniluntzen ari zen gaua, itzal arreen mintzak kentzen urduri, eta laster, agian kafea berotu eta hartzetik berriro leihora itzultzerako, argituko zuten.

Egun ona zetorren motoan bidaia luze hura egiteko. Bezperan katea engrasatua zuen, olioztatuak enbrage, balazta eta martxa gailuak, puztuak gurpilak neurri egokiraino, garbitua haizearen filtroa. Atzeko zakutoetan hauspoa eta kamara bat zeramatzan, pintxazoak zoritxartu ez zezan haren bidaia.

Kasko bana ukalondo bakoitzeraino sartua, bi eskularru pare esku batean eta motxila bestean, ateratzeko gertu jarri zen. Ez zuen gosaltzerakoan ontzihots handirik atera baina, maitea deika ari zitzaion. Joateko musu bat ematera.

Etxeko aireak Artizarraren hats garbiaz egina zirudien ordu haietan, egunaren zehar gela bakoitzari ematen diogun arbilerak horme itsasten dien zapore berezirik gabea, logelakoak izan ezik. Han, bi gorputzek elkar ukitzean irazekitzen dute bapore antzeko loditasuna zen nagusi, sexua maitasunaren alderdi usaintsua besterik ez baita. Eta bapore haren erdian, maitearen begiak bi tanta ziren.
“Esaidazu agur behintzat!”

Musu eman zion.
“Itzuliko naiz!”
“Badakit itzuliko zarela, baina betirako joan zintezkeela ere badakit!”

Beste musu bat ostu zion maiteak.
“Zergatik uste duzu hori?”
“Begiratzen didazunean,
batzuetan oraindik beste zerbaiten bila
dabilenaren begirada urduria
ikusten dizudalako,
eta ez benetako amodioa
aurkitu duenaren
begiratu atsedengarria”.

Asko kosta zitzaion gela uztea. Harrizkoak zituen hankak. Motora igo orduko arinduko zitzaizkion. Abiadak lasaituko zuen etxetik atera aurretixeago ispiluak aurkeztu zion pizti negartia.

Pako Aristi, *Oherako hitzak*, 14-15 orr.

**4**

*Orain, Pako Aristik testu honekin transmititzen dituen ideia, sentsazio eta emozioetan sakontzea proposatzen dizugu. Idatzi taula honetan zatirik esanguratsuenak eta jarri, alboan, bakoitzak transmititzen dizun ideia, sentimena eta sentsazioa, baita erabilitako baliabide literarioaren izena eta deskribapena ere.*

| ***Egunsentiko ihesa*. Pako Aristi** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Zati esanguratsua | Maila | | | Baliabidearen deskribapena | Baliabidearen izena |
| | Ideia edo kontzeptua | Sentimena | Sentsazioa | | |
| | | | | | |
| | | | | | |





## 18. jarduera

# Literatur generoak eta testu-iruzkinak

**1** *Irakurri honako testu hauek.*

1. Testu lirikoa. **Nire aitaren etxea**

### Nire aitaren etxea

defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.
Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak,
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut.
Harmak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
besorik gabe,
sorbaldik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.

Gabriel Aresti, *Harri eta Herri*

**Saldu egin dut etxea maitea.** Jakin badakit ez zenuela ideia gustuko baina geroz eta zailago suertatzen zait hemengo airea arnastea. Hormeei hotz sarkorra darie eta zugandik hurbil izandako gauza orok, behinola bizi-bizirik, egun oroitzapenek daramaten hautsa baino ez dirudi. Egia da laztana. Etxe honek zure arima du gorderik, estu-estu loturik zauzka eta alperrik da nik etxeko leihoak zabal zabalik lagatzea ezin ihes egin baitezakezu. Hain tinko, hain finko atxiki zintzaizkion etxeari non bereganatu zintuen emaro-emaro, gau ilunak haize eta uhinen firfira bereganatzen duen legez. Baina maitea, ezin dizut gezurrik esan. Zure irudiak beldurtzen nau eta ezin dut gehiago pairatu. Gomuta hutsa nauzu. Maitasunez bete genuen etxea, gure etxea eta ezin uka dezaket amodioak urte mordo batez iraun zuela bertan baina zu joan zinenez geroztik zeurea baino ez da eta nik, zintzoki diotsut, maitasuna gorde, gordeko dut betirako, ene bihotzean bai, horma hauetatik urrun baina. Datorren astean utziko dut etxea, maitea, nahigabez beterik utzi ere. Gauza arras gutxi eramango dut, honez gero gurasoena zenuen maleta beltzaren barrenean direnak. Zin dagizut ez zaitudala sekula ahantziko baina, nire hobe beharrean, bizitza lehenbailehen garbitu beharra dut, gaur berandu baita.

Gaur zure langelan sartu naiz. Hilabete dezente igaro dira joan zinenez geroztik, hilabete dezente langela ikusi gabe, zu baitzinen bertara erakartzen ninduena. Zenbat ordu emanak mahai hartan eserita lan eta lan. Oroimenak nire kontra jokatuko zuelakoan bertara sartu eta zure irudia ikusi dut mahaiaren aurrean liburu potolo horietako bati zerion jakinduria zeureganatu nahian. Eta usaindu egin dut eraman ohi nizun kafearen usaina, lanaren atzamarretatik salbatzera joaten nintzaizunekoa. Eta hantxe ikusi ditut zure betaurrekoak, zure idazluma eta sekula irakurri ez nuen diarioa.

Xabier Etxaniz Rojo, *Gabriel Aresti Sariak. Bilbao Hiri Ipuinak*, 162-163 orr.

## 3. Testu dramatikoa. **Beteluko Balnearioko Mirakulua**

**Sarrera gisako lehen ekitaldia**

Administraritza edota instantzi ofizialen bateko bulego bat. Harrera-gelako besaulkitan eserita bi pertsona. Aspertuak. Ezkerretako idaz-mahaiaren atzean sekretariak makinaz idazten du, etengabe. Bi pertsonetako bat altxa eta sekretariagana doa.

ANTZEZLE 1: Atsegin nuke Ministrari jaunak gure informea irakurriko balu, goizeko hamarretan genuen zita, eta laister gaueko hamarrak izango dira. Beraz, asko eskertuko nizuke arduratuko bazina...

(Ezkerreko aldetik, eta antzeztokia diagonalean gurutzatuz Ministrari jauna presaka agertuko da. Bi antzezleak bereganuntz zuzentzen dira premiatsu).

MAKARREGI: Ez, ez, ez (eskubikaldetik desagertuko da).

(Bi antzezleak esertzera doazela, desagertu leku beretik berragertuko da Ministraria kafe katilutxotik urrupatuz).

ANTZEZLE(ak): Baina Ministrari jauna, kontuan izan gu hona etorri...

MAKARREGI: Ezetz, ezetz!!!...

(Lehenengoz agertu den lekutik desagertuko da MAKARREGI eta antzezleak hasierako besaulkira itzuliko dira).

MAKARREGI: (inter-phonotik) Karmentxu! Ez nago inorentzat.

KARMENTXU: Bai, Ministrari jauna. Txoruaaa!!!

(ANTZEZLE 2 altxako da oraingoan sekretariagana joateko, lore bat eskutan).

ANTZEZLE 2: Oi!, zein ederra zaren. Zuk lortuko zenuke zita bat guretzat. Zure edertasunak lortzen ez duena ez dezake eta beste ezerk lor.

KARMENTXU: Txoruaaa!!!

(Beste behin ere agertuko da MINISTRARIA, oraingoan aldegiteko trazekin; ANTZEZLE(ak) beregana doaz beste behin ere).

MAKARREGI: Bihar, bihar, zatozte bihar. Bihar emango dizuet eta nahi duzuen guztia.

(ANTZEZLE(ak), seko gelditu ondoren, erreberentzi bat eginez KARMENTXU agurtu eta maletak hartuz badoaz).

- ILUNA-

Sarrera gisako bigarren ekitaldia.

(Argiak pizten direnerako, antzeztokiko aurrekaldean bi ANTZEZLEak maleta banaren gainean eserita dauzkagu. Batak periodikua letzen du. Gainerantzekoa erdilunpean. Irakurleak zerbait interesgarri topatzen du).

ANTZEZLE 1: Entzun ezak hau, entzun: "Atzo arte Kultur Ministrari izan zen Makarregi jaunak dimisioa aurkeztu zuen. Erabaki honek ustekabean hartu ditu komunikabide guztietako politika arduradunak, baina hala ere...".

(Elkarri begira geratzen dira bi ANTZEZLEak).

ANTZEZLE 1: Zer egin dezakegu gure Makarregirekin?

ANTZEZLE 2: Zer beharko genuke?

ANTZEZLE 1: Toki lasairen bat, urrun dagoen tokiren bat...

ANTZEZLE 2: Bakartia, jenderik gabea...

(Antzeztoki gradualki argituz joango da. Une honetan, ezkerraldea ikusiko da, Balnearioko sarrerako atea eta harreralekua erakutsiz. Guzti hori errealitateko beste laun batean gertatzen da, hau da, ez antzezleak dauden tokian).

ANTZEZLE 2: Gauzak sineskaitz, misteriatsu bilaka daitezkeen tokiren bat; giro berezi horretan murgildurik, egiazkoa dena eta asmakizuna nahas daitezen...

ANTZEZLE 1: Gertaerak jolasean bezala jazoko diren ingurune ez-ziurra, ziurtasun gabea.

(Orain eskubikaldea argituko da ANTZEZLEen atzean).

ANTZEZLE 2: Gauzak nahasi, mugak hautsi...

ANTZEZLE 1: Asmakizunak asmatu, aldaketak lortu...

ANTZEZLE 2: Amodioa eme daitekeen tokiren batetan guztia burutu...

(Erdikaldea argituko da une honetan, antzeztoki guztian argitasun maila gorena lortuz. Ondoren ILUNA nagusituko da, eta ANTZEZLEak egon lekuan bi kandelargi piztuko dira. Horietako bat antzeztokitik desagertuko da. Berriro ere argiak emeki-emeki piztuz joango direnean Beteluko Balnearioko ZUZENDARIA besaulkian lo ikusiko dugu, kandelargi baten argitasun behargabepean).

-ILUNA-

Mikel Antza eta Iñaki Uria,
*Beteluko Balnearioko Mirakulua*.

**2**

*Egizu hiru testu horien iruzkina genero bakoitzari dagozkion jarraibideak aintzat hartuta; honako taula hauetan dituzu azalpenak. Iruzkinak amaitutakoan, gainerako ikaskideekin eztabaidatuko ditugu.*

| 1. taula: *Iruzkin literarioa oro har eta sorkuntza literarioaren faseak* | |
|---|---|
| **Iruzkin literarioa oro har** | **Testu baten sorkuntza** |
| **1. Kokagunea:** autorea, lanaren izenburua (pasartea, poema...) eta garaia edo literatur mugimendua aipatu. | **1. FASEA**<br>**ASMATZEA** |
| **2. Komunikazioa**<br>2.1. Kanpo-komunikazioa: lanaren komunikazioa aztertu.<br>a) Komunikazio-zirkuitu literarioa zehaztu. Erabili beharreko oinarrizko eskema hau da: autorea - testua - irakurlea.<br>b) Lanaren transmisioa aztertu. Oro har, ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daiteke. Kasu batzuetan kontuan hartu behar da errezitatzeko, kantatzeko, ozen irakurtzeko... egina den.<br>c) Paratestua aztertu: azal-hegalak, genero-azpitituluak, etab.<br>d) Kode estetikorik baden antzeman, hau da, edertasuna sortzeko (funtzio poetikoa) hizkuntza ezohiko moduan erabili ote den antzeman.<br>e) Lanaren testuingurua aztertu:<br>1. Testuinguru historikoa eta soziala: lanean ageri diren gertakari historikoak; asaldura sozialak, etab.<br>2. Testuinguru kulturala: mugimendu kultural eta literarioen eragina eta ezaugarriak.<br>3. Testuinguru (auto)biografikoa: autorearen bizitzako esperientzien daturik ageri den edo ez.<br>2.2. Barne-komunikazioa: testuko ahotsak eta barne-hartzailearena edo hartzailearena aztertu.<br>a) Testuko barne-igorlea nor den, zer mezu transmititzen duen eta barne-hartzailea nor den (baldin badago) zehaztu. Oinarrizko eskema hau da: barne-igorlea - mezua - barne-hartzailea.<br>b) Igorle- eta hartzaile-motak sailkatu: barnekoak edo testukoak. Genero bakoitzak berezitasun batzuk ditu.<br>c) Igorle-hartzaile harremana. | **A) EKARPENA**<br>**B) AUKERAKETA** |
| **3. Testu-mota:** lirikoa, narratiboa eta dramatikoa. Bakoitzaren azpimotak. | |
| **4. Testuko eremu semantiko eta isotopia nagusiak antzeman:** hitzak eta esamoldeak esanahiaren arabera multzokatu. | |
| **5. Gaia eta ikuspuntua zehaztu:** testuaren edukia eta xedea laburbiltzen dituen esaldi konplexua. Subjektua + aditza + aurreko multzoetan oinarritutako osagarriak izan behar ditu. | |

| | |
|---|---|
| **6. Egitura:** testua, oro har, optikografikoki nola egituratuta dagoen karakterizatu.<br>6.1. Kanpo-egitura: testuaren zatiketa eta banaketa (paragrafoak, kapituluak, hitz-ordenak, ahapaldiak...).<br>6.2. Barne-egitura: banaketa, progresioa eta koherentzia gai nagusiaren testuan.<br>a) Testua zati esanguratsutan banatu.<br>b) Zati horien lotura eta erlazioa aztertu. | **2. FASEA ASMATZEA** |
| **7. Forma analizatu:** testua nola idatzita dagoen eta zer transmititzen duen (esanahi-mailak) analizatu behar da. Hau da, esanahiaren arabera testua nola osatuta dagoen edota zer sinbolismo darabilen aztertu behar da.<br>a) Edozein testutan azter daiteke alderdi linguistikoak (fonikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexikosemantikoa) nola erabili dituzten.<br>b) Testu literarioetan edo xede estetikoa dutenetan, testu guztietan agertzen diren alderdi linguistikoez gain, *ornatus-a* edo hizkuntza ezohiko eran edo era poetikoan erabiltzeko baliabide propioen sorta ere badago. *Ornatusa* ebakera-figurek (nola ahoskatu edo zein soinu erabili), pentsamendu -figurek (esanahia) eta tropoek (ordezkapena) osatzen dute. Testu literarioen forma analizatzea, nagusiki, *ornatusa* nolakoa den eta alderdi linguistikoetan zein elementu nabarmentzen diren aztertzea da. Autoreak erabili dituen bitartekoei buruzko aipamen ororekin batera, transmititzen dituen esanahi-maila edo mailak ere azaldu behar dira (subjektibotasuna ideietan, sentimenetan edota sentsazioetan). Bi eratara egin daiteke hori:<br>1. bertso-lerroz bertso-lerro edo lerroz lerro.<br>2. esanahi-mailaka. | **3. FASEA: MINTZAKERA**<br>**1. LEHEN IDAZKERA**<br>**2. EGOKITZAPENA**<br>**3. TESTU-KOHESIOA**<br>**4. TESTU-KOHERENTZIA**<br>**5. ZUZENTASUNA**<br>**6. ESPRESIBITATEA** |
| **8. Azken ondorioa:**<br>a) Gauzarik nabarmenenak laburbildu.<br>b) Iruzkindutako testuaren garrantzi sozial, kultural, estetiko eta pertsonala zenbatetsi. | **4. FASEA: IRAKURMENA ETA SORTUTAKO TESTUAREN BALIOESPENA** |

### 2. taula: *Testu liriko baten iruzkin literarioa*

**1. Kokagunea:** autorea, lanaren izenburua (pasartea, poema...) eta garaia edo literatur mugimendua aipatu.

**2. Komunikazioa**

2.1. Kanpo-komunikazioa: lanaren komunikazioa aztertu.

a) Komunikazio-zirkuitu literarioa zehaztu. Erabili beharreko oinarrizko eskema hau da: autorea - testua - irakurlea.

b) Obraren transmisioa aztertu. Oro har, ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daiteke. Kasu batzuetan kontuan hartu behar da errezitatzeko, kantatzeko, ozen irakurtzeko... egina den.

c) Paratestua aztertu: azal-hegalak, aipuak, genero-azpitituluak...

d) Kode estetikorik baden antzeman, hau da, edertasuna sortzeko (funtzio poetikoa) hizkuntza ezohiko moduan erabili ote den antzeman.

e) Lanaren testuingurua aztertu:

1. Testuinguru historikoa eta soziala: lanean ageri diren gertakari historikoak; asaldura sozialak, etab.
2. Testuinguru kulturala: mugimendu kultural eta literarioen eragina eta ezaugarriak.
3. Testuinguru (auto)biografikoa: autorearen bizitzako esperientzien daturik ageri den edo ez.

2.2. Barne-komunikazioa: testuko ahotsak eta barne-hartzailearena edo hartzailearena aztertu.

a) Testuko barne-igorlea nor den, zer mezu transmititzen duen eta barne-hartzailea nor den (baldin badago) zehaztu. Oinarrizko eskema hau da: barne-igorlearen pertsona poetikoa - testu lirikoa - barne-hartzailearen pertsona poetikoa.

b) Igorle- eta hartzaile-motak sailkatu: barnekoak edo testukoak. Barne-igorle motak: ni poetikoa, gu eta 3. pertsona eta inpertsonalak. Barne-hartzaile motak: zu poetikoa, zuek eta 3. pertsona eta inpertsonalak.

c) Igorle-hartzaile harremana nolakoa den, testu lirikoa izango da:

1. testu bihurkaria: igorlea eta hartzailea pertsona bera dira.
2. barne-hartzailea duen testua: igorlea eta hartzailea pertsona poetiko ezberdinak dira (barne-elkarrizketa oso ohikoa da).
3. kanpo-hartzailea duen testua: ez dago barne-hartzailerik; hartzailea irakurlea da.

**3. Testu lirikoa:** barne- eta kanpo-munduaren ikuspegi subjektiboa. Ez dago narratzailerik, ez istoriorik, baizik eta ideia, sentimen eta sentsazio subjektiboen transmisioa. Kanpoko munduaren eta poetaren barne-munduaren arteko harremana hiru motatakoa izan daiteke:

1. Kanpoko munduko elementuak eta poetaren barne-mundukoak parekatzen dituena (introiekzioa, kanpokoak barnekoari eragiten badio; proiekzioa, barnekoak kanpokoa baldintzatzen badu).
2. Kanpoko munduari buruzko hausnarketa pertsonala.
3. Poetaren kanpoko munduak eta barnekoak lotura (auto)biografikoa dute.

**4. Testuko eremu semantiko eta isotopia nagusiak antzeman:** hitzak eta esamoldeak esanahiaren arabera multzokatu.

**5. Gaia eta ikuspuntua zehaztu:** testuaren edukia eta xedea laburbiltzen dituen esaldi konplexua. Subjektua + aditza + aurreko multzoetan oinarritutako osagarriak izan behar ditu.

**6. Egitura:** testua, oro har, optikografikoki nola egituratuta dagoen karakterizatu. Testu liriko baten egiturak itxura orokor bat izan dezake:

1. Ikusmenarekin edo tipografiarekin zerikusia duena: bertsoak bisualki antolatuta daude, objektu bat, izaki bat... gogoratzeko.
2. Formarekin zerikusia duena: testu zirkularrak (hasiera eta amaiera berdina dute), errepikapen paralelistikoak dituzten testuak, errepikaren bat edo salmodia-kutsua duten testuak, etab. Deskribatu.

6.1. Kanpo-egitura: hasteko, testua hitz neurtuz edo hitz lauz (poetikoa edo lirikoa) dagoen zehaztu behar da. Hitz neurtuz idatzitako testuen kanpo-egitura metrikari lotuta dago. Oso garrantzitsua da bi alderdi bereiztea:

a) Erritmoa: hitzen eta bertsoen azentu-eskemekin, horien arintasun, harmonia eta musikaltasunarekin zerikusia du. Testu liriko guztietan dago, nahiz hitz neurtuetan nahiz hitz lauetan, bertso libreetan eta gainerakoetan.

b) Bertsokera: bertso aske modernoak (silaba-kopuru eta errima jakinik ez dutenak) eta forma metriko jakin bat errespetatzen duten konposizioak bereizi behar dira. Azken kasu horretan, aztergai bat baino gehiago daude:

1. Bertsoa.

1.1. Silaba-kopurua: bertso-lerroaren silaba-kopurua (bertso-lerro luzea edo motza); kontaketa baldintzatzen duten fenomenoak (azken hitza oxitonoa edo paroxitonoa; sinalefak, dieresiak eta sineresiak).

1.2. Azentuak eta erritmoa: azentu-eskemaren arabera silaba-kopuru bera duten bertso-lerroak; bertso-etena eta zangalatraua (arina edo bortitza); bertso-lerro luzeetan, bi hemistikioen arteko zesura edo etena.

1.3. Bertso-lerro motak: bertso-lerro askea (errimatzen duten bertso-lerroen artean, errimarik ez duena) edo zuria (bertso-lerro guztiek silaba-kopuru bera dute, baina errimarik ez).

2. Ahapaldia: ahapaldi motak, bertso-lerro, errima, silaba-kopurua, etab. kontuan hartuta.

2.1. Errima: kontsonantea (bertso-lerroko azken bokal azentudunetik hasita, fonema guztiak, kontsonante nahiz bokal, errepikatzen dira) eta asonantea (bokal-fonemak soilik errepikatzen dira).

2.2. Garaiaren arabera, ahapaldi batzuk besteak baino gehiago erabili dira.

3. Poema: ahapaldi batek baino gehiagok osatutako konposizioa. Motak. Garaian garaiko erabilera.

6.2. Barne-egitura: banaketa, progresioa eta koherentzia gai nagusiaren testuan.

a) Testua zati esanguratsutan banatu.

b) Zati horien lotura eta erlazioa aztertu. Prozedura lexikoak (hitz semantikoak errepikatzea, esanahiak errepikatzea, isotopiak); sintaktikoak (alborakuntza, juntadura eta menderakuntza); gramatikalak (kontzeptu gramatikalak edo logikoak); denborazkoak (denboraren erreferentziak) eta lekuzkoak (lekuaren edo izaki edo objektu baten zatien erreferentziak). Batzuk edo besteak erabiltzen dira testu lirikoaren tonuaren arabera (deskribatzailea, bihurkaria, argudiatzailea...).

**7. Forma analizatu:** testu lirikoa nola idatzita dagoen eta zer transmititzen duen (esanahi-mailak) analizatu behar da. Hau da, esanahiaren arabera testua nola osatuta dagoen edota zer sinbolismo darabilen aztertu behar da. Horretarako, oso garrantzitsuak dira irudi poetikoak. Poeta bakoitzak bere sinboloak izaten ditu, baina, oro har, hiru irudi-multzo handi daudela esan liteke:

1. Goranzko irudiek materia argitsuekin eta bereizketa-teknikekin zerikusia dute: igotzea - argia edo eguzkia - ezpata.
2. Beheranzko irudiek sakontasunarekin eta iluntasunarekin dute zerikusia: beheranzkoa -itzala- elementu neurritsuak.
3. Marruskatzearekin eta zikloarekin zerikusia duten irudi zirkularrak: zirkulua - gurpila.

a) Testu lirikoek hizkuntza ezohiko eran edo era poetikoan erabiltzen dute nagusiki; horregatik, hobe da ornatusaren eta alderdi linguistikoetako (fonikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexikosemantikoa) gauza deigarri edo nabarmenen analisian arreta jartzea.

b) Oso garrantzitsua da ornatusa edo hizkuntza ezohiko eran edo era poetikoan erabiltzeko baliabide propioen sorta aztertzea. Ornatusa ebakera-figurek (nola ahoskatu edo zein soinu erabili), pentsamendu-figurek (esanahia) eta tropoek (ordezkapena) osatzen dute. Testu lirikoen forma analizatzea, nagusiki, ornatusa nolakoa den eta alderdi linguistikoetan zein elementu nabarmentzen diren aztertzea da, esanahi-mailak aintzat hartuta betiere. Bi eratara egin daiteke hori:

1. bertso-lerroz bertso-lerro (edo lerroz lerro prosa poetikoan).
2. esanahi-mailaka (ideiak, sentipenak, sentsazioak).

**8. Azken ondorioa:**

a) Gauzarik nabarmenenak laburbildu.

b) Iruzkindutako testuaren garrantzi sozial, kultural, estetiko eta pertsonala zenbatetsi.

## 3. taula: *Testu narratibo baten iruzkin literarioa*

**1. Kokagunea:** autorea, lanaren izenburua (pasartea eta orrialdeak, kapitulua...) eta garaia edo literatur mugimendua aipatu.

**2. Komunikazioa**

2.1. Kanpo-komunikazioa: lanaren komunikazioa aztertu.

a) Komunikazio-zirkuitu literarioa zehaztu. Erabili beharreko oinarrizko eskema hau da: autorea - testua - irakurlea.

b) Lanaren transmisioa aztertu. Oro har, ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daiteke. Kasu batzuetan kontuan hartu behar da errezitatzeko, kantatzeko, ozen irakurtzeko... egina den.

c) Paratestua aztertu: azal-hegalak, aipuak, genero-azpitituluak...

d) Kode estetikorik baden antzeman, hau da, edertasuna sortzeko (funtzio poetikoa) hizkuntza ezohiko moduan erabili ote den antzeman.

e) Lanaren testuingurua aztertu:

1. Testuinguru historikoa eta soziala: lanean ageri diren gertakari historikoak; asaldura sozialak, etab.
2. Testuinguru kulturala: mugimendu kultural eta literarioen eragina eta ezugarriak.
3. Testuinguru (auto)biografikoa: autorearen bizitzako esperientzien daturik ageri den edo ez.

2.2. Barne-komunikazioa: testuko ahotsak eta barne-hartzailearena edo hartzailearena aztertu.

a) Testuko barne-igorlea nor den, zer historia kontatzen duen eta barne-hartzailea nor den (baldin badago) zehaztu. Oinarrizko eskema hau da: narratzailea - testu narratiboa - hartzailea (barnekoa nekez).

b) Igorle- eta hartzaile-motak sailkatu: barnekoak edo testukoak. Narratzaile-motak: 1. pertsonaren arabera 1. pertsonan (protagonista edo lekukoa) eta 3. pertsonan (pertsonaia edo inpertsonala); 2. kontatzen denaren arabera: autobiografikoa edo fikziozkoa; 3. narratzailearen ezagutzaren arabera: orojakilea (guztia daki istoriori eta pertsonaiei buruz), narratzaile-pertsonaia (pertsonaiek daukaten informazio bera du) edo narratzaile-lekukoa (pertsonaiaren batek baino gutxiago daki); eta 4. pertsonaien aurrean duen jarreraren arabera: mitikoa (goi-mailako heroi gisa hartzen ditu), gizatiarra (pertsona gisa hartzen ditu, bertute eta akats eta guzti) edo esperpentikoa (barregarri uzten ditu). Hartzaile-mota: barnekoa (pertsonaia edo irakurle ideala) eta kanpokoa edo irakurle erreala.

c) Balego, narratzailearen eta barne-hartzailearen arteko harremana zenbatetsi.

**3. Testu narratiboa:** ekintza edo istorio baten, pertsonaia batzuen edo giro baten sorkuntza subjektiboa. Narratzailea izaten da (epistola-eleberrietan eta elkarrizketa-gisa idatzitakoetan salbu) eta istorio bat kontatzen da.

3.1. Ekintza-motak sailkatu: protagonista hobetzen dutenak (eginak eta ez eginak edo etsitzaileak) eta protagonista degradatzen dutenak (eginak eta ez eginak edo etsitzaileak).

3.2. Pertsonaiak aztertu.

3.2.1. Aktanteak (pertsonaien funtzioak narrazioko gatazkan): ekintzaren subjektua (nork nahi duen) eta objektua (nor nahi duen) zehaztu; igorlea (eragilea) eta hartzailea (onuraduna); (subjektuaren edo edo sukjektuak nahi duenaren) laguntzailea eta aurkaria; nahiaren helmuga definitu (subjektuak zer nahi duen eta zergatik); eta kontakizunaren oinarrizko esaldia osatu.

3.2.2. Pertsonaia-motak sailkatu: 1) pertsonaia tipoa eta pertsonaia bereizia; 2) pertsonaia bakarra eta pertsonaia kolektiboa edo korala; 3) bilakaerarik ez duen pertsonaia (bakuna edo laua) eta istorioak aurrera egin ahala bilakatzen dena (konplexua).

3.2.3. Pertsonaia nagusien karakterizazio laburra, bakoitzaren bereizgarriak.

3.3. Espazioa eta denbora analizatu: erreferentziazkoa (errealitate konkretu baten imitazioa) eta mikrokosmosa (sinbolikoa).

**4. Testuko eremu semantiko eta isotopia nagusiak antzeman:** hitzak eta esamoldeak esanahiaren arabera multzokatu.

**5. Gaia eta ikuspuntua zehaztu:** testuaren edukia eta xedea laburbiltzen dituen esaldi konplexua. Subjektua + aditza + aurreko multzoetan oinarritutako osagarriak izan behar ditu.

**6. Egitura:** testua, oro har, nola egituratuta dagoen karakterizatu. Testu narratiboen egitura, lehen hurbilketan, honako hauen arabera sailka daiteke:

1. AMAIERA: bukaera irekia (ez esplizitua) eta bukaera itxia; egitura zirkularra (amaiera eta hasiera berdinak dira), etab.
2. EKINTZAK: esperimentu ugari egin dira; perspektibismoa (ekintza bera pertsonaia batek baino gehiagok bizitzen dute); kontrapuntua (bi pertsonaien istorioak gurutzatu egiten dira), kontakizun koralak (istorio asko dituzten pertsonaia asko), etab. Deskribatu.

6.1. Kanpo-egitura: hasteko, testua hitz lauz edo hitz neurtuz (poesia narratiboa) dagoen zehaztu behar da. Hitz neurtuz idatzitako testuen kanpo-egitura metrikari lotuta dago. Hitz lauz idatzitako testu narratiboek, aldiz, segmentazio-prozedurak erabiltzen dituzte, kapituluak edo sekuentziak adibidez. Kanpo egiturako aldaketak balioesteko oinarrizko kontzeptua elipsi narratiboa da, hau da, interesgarriena soilik kontatzearren edo istorioak suspentse gehiago izan dezan ekintzan gertatzen diren saltoek eragiten dituzten denbora-, leku-, edota pertsonaia-aldaketak. Gainera, kanpo-egitura iruzkinean aztertzeko modukoa izaten da ezaugarri bereziak dituenean: adibidez, kaxa txinatarra (kontakizunen barruan beste kontakizun batzuk), kontakizun markoa beste kontakizun batzuk txertatuta, kateatutako kontakizunak edo erlazionatutakoak, etab. Beharrezkoa da, beraz, deskribatzea.

6.2. Barne-egitura: testu narratiboen barne-egiturak bi denbora garrantzitsu elkartzen ditu beti: narrazioaren denbora (istorioa noiz kontatzen den) eta kontakizunaren denbora (istorioa noiz gertatzen den). Kronologia-joko hori abiapuntutzat hartuta, bi egitura klasiko daude:

1. Kronologikoa: istorioaren iraganetik kontatzen den orainaldira egiten da kontakizuna.
2. Hasiera - gatazka - amaiera.

Hala ere, bi egitura horien aldaketak oso ohikoak dira:

3. Istorioaren iraganaren eta kontakizunaren orainaldiaren nahasketa (kaotikoa izan liteke), eta neurri txikiagoan etorkizunarena.
4. Atzera begirako ordena (kontatzen den orainalditik iraganerantz) eta forma mistoa (orainaldian hasi, istorioaren iraganera joan eta orainaldiaren amaierara itzuli).
5. Kronologiaren aldaketak: “flash back” edo iraganerako jauzia; etorkizunaren bihozkada (gehienetan onirikoa), etab.
6. “In media res”: istorioa gatazkarekin hasten da.

a) Testua zati esanguratsutan banatu: ekintzaren garapenarekin zerikusia dute, lehentxeago azaldutako aukeren arabera.

b) Zati horien lotura eta erlazioa aztertu. Prozedura lexikoak (hitz semantikoak errepikatzea, esanahiak errepikatzea, isotopiak); sintaktikoak (alborakuntza, juntadura eta menderakuntza); gramatikalak (kontzeptu gramatikalak edo logikoak); denborazkoak (denboraren erreferentziak) eta lekuzkoak (lekuaren edo izaki edo objektu baten zatien erreferentziak). Bereziki denbora- eta espazio-erreferentziak eta hitzen errepikapena erabiltzen dira, kasu honetan, pertsonaien identifikazio-izenak.

**7. Forma analizatu:** testu narratiboa nola idatzita dagoen eta zer transmititzen duen (esanahi-mailak) analizatu behar da; hau da, esanahiaren testu-mailako eraikuntza aztertu. Testu narratiboetan honako bi alderdi hauek bereiztu egin behar dira: alde batetik, pertsonaien espresioa (errealitatearen irudipen eta imitaziorako joera duena) elkarrizketetan edo narratzailea pertsonaia bat denean (narratzaile-protagonista edo lekukoa lehen pertsonan) eta, bestetik, narratzailearen adierazpena hirugarren pertsonan, giroa edo pertsonaiak deskribatzerakoan ezohiko erabilerara jotzen duena, edo gertakizun eta elkarrizketen zehar-estiloko kontakizunean.

a) Elkarrizketetan eta pertsonaiek egindako kontakizunetan alderdi linguistikoetako (fonikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexikosemantikoa) gauza deigarri edo nabarmenen analisian jarri behar da arreta. Garrantzitsuena ekintza denez, aditzak garrantzi handia du eta bereziki aztertu behar da.

b) Deskribapenetan eta 3. pertsonan eginiko kontakizunetan ornatusa edo hizkuntza ezohiko eran edo era poetikoan erabiltzeko baliabide propioen sorta aztertu behar da. Ornatusa ebakera-figurek (nola ahoskatu edo zein soinu erabili), pentsamendu-figurek (esanahia) eta tropoek (ordezkapena) osatzen dute.

Bi eratara egin daiteke hori:

1. bertso-lerroz bertso-lerro (edo lerroz lerro poesia narratiboan).
2. esanahi-mailaka (ideiak, sentipenak, sentsazioak).

**8. Azken ondorioa:**

a) Gauzarik nabarmenenak laburbildu.

b) Iruzkindutako testuaren garrantzi sozial, kultural, estetiko eta pertsonala zenbatetsi.

**4. taula:** ***Testu dramatiko baten iruzkin literarioa***

**1. Kokagunea:** autorea, lanaren izenburua (ekitaldia eta eszena, parte hartzeak...) eta garaia edo literatur mugimendua aipatu.

**2. Komunikazioa**

2.1. Kanpo-komunikazioa: lanaren komunikazioa aztertu.

a) Komunikazio-zirkuitu literarioa zehaztu. Antzeztu gabeko testu dramatikoetan erabili beharreko oinarrizko eskema hau da: autorea - testua - irakurlea.

b) Lanaren transmisioa aztertu. Oro har, ahozkoa nahiz idatzizkoa izan daiteke. Aintzat hartu behar da antzerki-testu oro antzezteko edo, gutxienez, ozen irakurketa dramatizatua egiteko idatzia dela.

c) Paratestua aztertu: azal-hegalak, aipuak, genero-azpitituluak, etab.

d) Kode estetikorik baden antzeman, hau da, edertasuna sortzeko hizkuntza erreala imitatu den edo ukaziorik badagoen (ezohiko erabilera) antzeman.

e) Lanaren testuingurua aztertu:

1. Testuinguru historikoa eta soziala: lanean ageri diren gertakari historikoak; asaldura sozialak, etab.
2. Testuinguru kulturala: mugimendu kultural eta literarioen eragina eta ezugarriak.
3. Testuinguru (auto)biografikoa: autorearen bizitzako esperientzien daturik ageri den edo ez.

2.2. Barne-komunikazioa: testuko ahotsak eta barne-hartzailearena edo hartzailearena aztertu.

a) Testuko barne-igorlea nor den, zer istorio “egiten” duen eta barne-hartzailea nor den zehaztu. Oinarrizko eskema hau da: pertsonaia - testu dramatikoa edo elkarrizketa - pertsonaia (irakurle ideala bakarrizketen kasuan).

b) Igorle- eta hartzaile-motak sailkatu: barnekoak edo testukoak. Igorle-motak: kanpokoa edo autore dramatikoa (diskalia eta akotazioetan) eta barnekoa (pertsonaia). Ez dago narratzailerik (lan esperimentaletan salbu), beraz, ezagutza pertsonaien adinakoa edo eskasagoa da; elkarrizketaren bidez, (auto)karakterizazioa gertatzen da, eta mitikoa (pertsonaiak goi-mailako heroiak dira), gizatiarra (pertsonaiek bertuteak eta akatsak dituzte) edo esperpentikoa (pertsonaiak barregarriak dira) izan daiteke. Barne-hartzaile mota: pertsonaia (edo irakurle ideala bakarrizketen kasuan).

**3. Testu dramatikoa:** ekintza edo istorio baten, pertsonaia batzuen edo giro baten sorkuntza subjetiboa. Ez dago narratzailerik, istorioa pertsonaien elkarrizketen eta ekintzen bidez eraikitzen da, beti orainaldian (antzokian: hemen eta orain).

3.1. Ekintza-motak sailkatu: protagonista hobetzen dutenak (eginak eta ez eginak edo etsitzaileak) eta protagonista degradatzen dutenak (eginak eta ez eginak edo etsitzaileak).

3.2. Pertsonaiak aztertu.

3.2.1. Aktanteak (pertsonaien funtzioak narrazioko gatazkan): ekintzaren subjektua (nork nahi duen) eta objektua (nor nahi duen) zehaztu; igorlea (eragilea) eta hartzailea (onuraduna); (subjektuaren edo subjektuak nahi duenaren) laguntzailea eta aurkaria; nahiaren helmuga definitu (subjektuak zer nahi duen eta zergatik); eta kontakizunaren oinarrizko esaldia osatu.

3.2.2. Pertsonaia-motak sailkatu: 1) pertsonaia tipoa eta pertsonaia bereizia; 2) pertsonaia bakarra eta pertsonaia kolektiboa edo korala; 3) bilakaerarik ez duen pertsonaia (bakuna edo laua) eta istorioak aurrera egin ahala bilakatzen dena (konplexua).

3.2.3. Pertsonaia nagusien karakterizazio laburra, bakoitzaren bereizgarriak.

3.3. Espazioa eta denbora analizatu: erreferentziazkoa (errealitate konkretu baten imitazioa) eta mikrokosmosa (sinbolikoa).

**4. Testuko eremu semantiko eta isotopia nagusiak antzeman:** hitzak eta esamoldeak esanahiaren arabera multzokatu.

**5. Gaia eta ikuspuntua zehaztu:** testuaren edukia eta xedea laburbiltzen dituen esaldi konplexua. Subjektua + aditza + aurreko multzoetan oinarritutako osagarriak izan behar ditu.

**6. Egitura:** testua, oro har, nola egituratuta dagoen karakterizatu. Testu dramatikoak, beste ezer baino lehen, elkarrizketa-moduan emandako testu narratiboa direnez, testu narratiboen atalean emandako azalpenek balio dute horietarako ere. Hala ere, antzerki-motek eragina dute testuaren egituraren lehen karakterizazioan: absurduaren teatroa, kale-antzerkia, antzezpen tradizionalak, antzerki beltza, happening-a edo antzerki elkarreragilea publikoarekin, antzerki mimikoa edo musikala, etab. Lehen hurbilketan, honako hauen arabera sailka daiteke:

1. AMAIERA: bukaera irekia (ez esplizitua) eta bukaera itxia; egitura zirkularra (amaiera eta hasiera berdinak dira), etab.
2. EKINTZAK: esperimentu ugari egin dira. Deskribatu.

6.1. Kanpo-egitura: testu dramatikoetan bereizketa asko daude, luzeraren eta espazio- eta denbora-aldaketen arabera sailkatuak. Ekitaldiak dira bereizketarik handienak; eszenatokia aldatzea eskatzen baitute, hau da, espazioa, denbora edota pertsonaiak. Elipsi narratiboa egiteko aprobetxatzen dira. Eszenak ekitaldien zatiak dira, pertsonaiarik sartzen edo irteten ez den zatiak. Azkenik, unitaterik txikiena pertsonaien parte-hartzeak dira, hau da, lanean parte hartzen duten aldi bakoitza. Parte hartzeko mota berezi bat apartea da. Testu dramatikoaren egituran, lanaren giroari eta pertsonaien jarrerari buruzko argibideak emateko autoreak sartzen dituen akotazioak eta didaskaliak ere analizatu behar dira. Gero, argibide horiek antzerki- edo espektakulu-kode bihurtzeko erabiliko ditu eszena-zuzendariak. Antzerkia hitz neurtuz ere egin daiteke. Kasu horretan, azterketa metrikoa ere egin beharko da.

6.2. Barne-egitura: testu dramatikoen eta testu narratiboen barne-egitura oso antzekoak dira, baina badituzte ezaugarri berezi batzuk. Testu dramatikoetan denbora eta lekua hau eta orain dira beti, orainaldia alegia. Gainera, ez dago narratzailerik, eta, beraz, istorioa bere kasa garatzen da. Testu narratiboetan bezala, bi egitura klasiko daude:

1. Kronologikoa: istorioaren iraganetik kontatzen den orainaldira egiten da kontakizuna.
2. Hasiera - gatazka - amaiera.
   a) Testua zati esanguratsutan banatu: ekintzaren garapenarekin zerikusia dute.
   b) Zati horien lotura eta erlazioa aztertu. Prozedura lexikoak (hitz semantikoak errepikatzea, esanahiak errepikatzea, isotopiak); sintaktikoak (alborakuntza, juntadura eta menderakuntza); gramatikalak (kontzeptu gramatikalak edo logikoak); denborazkoak (denboraren erreferentziak) eta lekuzkoak (lekuaren edo izaki edo objektu baten zatien erreferentziak). Bereziki denbora- eta espazio-erreferentziak eta hitzen errepikapena erabiltzen dira, kasu honetan, pertsonaien identifikazio-izenak. Baita pertsonaia bakoitzaren estiloa edo hizkuntza-erregistro partikularra ere.

**7. Forma analizatu:** testu dramatikoa (gehienetan elkarrizketa gisa) nola idatzita dagoen eta zer transmititzen duen (esanahi-mailak) analizatu behar da. Hau da, esanahiaren testu-mailako eraikuntza aztertu. Testu dramatikoetan bi aukera argi daude: irudipena (pertsonaien hizketaldietan hizkera errela imitatzea) eta ukazioa (hizkuntzaren ezohiko erabilera edo erabilera poetikoa).

a) Lehen aukeran, irudipenean, alderdi linguistikoetan (fonikoa, morfologikoa, sintaktikoa eta lexikosemantikoa) jarriko dugu arreta.

b) Bigarren kasuan, ornatusa edo hizkuntza ezohiko eran edo era poetikoan erabiltzeko baliabide propioen sorta analizatuko dugu. Ornatusa ebakera-figurek (nola ahoskatu edo zein soinu erabili), pentsamendu-figurek (esanahia) eta tropoek (ordezkapena) osatzen dute. Hiru eratara egin daiteke hori:
   1. bertso-lerroz bertso-lerro (edo lerroz lerro hitz neurtuzko teatroan).
   2. esanahi-mailaka (ideiak, sentipenak, sentsazioak).
   3. pertsonaia bakoitzaren parte hartzeka.

**8. Azken ondorioa:**

a) Gauzarik nabarmenenak laburbildu.

b) Iruzkindutako testuaren garrantzi sozial, kultural, estetiko eta pertsonala zenbatetsi.



## 19. jarduera

# Hainbat arteren iruzkin konparatua (zinema eta pintura) gatazkatik

Bi lan ezberdin behatuko ditugu jarraian. *Potemkin korazatua* filmeko eszena bat eta Dalí-ren koadro bat. Bi lan horiek bat datoz gauza batean: gatazka bat transmititzen dute biek. Zein gatazka diren eta autoreek zer era ezberdinetan erakusten duten aztertuko dugu. Azken finean, beste ikuspegi batetik koadro bat behatzen eta filme bat ikusten ikasiko dugu.

## 1

*Bakarka*

1. *Irakurri* Potemkin korazatua *filmearen fitxa teknikoa eta argumentua irakasleak jarriko duen eszena ikusi aurretik.*

2. *Behatu Odessa-ko eskaileraren eszena (17 min. gutxi gorabehera), eta jarri arreta, batez ere, fitxan agertzen diren alderdietan. Saia zaitez sinbolo, ideia, sentimen eta sentsazioen fitxa betetzen eszena ikusten duzun bitartean.*

3. *Irakurri Salvador Dalí-ren* Los placeres iluminados *koadroaren fitxa bibliografikoa. Gero, behatu koadroa minutu batzuetan. Idatzi fitxan koadroak eragiten dizkizun ideia, sentimen eta sentsazioak eta zehaztu zein sinbolok eragiten dizkizun.*

## 2

*Talde txikitan*

*Erkatu zure emaitzak taldeko kideen emaitzekin. Guztion artean, zehaztu lan bakoitzak deskribatzen duen gatazka nagusia zein den.*

## 3

*Ikaskide guztiekin*

*Hautatu taldeko idazkaria, gainerako ikaskideei zuen emaitzak azal diezazkien.*

## Pintura. *Los placeres iluminados.* Salvador Dalí Domènech



**SALVADOR DALÍ:** ***Los placeres iluminados.*** Zur gaineko olio eta collagea, 24 x 34,5 cm. Urtea: 1929. New York, Museum of Modern Art. Autorearen hitzetan: “pintura paranoiko-kritikoa”; “ez dio axola besteek nire pintura ulertzen duten edo ez, garrantzitsuena nik neuk ulertzea da”.

### Lanaren deskribapena:

Koadroaren erdian, behean, emakume desitxuratu baten irudia dago; eskuak odoleztatuta ditu, eta gizon batek eusten eta laguntzen dio; olatu batetik ateratzen dira biak. Ezkerrean, behetik, beso bat ageri da laban batekin, odoleztatuta hura ere. Bi irudi nagusien gainean erreferentzia ezezagunen bidez elkarri lotutako irudiak daude, paisaia mortu batean ezarriak, irudipen onirikoak balira bezala. Goian, ezkerrean, arrautza bat dago, desitxuratua eta hautsia. Haren gorringoak sagarra edo eguzkia dirudi. Konposizioan nagusi, hala ere, aurreko aldea margotuta duten hiru kutxa dira. Erdiko kutxan, zeruko zulo luzesketan, objektuak eta profilak sartzen ditu, urdinean igeri dabiltzanak. Eskuinean, biluzi bat dago, kutxari begira. Eskuineko kutxan, diagonalean lerrokatutako duna batzuk daude, eta, horien artean, txirrindulari batzuk ageri dira buruan arrautza bana dutela. Goian, idulki baten gainean, laugarren kutxa bat dago urrunean. Haren gainean, kopa bat dago, aurrez aurre ikusitako emakume baten forma duena; kopa horrek berak beste kopa handiago bat osatzen du, albotik ikusitako emakume baten forma duena: bi kopek eta emakumeek itxura irribera dute. Kopa-emakume handiena arte txinatarreko lehoien tankera duen piztia baten buruari lotuta dago. Collage teknikarekin, erdiko kutxaren eta ezkerrekoaren artean, totem bat sartu du Dalí-k; haren gainean argazki arkitektoniko bat dago (ziurrenik, Milango Esker onen Santa Maria eliza), eta haren gainean beste arrautza bat eta kapeladun gizon bat norabidea seinalatzen. Azkenik, beste irudi txikiago batzuk daude: eskuaren itzala, hegazti harrapari baten silueta gogorarazten duena; gizaki baten itzal luzeska, zenbait irudi zeruertzaren lerroan...

| *Los placeres iluminados.* Salvador Dalí Domènech | | | |
|---|---|---|---|
| Antzemandako sinbolo nabarmena | Transmititzen dituen ideiak | Transmititzen dituen sentimenak | Sortzen dituen sentsazioak |
| 1. ........ | | | |
| 2. ........ | | | |
| 3. ........ | | | |
| 4. ........ | | | |
| 5. ........ | | | |
| **Gatazkaren deskribapena** | | | |
| | | | |

## Zinema. *Potemkin Korazatua.* Serguei M. Eisenstein

**EISENSTEIN:** ***Potemkin Korazatua.*** Jatorrizko izenburua: "Bronenosets Potiomkin". Produkzioa: Goskino, Mosku. Urtea: 1925. Gidoia, zuzendaritza eta muntaia: Serguei M. Eisenstein. Fotografia: Eduard Tissé. Aktore nagusiak: Anton Antónov (Vakulinchuk), Vladimir Barski (Galíikov komandantea), Grigori Aleksandrov (Guiliarovski bigarren ofiziala). Estrak: Itsaso Beltzeko Flota Gorriko marinelak eta tripulazioa; Odessa-ko herritarrak; Eisensteinen ama (ume-kotxearekin agertzen den emakumea).

**ARGUMENTUA:**

48 ordutan gertatzen da dena. Portuko langileen grebaren ondoren, Potemkin korazatuaren tripulazioak ez du onartzen arrantxoko haragi ustela eta ofizialen kontra altxatzen da. Golikov komandanteak 10 liskarrak fusilatzeko aginduko du, baina Vakulinchuk kontramaisuak oihu egingo du: "Anaiok! Nori egin behar diozue tiro?" Guardiak armak lurrera botako ditu, eta marinelek ofizialak kareletik botako dituzte. Borrokaldian heroia, Vakulinchuk, hilko da, eta hilotzaren aurretik, kaian, sekulako jendetza igaroko da. Kosakoak kuarteletik atera eta marinel iraultzaileak goraipatzera zihoazen herritarrei tiro egingo diete. Itsasontzitik, erantzun gisa, kosakoen kuartela bonbardatuko dute. Berehala, hainbat gerraontzi tsarista iritsiko dira, baina tripulatzaileek uko egingo diote Potemkin tirokatzeari, eta korazatua mantso-mantso portutik atera eta laino artean galduko da, itsas zabalean.

**HAUTATUTAKO SEKUENTZIA:**

Odessako eskailerako triskantza.

| *Potemkin korazatua.* Serguei M. Eisenstein | | | |
|---|---|---|---|
| Antzemandako sinbolo nabarmena | Transmititzen dituen ideiak | Transmititzen dituen sentimenak | Sortzen dituen sentsazioak |
| 1. ........ | | | |
| 2. ........ | | | |
| 3. ........ | | | |
| 4. ........ | | | |
| 5. ........ | | | |
| **Gatazkaren deskribapena** | | | |
| | | | |

# Dokumentazio osagarria

**Jarduera egiteko oinarrizko kontzeptuak:**

## Abangoardiak

Abangoardiak (Guillermo de Torre; 1925). XIX. mendeko idazleek ekarri zituzten berrikuntzak, baina ez zen hausturarik izan, garbiketa edo eraberritzea baizik. Aldiz, abangoardistek benetako haustura ekarri zuten. Talka-, haustura- eta irekitze-mugimenduak dira, aldi berean. Haien helburua ez zen iraunkortasuna, are gutxiago gelditasuna. Espiritu borrokalaria, polemikoa dute, aldaketa- eta eboluzio-espiritua. Abangoardia hitza (frantsesetik dator: avant-garde) aurreko estetikaren aurka egin eta, beren manifestuekin, artearen eta letren ikuspegi guztiz berriak proposatu zituzten mugimenduak izendatzeko erabiltzen da. Novecentismo mugimenduarekin komunean dituzten ezaugarriez gain, abangoardiek badituzte beste batzuk ere: antierromantizismoa, europeismoa, artearen autonomia baieztatzea eta itxurazko errealitatetik ihes egiteko joera, errealismoaren edozein formarekin hausteko. Ortega y Gassetek aipatzen zuen gizatasuna kentzea ere antzematen da. Finean, forma berriak eta hizkuntza berria bilatzen zuten.

## Filmetako zenbait termino

Material osagarri gisa, zineman erabiltzen diren zenbait termino jarri ditugu hemen, ikasleen lexiko espezifikoa hazteko. A. Mª. Platas Tasende-k koordinatutako lanetik hartu dugu (1994:355-356):

**Angeluazioa.** Kameraren posizioa filmatzen ari denarekiko. Angeluazio normala: begien altuera parean egiten dena.

**Ekorketa.** Denbora-elipsea; plano batetik bestera igarotzea, kameraren mugimendu azkar eta trinko batekin.

**Eremua** Dagoen tokitik kamerak hartzen duen ikuste-eremua.

**Argi kontra.** Argi-fokua aurrez aurre daukala kamerak irudiak erregistratzean sortzen den ikus-efektua.

**Kontrapikatua.** Kamerak behetik gora grabatzean sortzen den angeluazioa.

**Etena.** Denbora-trantsizio arrunta; zuzeneko lotura baten bidez plano batetik bestera igarotzea.

**Kredituak.** Filmaren izenburua; zuzendariaren, teknikarien, aktoreen eta abarren izenak. Proiekzioaren hasieran edo amaieran ematen dira.

**Gaizki fokatzea.** Irudiaren argitasun-eza, gaizki fokatzeak eragina. Denbora-trantsizioak egiteko edo efektu estetiko gisara erabiltzen da.

**Kateadura.** Bi plano elkartzea, irudi gainjarrien efektu optiko baten bidez: irudi batzuk desagertzen ari direla, besteak agertzen dira, plano berria erabat finkatu arte. Denbora-trantsizio bat adierazteko erabiltzen da batzuetan.

**Enkoadraketa.** Kamerak zedarritzen duen eremua. Fotografia-zuzendariak hautatzen eta finkatzen du eremua, aldez aurretik, filmeko zuzendariaren onespenarekin.

**Fokatzea.** Kameraren objektiboa ondo jartzea, irudi garbia jasotzeko.

**Flash-backa.** ‘Atzera itzultzea’ du hitzez hitzeko esanahia. Iraganeko gertakariak edo irudi onirikoak agerrarazteko erabiltzen den narrazio-era. Analepsia ere deitzen zaio.

**Flash forwarda.** Denboran aurrera salto egitea. Etorkizuneko hainbat alderdi aurreratzeko erabiltzen den narrazio-era. Prolepsia ere deitzen zaio.

**Floua.** Irudi lausotua: objektiboaren aurrean iragazki egokia jarrita sortzen da. Iraganeko gertakariak edo pentsamendu onirikoak gogorarazteko erabiltzen da.

**Eremutik kanpo.** Kameraren ikuste-eremutik kanpo izaten den elkarrizketa edo ekintza.

**Iluntze-iraungipena.** Planoa gero eta ilunago jartzea, pantaila erabat beltz jarri arte.

**Plano orokor nagusia.** Enkoadraketa oso zabaleko planoa. Eszenategia deskribatzen da.

**Lehen plano nagusia.** Oso murriztua dago enkoadraketa: giza irudiaren aurpegiko zati bat, edo objektu baten zati batena. Pertsonaien barne-egoera ikusleei helarazteko erabiltzen da.

**Muntatzea.** Filmatutako plano guztiak hautatu, ordenatu eta elkarri lotzea, narrazioaren antolakuntza jakin baten eta erritmo egoki baten arabera.

**Panoramika.** Bere ardatzaren inguruan mugitzea kamera. Panoramika-motak: ezkerretik eskuinerakoa (panoramika horizontala), goitik beherakoa (panoramika bertikala) edo bien nahastea (panoramika zeiharra).

**Planifikazioa.** Gidoi baten planoak deskribatzea.

**Planoa.** hartualdi bereko irudi guztiak.

**Plano amerikarra.** Pertsona belaunetatik gora enkoadratzen duen planoa.

**Plano orokorra.** Pertsonaren gorputz osoa hartzen duena. Pertsonaiak eszenategi batean kokatu eta haien ekintzak erregistratzeko erabiltzen da.

**Plano ertaina.** Giza irudia gerritik gora enkoadratzen duen planoa.

**Plano subjektiboa.** Pertsonaiaren begiek ikusten duten gauza bera erakusten duena.

**Eremu-sakonera.** Enkoadraketa berean ondo samar fokatutako lehen eta bigarren planoen arteko tartea.

**Erritmoa.** Planoen iraupenak eta mugikortasun fisiko, psikologiko eta dramatikoak sortzen duten dinamismo-itxura. Muntatzeak ere izaten du eraginik erritmoan.

**Sekuentzia.** Narrazio-unitate bereko eszena-multzoa.

**Travellinga.** Kamerak espazioan zehar egiten duen mugimendu erreala. Elementu mugikorren baten (garabia, dollya...), errailen, kameralariaren bizkarraren, auto baten... gainean mugitzen da kamera.

**Off-ahotsa.** Irudi-eremutik kanpoko ahotsa. Monologoetarako eta irudien iruzkinak egiteko erabiltzen da.

**Zooma.** Kamera mugitu gabe objektuak eta giza irudiak hurbiltzeko edo urruntzeko objektiboa. Travellingak ez bezala, zoomak desitxuratu egiten du espazio-perspektiba.



# 5.2.Emoziozko ezagutza

## 5.2.3. Norberaren emoziozko ezagutza

*20. jarduera: Memoria freskatzen*

*21. jarduera: Nire kontakizuna*

## Irakasleentzako gida

### *1. Sarrera*

Sentimenei buruzko sarreran zera adierazten genuen: pertsonek, askotan, ez dituztela beren sentimenen kausak edo arrazoiak aurkitzen beren buruaren berri jakiteko beldur direlako. Gainera, ikusi dugu, emoziozko analfabetismoarekin batera –kulturaltzat har dezakeguna–, batzuetan, alexitimia arazoa edo sentimenak hitzez adierazteko eta komunikatzeko zailtasuna agertzen dela. Kapitulu honetan gure emozioak ezagutzen ahaleginduko gara, eta horrek bi alderdi kontuan hartzea eskatzen du (L. Greenberg; 2000:21): laguntza enpatikoa eta beste gizakiak baliozkotzat hartzea eta sarrera honetan laburbilduko ditugun norberaren emoziozko ezagutzarako abileziak. L. Greenberg-en gomendio batekin hasiko gara (2000:32):

> *"Gaur egun, aukera da emoziozko ezagutzak emozioak mugiarazi eta gure arrazoiak gida gaitzan eskatzen duela. Burua eta bihotza batzeak emozioak eragindako ekintza arrazoitzea eskatzen du."*

Hain zuzen ere, emozioak ulertzeak (2000:315) norberaren emozioen kontzientzia handiagoa hartzen laguntzen du; norberaren eta besteen sentimenekin enpatia handiagoa izaten; norberaren emozioei, sentitzearekin batera hausnartzean, zentzua emateko abilezia garatzen; eta norberaren burua kontsolatzeko eta erregulatzeko gaitasun hobea lortzen.

Aurreko kapituluetan aztertu ditugun sentimen-tipologia eta-sailkapen guztiak oinarrizko emoziozko prozesuen ezagutzan aplikatuko ditugu orain (2000:151-172). Oinarrizko zortzi printzipio ditu:

I. fasea: Sartzea.

1. Zure emozioen jakitun izatea.
2. Zure emoziozko esperientziari ongietorria egitea.
3. Zure emozioak hitzez deskribatzea.
4. Zure lehen mailako esperientzia identifikatzea.
5. Lehen mailako sentimen bat onuragarria den edo ez ebaluatzea.

II. fasea: Ateratzea.

6. Emozio moldakaitzarekin batera agertzen diren pentsamendu suntsitzaileak identifikatzea.
7. Emozio eta behar moldakor alternatiboak aurkitzea.
8. Emozio moldakaitza eta pentsamendu suntsitzaileak transformatzea.

Bestalde, norberaren emoziozko ezagutza ez da emozioak eta sentimenak sentitu eta bereizteaz soilik arduratzen, emoziozko esperientzia eta haren adierazpidea erregulatu eta maneiatzen ere ahalegintzen da. L. Greenberg-ek (2000:324-325) oso argi azaltzen du:

> *"Horregatik, sentimenen gaineko sinbolizazioa eta hausnarketa garrantzitsuak dira, zure burua egoeraren eta ekintzaren artean jartzen baitute. Azken batean, emoziozko erantzun orok kitzikatzea eta inhibizioa behar ditu. Sentitzen dena eta adierazten dena askatzearen eta gordetzearen arteko oreka aldakorraren menpe dago. Emozioak kontrol duala dakar; kontrol-mota hori oso ohikoa da sistema biologikoetan. Hunkiberatasunak sistema erregulatzaile bat du, eta arrazoia eta hausnarketa sistema horren funtsezko alderdiak dira."*

Gorputzez sentitzen diren emozioei buruzko erreferentzia hori (2000:329) oso garrantzitsua dela uste dugu, ezagutza heterogenetikoaren bi elementu nagusiekin erlazionatzen baita berriro: gorputza eta sinboloa. Gorputza gure niaren eta kanpoko munduaren arteko bitartekaria da, hautematen eta sentitzen duena. Ondorioz, gure gorputza –gaitasunak eta mugak– aztertu eta ezagutzea ezinbestekoa da. Sinboloa, bestalde, egoera batean sortzen diren sentsazio, emozio eta kontzeptu guztiak bildu eta transmititzeko gai da. Ikasleek beren sentimenak irudi sinbolikoen bidez adieraztea jarduera ona izan liteke autoezagutza-lan osoa amaitzeko.

Azkenik, L. Greenberg-ek (2000:150 eta 183), oinarrizko emoziozko prozesuaren pauso bakoitzari dagozkion hainbat jardueraren ondoren, bi taula proposatzen ditu. Jarraian jarri ditugu biak ikasleek jarduerak egiten dituzten bitartean landu ditzaten.

## Ikasleentzako taulak

*Honako bi taula hauek ikasleek eskura izan ditzaten, fotokopiatzea komeni da, bloke honetako jarduerak egin ahal izateko.*

### Sentimenetara sartzeko taula

**1. urratsa**

Zein da zure emozioa edo ekintzarako joera? Hautatu deskribapenik onena:

a) Sentimen bat izendatzen duen emozio edo hitz bat.

b) Ekintzarako joera bat.

**2. urratsa**

Zein egoerak erreakzionarazten dizu?

a) Gertatari batek.

b) Barne-esperientzia batek.

d) Beste pertsona batek.

**3. urratsa**

Zer pentsamendu agertzen dira emozioarekin batera?

..........................................................................................

**4. urratsa**

Zein da egoera horretan asetzen den edo ez den beharra/helburua/interesa?

..........................................................................................

**5. urratsa**

Aipatu zure oinarrizko emozioa: ..........................................................

1. urratseko emozioa oinarrizkoa al da?  Ez bada, zer da, bigarren mailakoa ala instrumentala?

..........................................................................................

**Sentimenak berregituratzeko taula**

**1. urratsa**

Zein da zure gorputzeko lehen mailako sentimen moldakaitza? Egiozu ongietorria.

a) Zenbateko intentsitatea du? (1-10).

b) Erregulatu edo distantziarik sortu behar al duzu? Hala bada, nola?

**2. urratsa**

Zein dira zure buruko ahots, pentsamendu edo sinesmen suntsitzaileak?

a) Zer tonu dute ahotsek? (normalean mesprezua edo areriotasuna).

b) Ezagunen baten ahotsa al da?

**3. urratsa**

Zer beste sentimen duzu?

Zein da zure emoziozko erantzun moldakorra? Jarri ahotsa.

**4. urratsa**

Zein da zure lehen mailako emozio moldakorreko oinarrizko behar/helburu/interesa?

Zer behar duzu zeure buruarengandik? Zer behar duzu beste pertsona batzuengandik?

**5. urratsa**

Jarri kontaktuan sentimen eta behar moldakorrak egoera moldakaitzarekin.

a) Identifikatu zure pentsamendu suntsitzaileak eta behatu objektiboki, kanpotik.

b) Bateratu zure alderdi sendoak eta zure baliabideak.



## 2. Helburuak

- Ahoz eta idatziz zuzen eta koherentziaz espresatzea, helburuak eta komunikazio-egoerak aintzat hartuta, pixkanaka norbere emoziozko ezagutzatik eta besteen ezagutzatik etorritako estilo adierazgarri propioa hartuz.
- Hizkuntza eta ezaguera artistikoa bitarteko gisa erabiltzea pentsamendu heterogenetikoen errealitatea, finkatzea eta garapena (pertzepziozkoa, emoziozkoa eta arrazoizkoa) ulertzeko eta analizatzeko, eta giza jarduera erregulatzeko.

## 3. Jardueren segida

### 20. jarduera: Memoria freskatzen

- *Deskribapena:* Jarduera honen helburua ikasleek beren emozio eta pertzepzioak antzeman eta izendatzen ikastea da. Horretarako, bakarka, sentsazio eta emozio bereziak eragin dizkien esperientzia bana oroitzeko eskatuko diegu. Antzeman eta gero, une hartan sentitutakoa espresatuko duen sinbolo bat bilatu behar dute eta hautatutako egoera deskribatu.
- *Beharrezko materiala:* 20. jarduerako taula.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 21. jarduera: Nire kontakizuna

- *Deskribapena:* Aurreko jarduera oinarri hartuta, ikasleek kontakizun batean sartu behar dute informazio hori. Horretarako, jarraitu beharreko urratsak zein diren esango diegu. Nork bere emozioak antzeman eta adieraztea ezinbestekoa da besteak ezagutu eta haien lekuan jartzeko; hurrengo blokearen helburua horixe da.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



## 20. jarduera

# Memoria freskatzen

**1**

*Gogoratu sentsazio eta emozio bereziak eragin zizkizun egoera bat: atsegin duzun mutil- edo neska-lagunarekin ateratzen hasi zinen eguna edo eten zenutenekoa, maite zenuen norbaiten heriotza, azterketa garrantzitsu bat, zure herriko jaiak hasi ziren eguna, kurtso-bukaerako afaria...*

**2**

*Behatu une hartan izan zenituen sentsazio eta emozioei.*

| Sentsazioak | |
|---|---|
| **Ikusmenekoak** | |
| **Entzumenekoak** | |
| **Usaimenekoak** | |
| **Dastamenekoak** | |
| **Termikoak** | |
| **Pisuari dagozkionak** | |
| **Ukimenekoak** | |
| **Zenestesikoak** | |
| **Esterognosikoak** | |

**3**

*Ba al dago antzeman zenuena sinboliza dezakeen objekturik, izakirik, etab.? Pentsatu erabil dezakezun sinboloren bat.*

**4**

*Sartu aurreko pauso guztiak bizi izandako edo irudikatutako egoera deskribatzeko egingo duzun idatzian.*



## 21. jarduera

# Nire kontakizuna

**1** *Aurreko jardueran egindako deskribapena ideia-iturri gisa erabilita, hautatu genero bat (lirikoa, narratiboa edo dramatikoa) eta aukeratu ezaugarriak, ikuspuntua eta gaia.*

**2** *Pentsatu testua nola antolatuko duzun, hautatutako generoa kontuan hartuta.*

**3** *Erabaki nola idatzi nahi duzun:*

- *Autobiografia gisa edo hainbat pertsonaia erabilita.*
- *Istorio baten euskarria eman nahi diozun (genero narratiboa edo dramatikoa hautatu baduzu) edo zure sentimenen transmisio-hutsa izatea nahi duzun (genero lirikoa).*
- *Erreferentzialtasun-ilusioa sortu nahi duzun (ohiko hizkuntza imitatuta) edo ukapena (estetika eder eta literarioa sortuz).*

**4** *Azken aukera horren arabera, landu hizkuntzaren planoak edo baliabide estetikoak, hurrenez hurren, eta idatzi testua.*

**5** *Irakurri, zuzendu eta edertu.*

**6** *Azkenik, nahi baduzu, irakurri zure lana gelakideei.*

# Dokumentazio osagarria

## Jarduera egiteko oinarrizko kontzeptuak

**Literaturaren bi norabide:** testu-iruzkinak sortzeko tailerra. Literatura, hizkuntza erabiliz –funtzio poetikoa alegia–, edertasuna sortzen duen artea da. Horretarako, subjektibotasunaz, ideien transmisioaz eta banakako sentsazioez eta hizkuntzaren beraren erabilera ezohikoaz edo estetikoaz baliatzen da. Dagoeneko ikasi dugu sorkuntza literario orok hiru fase dituela: asmatzea, antolatzea eta kontatzea. Halaber, badakigu testu-iruzkinak testu-komunikazioa, gaiaren eta isotopia nagusien zehaztapena, egitura (kanpokoa eta barnekoa) eta forma aztertzen dituela. Bi kontzeptuak, testuen sorkuntza eta iruzkina, prozesu bera dira, baina kontrako norabidean egina. Beraz, literaturaren mamiaren adierazgarri dira.

OHARRA: MAIUSKULAZ SORKUNTZA LITERARIOAREN ZIRKUITUA DAGO, ETA MINUSKULAZ, TESTU-IRUZKINENA (KONTRAKO NORABIDEA).

**SORTZEA**

**ASMATZEA**
komunikazioa, gaia, iturrien ikuspuntua, eremu semantikoak eta isotopiak

**ANTOLATZEA**
kanpo- eta barne-egitura

**KONTATZEA**
forma, espresio-mailak

**TESTUA**
testu-mota

**ARGITARATZEA**
argitalpenaren baldintzak

**IRAKURTZEA ETA HARRERA**

**Testuen iruzkina edo analisia**

**Asmatzea**. Asmatzeak, lehenik, gai bat bururatzea eskatzen du. Puntu honetan gai edo idazpuru nagusi zehaztugabeak (maitasuna, gorrotoa, etab.) eta gai zehatzak, izen-sintagma horien zerbait predikatzen duen esaldi batean azal daitezkeenak, bereiztu behar dira (adib.: desberdina denarekiko gorrotoak marjinazio-mota bat baino gehiago dakartza). Bi fase ditu:

A) IDEIAK JASOTZEA: hainbat iturritatik ideiak jasotzea.

- Irudimena.
- Norberaren eta besteen oroimena.
- Norberaren eta besteen esperientzia.
- Behaketa eta hausnarketa.
- Bibliografia.

B) GAIAREN EDO TESIAREN ARABERAKO HAUTAKETA:

- Menperatzen ez diren ideiak baztertu.
- Gaiarekin zerikusirik ez duten ideiak alboratu.
- Zehatza eta doia ez den hura baztertu.
- Gaiaz aparte, ikuspuntua ere aintzat hartzen da hautatzerakoan: umorezkoa, serioa, etab.

**Antolatzea**. Antolatzea ideiak ordenatzea da, ahalik eta argitasun handiena lortzeko. Ideia guztiek bi arau bete behar dituzte testuaren barruan:

A) BATASUNAREN ARAUA: ideia guztiak hautatutako gaiaren eta ikuspuntuaren menpe daude.

B) PROGRESIOAREN ARAUA: ideia guztiek aurrera egin behar dute amaierarantz, etenik, errepikapenik eta desbideratzerik gabe.

# 5.2.Emoziozko ezagutza

## 5.2.4. Besteen emoziozko ezagutza: enpatia

*22. jarduera: Nire laguna*



## Irakasleentzako gida

### *1. Sarrera*

Asertibitatea eta enpatia besteen pertzepziozko ezagutza aztertu genuenean aipatu genituen. Hain zuzen, besteen pertzepzio ñabartu eta enpatikoarekin batera, emoziozko ezagutza eta ezagutza enpatikoa behar dira.

Defendatu dugun bestearekiko topaketa lortzeko, ikasleen hazkunde moral edo etikoa sustatu behar dugu. Ezin dugu ahaztu, C. Castilla del Pino-k dioen bezala (2000), balio guztiak ez direla abstraktuak, sentimen bati lotuta daudela.

Behaketa-gida txiki bezala, L. Kohlberg-ek garapen moralean banatutako sei estadio famatuen laburpenera jo dugu (1984):

| | Estadioa | Deskribapena |
|---|---|---|
| **1.** | Heteronomia | Moralaurreko estadioa, haurtzarokoa. Ongia eta gaizkia kanpoko eragileek definitzen dituzte, sarien eta zigorren bidez. |
| **2.** | Indibidualismoa | Haurtzaroko estadioa da (bost bat urte), jokoaren arauak ikasten ditugunekoa. Gainerakoei beraiek egiten diguten gauza bera egiten diegu. Geurekoikeriagatik betetzen ditugu arauak, jolasten utz diezaguten. |
| **3.** | Pertsonen arteko itxaropenak | Besteek atsegin izan gaitzaten eta onar gaitzaten egiten ditugu gauzak. Moralaren helduarora arte irauten du (hogei bat urte). Heldu asko estadio honetan geratzen dira. |
| **4.** | Gizarte-sistema eta kontzientzia | Ondo jarduten dugu, libreki konpromiso batera heldu garelako. Horrela, arduraz betetzen da obligazioa, baina hortik aurrera ez da ezer egiten. |
| **5.** | Kontratu soziala | Gizaki orok ditu eskubideak. Pertsona munduko arazoez, bizitzaz eta askatasunaz kezkatzen da. |
| **6.** | Printzipio etiko unibertsalak | Ez ditugu defendatzen pertsona ororen oinarrizko eskubideak soilik, guztien berdintasunean eta duintasunean sinesten dugu. Mundua senitarte handi bat bezala ikusten dugu. |

## *2. Helburuak*

- Desberdintzat ditugunak epaitzeko erabiltzen ditugun aurreiritzi eta estereotipoen jakitun izatea.
- Gure gizarte-ereduak diskriminatzen dituen pertsonekiko interesa, errespetua, identifikazioa eta elkartasuna bultzatzea.

## *3. Jardueren segida*

### *22. jarduera: Nire laguna*

- *Deskribapena:* Jarduera honetan, ikasleak bere estereotipoei egin beharko die aurre. Horretarako, zera proposatzen dugu: lagunik minenak homosexuala dela esanez gero nola erantzungo genukeen imajinatzea; gure sentsazio, emozio eta ideiak aztertu eta esperientzia hori deskribatuko duen kontakizunarekin amaituz. Gure aurreiritziak azaleratu eta analizatzen saiatuko gara, desberdintzat ditugunekin elkartasunez jokatzeko.
- *Beharrezko materiala:* 22. jarduerako taulak.
- *Dinamika:* Banakakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.



## 22. jarduera

# Nire laguna

1 *Pentsatu zure lagunik onenarengan. Berarekin konektatzen duzu hobekien, berarekin egiten dituzu planak, berari kontatzen dizkiozu zure arazoak eta berarekin ospatzen dituzu berri onak. Imajinatu une batez, egun batean, bueltatxo bat ematen duzuen bitartean, homosexuala dela esan dizula.*

2 *Behatu zure erantzunari kanpotik, film bat balitz bezala. Aintzat hartu homosexuala dela esan dizunean zer sentitu duzun.*

| Sentsazioak | |
|---|---|
| **Ikusmenekoak** | |
| **Entzumenekoak** | |
| **Usaimenekoak** | |
| **Dastamenekoak** | |
| **Termikoak** | |
| **Pisuari dagozkionak** | |
| **Ukimenekoak** | |
| **Zenestesikoak** | |
| **Esterognosikoak** | |

3 *Orain, jarri arreta zure pentsamenduei, lagunari entzuten diozula sortzen zaizkizun ideiei. Idatzi burura datozkizun esaldiak. Ez epaitu, entzun eta idatzi soilik.*

| Ideiak edo kontzeptuak |
|---|
| **1. ideia:** ................................................ |
| **2. ideia:** ................................................ |
| **3. ideia:** ................................................ |

4

*Aztertu orain, zer sentimen dituzun lagunari entzuten diozunean. Zer sentitzen duzu?*

| Sentimen pertsonala | Tribuak | Klanak | Sailkapena |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |

5

*Behin taulak amaitu eta gero, irakurri "filma" behatu duzun bezala, kanpotik. Datu horiekin, idatzi zer ikusi duzun. Hasi hasieratik, lagunak bere "sekretua" esan dizunetik. Deskribatu zer esan dizun, nola erantzun duzun, zer sentsazio, ideia eta emozio sentitu dituzun. Azkenik, idatzi lagunari zer esan diozun. Nola amaitu da eszena?*

6

*Ikaskideekin elkarrizketa honako gai hauei buruz, nahi duenak bere iritzia askatasun osoz ager dezan:*

1. *Homosexualei buruz, gizartean, estereotipo eta aurreiritzi negatiboak daudela uste al duzu? Zer nolakoak dira? Zer iritzi duzu?*
2. *Zuk ere ba al dituzu?*
3. *Zuk homosexualen gainean duzun irudia errealitatearekin bat datorrela uste al duzu?*
4. *Pertsonalki ezagutzen al duzu gay edo lesbianaren bat? Jarri al zara inoiz haren lekuan?*
5. *Arazoa non dagoela uste duzu?*
6. *Nola hobe daiteke egoera?*

# 5.3.Arrazoizko ezagutza

## 5.3.1. Besteei buruzko informazioa eta aurreiritziak

*23. jarduera: Informazioa, iritzia eta aurreiritzia*

*24. jarduera: Idatzizko komunikazioa: etorkinak eta langabezia Espainian*

*25. jarduera: Gure iritziak eztabaidagai*

## *Irakasleentzako gida*

***1. Sarrera***[1]

H. Gardner-ek (2000) adimen anizkunak daudela baieztatzen du. Adimena gaitasun gisa definitzen du, genetikaren eta heziketaren batura gisa, eta horrekin gizakiak arazoak konpondu eta berrikuntzak ekar ditzakeela dio.

H. Gardner-en iritziz, zazpi adimen ezberdin daude; pertsona bakoitzak bi edo hiru garatzen ditu gehien eta besteak gutxi edo batere ez. Hauek dira:

1. Adimen linguistikoa.
2. Adimen abstraktua.
3. Espazio-adimena.
4. Adimen zinetikoa.
5. Musika-adimena.
6. Pertsonen barne-adimena.
7. Pertsona arteko adimena.

Agerikoa da adimen horiek gure zentzumenetatik, emozioetatik eta arrazoizko pentsamendutik jasotzen dutela informazioa. Arrazoizko pentsamenduaz jardungo dugu orain. A. Ortiz-Osés-ek (2000) “arrazoi sinboliko edo afektibo” kontzeptuak laburbiltzen duela uste du, baina G. Durand-ek (2000:99) nahiago du ezagutza-mota guztiak biltzen dituen “pluralismo koherenteaz” hitz egin, arro semantiko kontzeptuan, laburbildu gabe. Baina, oro har, pentsamendu arrazional kontzeptua onartzen da, ezagutza-abilezia gisa, errealitatearen analisi objektiboaren sinonimo gisa. G. Spivack eta M. B. Shure-k (1974) bost pentsamendu-mota bereizten dituzte: kausazko pentsamendua, pentsamendu alternatiboa, ondoriozko pentsamendua, ikuspegi-pentsamendua eta bitarteko-helburuen pentsamendua. Labur-labur, guztiak azalduko ditugu ikasleentzako tauletan.

### Besteei buruzko informazioa eta aurreiritziak

Aurrez ere azaldu dugu zer zaila den informazioa eta iritzia bereiztea. Informazioa gertakarien aurkezpen objektiboa da, inongo alderditatik parte hartu gabe eta datu fidagarriak emanda. Kazetaritzaren aldetik, batez ere, albisteari lotuta dago, eta nork, zer, nola, noiz, non eta zergatik erantzuten saiatzen

---

[1] M. Segura, 2002.

da. Horren aurrean, iritzia gertakarien balorazio subjektiboa (gutxi edo gehiago) da, eta gertakarien ondorioen aurreikuspena, gutxi edo gehiago argumentatua. Informazioak estereotipoak hedatzea ekar lezake (5.1.3. gaian azaldu dugu kontzeptu hori).

### Gure iritzi argumentatua

Estereotipo eta aurreiritzietan jausi nahi ez badugu, informazioa eta iritzia bereizten jakin behar dugu, eta gure iritzia sendo argumentatuta azaltzen ikasi.

Pertsona baten iritzia adierazi edo argumentatu egin daiteke. Adieraztea gai, ideia edo tesi bat aurkeztea da, gainerakoei ulertarazi eta ezagutzera emateko. Azalpen hutsa ez da oso ohikoa; gehienetan argudiaketarekin batera agertzen da. Azalpenaren oinarrizko kualitateak honako hauek dira: objektibotasuna, argitasuna eta zehaztasuna. Azalpena zenbait eratara egitura daiteke. Hauek dira era garrantzitsuenetako batzuk:

1. **Egitura analizatzailea:** ideia nagusia eta berrespena.
2. **Egitura laburtzailea:** ideien adierazpena eta ondorioa.
3. **Eskema enkoadratua:** ideia, azalpena eta ondorioa.
4. **Eskema paraleloa:** ideia guztiek garrantzi berdina dute; ez daude batzuk besteen menpe.

**Argudiaketa** ahozko edo idatzizko diskurtso-forma da, eta hartzaileari eduki jakin batzuen gaineko egia edo garrantzia bazterraraztea du helburu, hau da, norberaren iritzia indartu eta kontrakoa gezurtatzeko arrazoiak ematea. Bi alderdi ditu:

- **Berrespena:** teoria baten balioa sendotu edo indartzeko probak ematen ditu.
- **Gezurtatzea:** ideia, aplikazio edo arrazoiketa baten faltsutasuna frogatzen du.

Argudiaketak bi motatakoak izan daitezke: **indukziozko argudiaketak** premisa batzuetatik abiatu eta tesi batera heltzen dira, ondorioaren lekua betetzen duena. **Dedukziozko argudiaketak**, aldiz, tesia aurkezten du lehenik, eta berrespena edo gezurtatzea dator gero; azkenik, ondorioa.

Beste argudiaketa batzuen gezurren aurrean, gure iritziak argumentu-mota bat baino gehiago izan ditzake oinarrian, M. Á. Garrido-ren laburpenean oinarrituta ikasleentzako egindako tauletan ikus daitekeen bezala (2000:199-207).

## Ikasleentzako taulak

*Arazo bati aurre egiteko garaian (gure kasuan, eztabaida), ikasleak egoera horretarako arrazoizko pentsamendu-mota egokiena hautatu behar du.*

| **Arrazoizko pentsamendu-motak** | |
|---|---|
| **Pentsamendu-mota** | **Karakterizazio laburra** |
| Kausazkoa | Arazoaren kausa zehaztu eta egoeraren analisi egokia egitea lortzen du |
| Alternatiboa | Arazoentzat ahalik eta konponbide gehien imajinatzea lortzen du |
| Ondoriozkoa | Ekintzek edo hitzek etorkizunean eragingo dituzten ondorioak aurreikusten ditu |
| Ikuspegizkoa | Besteekin enpatia lortzen du, eta nola arrazoitzen duen ulertzea lortzen du |
| Bitarteko-helburuena | Helburu batzuk ezarri, lortzeko ditugun bitarteko materialak eta giza bitartekoak zenbatetsi eta lortzeko beharrezko ekintzak programatu eta banatzean datza |

*Ikasleak iritzi bat eratu nahi duenean, argumentu sendoak behar ditu defendatzeko.*

| Argumentu-mota | |
|---|---|
| **Argumentu-mota** | **Karakterizazio laburra** |
| Adibidea | Orokor kategoria ematen die kasu partikular eta esanguratsuei |
| Aginpide-argumentua | Inork ezin du dena zuzenean eta sakon-sakon ezagutu, beraz, adituengana edo izen handiko pertsonengana jotzen du |
| Tautologia | Benetakoaren irmotasuna. Adibidez: "futbola futbola da" |
| Hautaketa | Erdibideko aukerak baztertzen ditu, eta bietako bat hautatzera bultzatu |
| Dilema | Ondorio berera garamatzaten bi bideetatik bat hartzera behartzen gaitu |
| Kantitate-argumentua | Estatistikekin modernoki erlazionatuta dago eta oinarri hauxe du: gehiengoaren iritzia gutxiengoarena baino hobea da, ohikoa ohiz kanpokoa baino hobea |

## *2. Helburuak*

- Komunikabideetatik eta irudizko kolektibotik datorren hitzaldia ulertzea, ahozko eta idatzizko espresioari eta ez-ahozko kodeekin duen loturari arreta berezia jarriz, diskurtsorako abilezia areagotzeko eta, aldi berean, mezu horiekiko jarrera kritikoa garatzeko.
- Hizkuntzaren bidez egin daitezkeen banakako manipulazio-prozedurak eta kolektiboak kritikoki aztertu eta epaitzea.
- Beste pertsona batzuekiko interesa, errespetua, identifikazioa eta elkartasuna sustatzea, identifikazio hori eragozten diguten aurreiritzi eta estereotipoen jakitun izanda.

## *3. Jardueren segida*

### *23. jarduera: Informazioa, iritzia eta aurreiritzia*

- *Deskribapena:* Jarduera hau eta hurrengoa gure ikasleen artean jarrera kritikoa garatzera bideratuta daude. Informazio hutsa eta iritzi subjektiboa eta, gehienetan, hedabideetatik jasotzen dugun informazioaren mezu inplizituak bereizten jakitea da gure helburua. Horretarako, testuak "biluztu" eta hitzetatik harago ikusten laguntzen duen analisi linguistikoa egitea proposatzen dugu. Azken finean, egunez egun jasotzen dugun informazio-oldearen aurrean, iritzi argumentatua eta autonomoa eratzean datza. Horretarako, gure inguruan nahitaezkoa den gai bat hautatu dugu: immigrazioa.
- *Beharrezko materiala:* Irakasleek edo ikasleek aurkituriko kazetaritza-testuak.
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.

### 24. jarduera: Idatzizko komunikazioa: etorkinak eta langabezia Espainian

- *Deskribapena:* Jarduera honen helburua ikasleek beren iritzi argumentatuak idatziz azaltzen ikastea da; azken fase hau banakakoa izango da. Haatik, aurrez dokumentazio –eta informazio– iturrietara hurbiltzea lantzeko unea ere bada; taldeko lana sustatu (5 edo 6 ikasle) eta funtzio eta ardurak banatzeko ezin hobea.
- *Beharrezko materiala:* Immigrazioari buruzko artikuluak, albisteak...
- *Dinamika:* Banakakoa eta taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat.

### 25. jarduera: Gure iritziak eztabaidagai

- *Deskribapena:* Jarduera honetan, ikasleek eztabaidetan zer jarrera eta zer postura izan jakitea, eta iritzi argumentatua besteak errespetatuz adieraztea da asmoa. Ikasleen ahozko espresioa hobetzea ere bada jarduera honen xedea, ezinbesteko alderdia baita hori ikasleen gizalegezko garapenean, garapen demokratikoan eta, ondorioz, garapen solidarioan. Eztabaida behar bezain emankorra izan dadin, aurreko jarduerarekin lotuko dugu, baina etorkinak integratzeko bideak bilatzea eta aurreiritzi eta estereotipoak gainditzea azpimarratuko dugu; hau da, ahozkoa ez dadila idatzizkoaren errepikapen soila izan, immigrazioaren erronkaren aurrean erabaki konstruktibistak bilatzea baizik.
- *Dinamika:* Taldekakoa.
- *Iraupena:* 50 minutuko saio bat (35 minutu eztabaidarako eta 15 minutu fitxak betetzeko).
- *Ikusi:* Dokumentazio osagarria.



## 23. jarduera

# Informazioa, iritzia eta aurreiritzia

**1** *Irakurri aurkituriko kazetaritza-testu bat eta egin azterketa linguistikoa honako urrats hauei jarraituz:*

**1. urratsa:**

Zehaztu **testuaren erabilera-eremua**, **diskurtso-mota**, **testu-mota** eta **generoa** eta **kanala**, beheko taula hauek oinarri hartuta:

| Erabilera-eremua | Diskurtso-mota | Testu-mota | Testu-generoa |
|---|---|---|---|
| Akademikoa<br>Instituzio literarioa | Informazio-diskurtsoa | Azalpena<br>Narrazioa | Albistea<br>Zutabea<br>Erreportajea |
| Komunikabide sozialak | Diskurtso literarioa | Argudiaketa | Editoriala<br>Artikulua |
| Administratiboa eta juridikoa | | Deskribapena | Kronika<br>Kritika |

| Kanala | Literatura | Kazetaritza | Komunikabideak |
|---|---|---|---|
| Ahozkoa | | | Elkarrizketa, iritzia, solasaldia, iragarkia |
| Ikus-entzunezkoa | | | Iragarkia<br>Albistegia |
| Idatzizkoa | Ipuina, eleberria, gutuna, poema, saiakera, antzezlana | Artikulua | Iragarkia, testua, dibulgazioa |

| Testu-mota | Ezaugarriak |
|---|---|
| Elkarrizketa | Transakzio-hizkuntza: elkarrizketa, eztabaidak, etab.<br>• Eguneroko ahozko erabileran eta testu idatzi batzuetan (antzerkia, eleberria, etab.). |
| Deskribapena | Pertsona fisiko eta psikikoak, paisaiak, objektuak, etab.<br>• Ahozko eta idatzizko testuetan: bakarrizketak, diskurtsoak, postalak, albisteak, gutunak, etab. |
| Narrazioa | Gertakariak, istorioak, biografiak, prozesuak, etab.<br>• Ahozko eta idatzizko testuetan: ipuinak, albisteak, historiografia, etab. |
